

I - ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

GIZARTE ZERBITZUEN SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 36/2014 Foru Dekretua, uztailaren 22koa, arautzen duena mendetasun egoera aitortzeko, ezintasuna kalifikatzeko eta garapenaren arazoak edo horiek jasateko arriskua aitortzeko prozedura, bai eta, baldintza horiek emanez gero, Arabako gizarte zerbitzuak eta diru prestazioak jasotzeko eskubidea eta prozedura ere

Arabako Foru Aldundiak du eskumena gizarte zerbitzuen esparru osoko erakundeen legedia betetzeko, 27/1983 Legeko 7.c) artikulua ezarritako eskudantziari jarraiki (27/1983 Legea, azaroaren 25ekoa, Eusko Legebiltzarrarena, Euskal Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Ihardutze-Erakundeen Arteko Harremanei buruzkoa), eta hori guztia, Espainiako Konstituzioaren 148.1.20^a artikulua aplikatuz, Autonomia Estatutuko 10.12 artikulua bidez Euskal Autonomia Erkidegoak gizarte laguntzaren arloan bere gain hartutako eskumen eskusiboen esparruan.

Eskudantzia hori gizarte zerbitzuen esparrua arautu duten autonomia erkidegoko hurrengo lege sektorialetan jaso da. Hala, gaur egun, 12/2008 Legeak, abenduaren 5ekoak, Gizarte Zerbitzuei buruzkoak, bere 41.3 artikulua Foru Aldundiei esleitzen die Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako bigarren mailako arretako gizarte zerbitzuei hornitzeko eskumena, Eusko Jaurlaritzari bere ekintza zuzena gauzatzeko esleitutako gaitasuna izan ezik.

Esparru horretan, 39/2006 Legeko 16. artikuluan aurreikusitakoa oinarri hartuta (39/2006 Legea, abenduaren 14koa, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoa), Arabako Foru Aldundiak bere gain hartzen du Autonomiaren Aldeko eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemako zerbitzu katalogoko zerbitzuak eta prestazio ekonomikoak Arabako Lurralde Historikoan ematea gizarte zerbitzuen foru sarearen bidez, bere eskumenari egokitzen zaionean. Horretarako, aintzat hartuko dira 12/2008 Legean jasotako eskumen banaketa (12/2008 Legea, abenduaren 5ekoak, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa), eta 39/2006 Legearen hamabigarren xedapen gehigarriaren babesean beteko du zeregin hori (xedapen gehigarri horretan, foru aldundien ezaugarri bereziak berariaz onartzen dira, Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, Autonomiaren Aldeko eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemari lurraldeko erakundeek parte hartzean).

Bestalde, bere eskumenari dagozkion gizarte zerbitzuekin lotutako jarduerak antolatzeko, kudeatzeko, emateko eta gauzatzeko funtzioak betetzen ditu Arabako Foru Aldundiak, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen bidez. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea 21/1988 Foru Erakundearen bidez eratu zen, garai hartako Arabako Foru Aldundiko Gizarte Gaietarako Sailari atxikitako erakunde autonomo gisa, eta Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 3ko 25/2012 Foru Dekretuak arautzen du haren antolaketa eta egitura. Horiek horrela, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea Arabako Lurralde Historikoko gizarte zerbitzuen sare publikoaren kudeatzailea da eta, beraz, berak dauka Beregintasan Pertsonala Sustatzeko eta Mendekotasun Egoeran bizi diren Pertsonen Laguntzeko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak xedatutakoak aplikatzeko eskumena.

Aurrekoaren babesean, 2013. urtean Arabako Foru Aldundiak erreparatu zuen beharrezkoa zela indarreko arautegia aldatzea helburu hauek lortzeko: mendekotasun egoeren arretaren esparruko estatuko araudian izandako aldaketetara moldatzea eta autonomia erkidegoko araudi esparruan aintzat hartutako aurreikuspen berrietara egokitzea, batez ere Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legea; indarreko arautegian sartzea urteetan aplikatu ondoren metatutako esperientzia kontuan hartuta egindako aldaketak eta hobekuntzak, eta

Desgaitasuna Duten Pertsonen Eskubideen Biltzarrak (Nazio Batuen Batzar Nagusiak 2006ko abenduaren 13an aldarrikatu zuen eta Espainiak 2008an berretsi zuen) arlo honetaz ezarritakoa. Helburu horiekin Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 23ko 24/2013 Foru Dekretuak ondokoak arautu zituen (dekretu horren bidez mendekotasun egoera aitortzeko, ezintasuna kalifikatzeko eta garapenaren arazoak edo horiek jasateko arriskua aitortzeko prozedura arautzen du, bai eta horrelako kasuetan Arabako gizarte zerbitzuak eta diru prestazioak jasotzeko eskubidea eta prozedura ere):

– Beharrian egoera hauek aitortzeko prozedurak: mendekotasun egoera aitortzeko prozedura; ezintasuna aitortzeko, deklaratzeko eta kalifikatzeko prozedura; 6 urteko edo adin horretatik beherako neska-mutilek garapen nahasmendurik duten edo halakorik edukitzeko arriskua duten aztertze prozedura, laguntza goiztiarra eskaintzea beharrezkoa edo komenigarria den zehazteko.

– Aurreko paragrafoko egoerak aitortzearen ondorioz aitortenaren onuradunentzat sortzen den gizarte zerbitzuak eta prestazio ekonomikoak eskuratzeko eskubidea:

– Mendekotasuna aitortzen denean, Autonomiaren Aldeko eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemako zerbitzuak eta prestazio ekonomikoak jasotzeko eskubidea; gizarte zerbitzuen foru sareak emandako zerbitzuei eta prestazio ekonomikoei dagokienez, Estatuara arautegian ezarritako oinarriko babes maila eta Arabako Foru Aldundiak ematen duen babes maila osagarria.

– Ezintasuna aitortu, deklaratu eta kalifikatzen denean, zerbitzu edo zentro okupazionalak eta eguneko zentroak erabiltzeko eskubidea aitortzea ezintasun intelektuala eta gaixotasun mental kronikoa duten pertsonen izan ere, pertsona horiek ez lukete zerbitzu horiek eskuratzeko eskubiderik izango aurreko paragrafoan aurreikusitako bidearen bidez, mendekoak ez izateagatik.

– Garapen nahasmendua, edo nahasmendu hori edukitzeko arriskua, aitortuz gero, arreta goiztiarreko zerbitzua jasotzeko eskubidea.

– Gizarte zerbitzuak eta prestazio ekonomikoak eskuratzeko prozedura.

– Gizarte zerbitzuen foru sareko zentroetako plazak kudeatzeko antolaketa prozedurak, aurreko paragrafoetan aipatutako eskubidearen gauzatzean eragina duten edo eta gauzatze hori modulatu duten neurriak: gizarte zerbitzuen foru sareko zentroetako plazak eskuratzeko prozedura; gizarte zerbitzuen foru sareko zentroen arteko lekualdatzei aplikatu dakiekeen prozedura; gizarte zerbitzuen foru sareko zentroetan sartzeko prozedura.

Gaur egun oinarriko arautegia osatzeko prozesua burututa dago –plazak eskuratzeko prozedura ez ezik Autonomiaren Aldeko eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemako prestazio ekonomikoak eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak ematen dituen zerbitzuen prezio publikoak ere arautu dira–. Bada, hori kontuan hartuta eta Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 23ko 24/2013 Foru Dekretua (dekretu honen bidez mendekotasun egoera aitortzeko, ezintasuna kalifikatzeko eta garapenaren arazoak edo horiek jasateko arriskua aitortzeko prozedura arautzen du, bai eta horrelako kasuetan Arabako gizarte zerbitzuak eta diru prestazioak jasotzeko eskubidea eta prozedura ere) aplikatu den lehen urtean bildutako esperientziaz baliatuta horren edukia moldatu behar da arautegiko xedapen guztien arteko koherentzia bermatzeko.

Arabako Foru Aldundiaren Antolaketari, Funtzionamenduari eta Lege Araubideari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren bidez Diputatuen Kontseiluari eman zaio foru arauak eta autonomia erkidegoetako eta Estatuaren legeak garatzeko araudiak emateko ahalmena.

Horregatik, Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatuak proposatuta, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Administrazio Kontseilua jakinaren gainean jarrita eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu eta gero, hauxe

XEDATZEN DUT:

1. artikulua. Xedea eta eremua

1. Foru dekretu honek helburu hauek dauzka:

a) Ondokoak lortzeko prozedurak arautzea:

– mendekotasun egoera aitortzea;

– ezintasuna aitortzea, deklaratzeko eta kalifikatzeko;

– 6 urteko edo adin horretatik beherako neska-mutilen garapen nahasmendua edo halako nahasmendua edukitzeko arriskua aitortzea.

Prozedura horiek bateragarriak dira elkarren artean; aldi berean izapidetu daitezke.

Hau guztia I. tituluan arautu da.

b) Ondoko hauek mugatzea:

– Mendekotasun egoera aitortuta duten pertsonen Autonomiaren Aldeko eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemako gizarte zerbitzuak edota prestazio ekonomikoak jasotzeko eskubidea, foru dekretu honetako 46. artikuluan (lehenengo xedapen iragankorarekin lotua) ezarritako eraginkortasun gehikorraren egutegiari jarraiki.

– Ezintasuna kalifikatuta dutela mendekotasun egoera aitortu ez duten ezintasun intelektual edo gaixotasun mental kronikodun pertsonen Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak gizarte zerbitzuen foru sarearen bidez hornitutako zentro okupazionalak eta eguneko zentroak erabiltzeko eskubidea (izan ere, pertsona horiek mendekotasun egoera aitortu gabe dutenez, ezin dituzte erabili zerbitzu horiek aurreko gidoian ezarri den bezala). Aurrekoak ez du eragozten foru dekretu honetako lehenengo xedapen iragankorreko bigarren paragrafoan mendekotasuna aitortuta duten ezintasun intelektual edo gaixotasun mental kronikodun pertsonen ezarritakoa, Autonomiaren Aldeko eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemaren sartzeko eskubidea gauzatzen ez den bitartean.

– 6 urteko edo adin horretatik beherako neska-mutilek Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak gizarte zerbitzuen foru sarearen bidez ematen duen arreta goiztiarreko zerbitzua jasotzeko eskubidea.

Hau guztia II. tituluan arautu da.

b) idatz zatian aipatzen diren zerbitzuak eta prestazio ekonomikoak jasotzeko prozedura arautzea. III. tituluan arautu da.

c) Gizarte zerbitzuen foru sareko zentroetako plazak kudeatzeko antolaketa prozedurak arautzea: plaza lortzeko prozedura; gizarte zerbitzuen foru sareko zentro batetik beste batera aldatzeko prozedura; gizarte zerbitzuen foru sareko plaza bat okupatzeko prozedura. IV. tituluan arautu dira.

2. Foru dekretu honetan ezarritako ondorioetarako, gizarte zerbitzuen foru sarekotzat hartuko dira Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak ematen dituen zerbitzuak, bai zerak zuzenean kudeatzen dituenak, bai beste erakunde publiko batzuekin egindako hitzarmenen bitartez ematen dituenak, bai erakunde pribatuekin egindako itun, hitzarmen edo kontratuen bitartez ematen dituenak.

3. Foru dekretu hau Arabako Lurralde Historikoaren eremu geografikoan aplikatu ahal izango da.

I. TITULUA. BEHARRIZAN EGOERAK AITORTZEKO PROZEDURAK**I. KAPITULUA. MENDEKOTASUN EGOERA AITORTZEKO PROZEDURA****1. atala. Prozedura hastea.****2. artikulua. Eskaerak aurkeztea**

1. Mendekotasun egoera aitortzeko prozedura pertsona interesdunak Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Zuzendaritza-Kudeatzailetzari eskaera aurkeztu ondoren hasiko da.

2. Eskaerak leku hauetan aurkeztu ahal izango dira:

a) Eskatzailearen ohiko etxebizitza Vitoria-Gasteizen badago, Informazio eta Gizarte Arretarako Bulegoan edo Orientazio eta Balorazio Zentroan. Biak ere Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari atxikita daude.

b) Eskatzailearen ohiko etxebizitza ez badago Vitoria-Gasteizen, ohiko etxebizitza dagoen udalerriko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuan.

Aurrekoa gorabehera, eskaerak aurkezteko Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 38. artikuluko gainerako prozedurak ere erabili ahal izango dira (lege hori urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu zuen).

3. Eskaerak foru dekretu honen I. eranskineko eredu ofizialean egin behar dira.

4. Ondoko hauek aurkez dezakete eskaera:

a) Mendekotasun egoera aitortzeko eskatzen duenak berak zuzenean.

b) a) idatz zatiko kasuetan, eskatzailearen legezko ordezkariak daukan pertsonak.

c) a) idatz zatian aipatutako pertsonaren egitatezko zaintza daukan pertsonak; eskatzailea adingabea izanez gero, egitatezko zaintza daukan pertsonak eskaera aurkezteko ezinbestekoa izango da aurretik familia harrera formalizatzeko prozedura hasita egotea, bai eta harrera eraginkortasunez gauzatu arte prozedurarekin aurrera egin beharra bere gain hartzea ere.

3. artikulua. Dokumentazioa

1. Aurreko artikuluan aipatutako eskaerarekin batera dokumentu hauek aurkeztu behar dira:

a) Nortasuna egiaztatzeko dokumentuak:

– Ezinbestean, mendekotasuna aitortzeko eskatzen duen pertsonaren Nortasun Agiri Nazionalaren (NAN) edo Atzerritarren Identifikazio Zenbakiaren (AIZ) fotokopia edo, horrelakorik eduki ezean, indarrean dagoen legeriaren arabera nortasuna egiaztatzen duen beste edozein dokumentu ofizialen fotokopia, eskaera interesdunak zuzenean aurkeztu duenean zein legezko ordezkariaren edo egitatezko zaintza daukanaren bidez aurkeztu duenean.

– Behar denean, legezko ordezkari gisa aritzen den pertsonaren Nortasun Agiri Nazionalaren (NAN) edo Atzerritarren Identifikazio Zenbakiaren (AIZ) fotokopia eta ordezkariaren egiaztatzea:

- eskatzailea adingabea bada, familia liburua; gurasoak bananduta edo dibortziatuta badaude, zaintza eta jagoletza arautzen dituen hitzarmena; familia harreraren kasuan, harrera eratu duen administrazio ebazpena edo ebazpen judiziala;

- eskatzailea juridikoki ezgaitutako pertsona heldua bada, tutorea izendatu duen ebazpen judiziala.

– Behar denean, egitatezko zaintza daukan pertsonaren Nortasun Agiri Nazionalaren (NAN) edo Atzerritarren Identifikazio Zenbakiaren (AIZ) fotokopia eta zaintza horretan jarduten duelako zinpeko adierazpena (eredu ofiziala 9. eranskinean). Eskatzailea adingabea bada, egitatezko

zaintzaren zinpeko adierazpenarekin batera familia harrera gauzatzeko prozedura (aurreko artikuluko 4.c idatz zatia) hasi dela frogatzen duen dokumentua aurkeztu behar da.

Eskaera ordezkariaren bitartez aurkezten bada, dokumentazioarekin batera ordezkariaren datuen berri emateko inprimakia (8. eranskina) aurkeztu behar da, behar bezala beteta.

Eskaera ez bada aurkezten ordezkariaren bidez, eskatzaileak erreferentziatzeko pertsona bat izendatu ahal izango du jakinarazpenak eta komunikazioak jasotzeko, ez beste ezertarako. Horretarako 8. eranskineko inprimakia bete behar da.

b) Osasun txostena, hauetako batek egina: Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak; gizarte zerbitzuen foru sareko edo udal sareko egoitza zerbitzuetako mediku batek; Estatuko Administrazio Zibileko Funtzionarioen Mutualitateak (MUFACE), Indar Armatuaren Gizarte Institutuak (ISFAS) edo Epailtzako Mutualitate Orokorrak (MUGEJU) beren onuradunentzat hitzartutako osasun zerbitzu batek. Txosten honen eredu ofiziala 6. eranskinean finkatu da. Txosten honetaz gainera dokumentu osagarriak ere aurkez daitezke, hain zuzen ere medikuntzari, psikologiari edo pedagogiari lotutakoak zein bestelakoak.

c) Udalaren errolda ziurtagiria, eskaera aurkezten denean eskatzailea Arabako Lurralde Historikoan errolatuta dagoela frogatzen duena eta Espainian bost urtean errolatuta egon dela ziurtatzen duena (urte horietako bi eskaera egin aurrekoak izan behar dira), autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legeko 5.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorri. Ziurtagiri hori nahitaez aurkeztu beharko da eskatzailea Arabako Lurralde Historikoko udalerrri batean bizi izan bada (salbuespenak: Vitoria-Gasteiz, Audio eta Amurrio) zein Arabako Lurralde Historikotik kanpo bizi izan bada aurrean aipatutako artikuluan aipatzen diren kasuetan (aldiak eta inguruabarrak). Eskatzailea Vitoria-Gasteizen, Audion edo Amurrian bizi izan bada, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak zuzenean erabiliko ditu udal erroldak.

Errolda betekizuna ez zaie eskatuko Arabako Lurralde Historikoko espetxeetan dauden pertsonari, eta ondorioz idatz zati honetan aipatzen den errolda ziurtagiria aurkeztu beharra ere ez, ondoko kasu honetan izan ezik: espetxean sartu aurretik Arabako Lurralde Historikoan errolatuta egon badira.

d) Pertsona atzerritarrek c) idatz zatian aipatzen den errolda ziurtagiriaz gainera beste dokumentu hauek ere aurkeztu behar dituzte, idatz zati horretan ezarritakoarekin bat etorri:

– Atzerritarra Europar Batasuneko estatu batekoa bada, Europar Batasuneko Herritarren Erregistro Ziurtagiria, 39/2006 Legeko 5.1 artikuluan ezarritako aldiari dagokiona (39/2006 Legea, abenduaren 14koa, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoa).

– Atzerritarra Europar Batasuneko estatu batekoa ez bada, bizileku baimena, 39/2006 Legeko 5.1 artikuluan ezarritako aldiari dagokiona (39/2006 Legea, abenduaren 14koa, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoa).

Atzerritarra adingabea bada, ez da beharrezkoa izango aurreko gidoietan aipatutako dokumentuak aurkeztea; nahikoa izango da c) idatz zatian aipatzen den errolda ziurtagiria, 39/2006 Legeko 5.1 artikuluan ezarritako aldiari dagokiona (39/2006 Legea, abenduaren 14koa, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoa).

Atzerritarra 5 urtetik beherakoa bada, errolatuta egon beharreko aldia gurasoei, tutoreei, abegi familiakoei edo egitatezko zaintza daukaten pertsonari eskatutako zaie, kasuan kasukoari.

e) Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak egindako ziurtagiria, eskatzaileak aitortuta daukan baliaezintasun handiaren osagarria egiaztatzen duena, ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuan xedatutakoarekin bat etorri (dekretu horrek Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateratua onartzen du), baldin eta datu hori esanguratsua bada mendekotasun egoera baloratzeko 174/2011 Errege Dekretuko lehenengo

xedapen gehigarriko 1. paragrafoan ezarritakoaren arabera (174/2011 Errege Dekretua, otsailaren 11koa, mendekotasun egoera baloratzeko baremoa onesten duena).

2. Gainera, artikulua honetako 1. paragrafoan aipatzen diren eskaerarekin eta agiriekin batera Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearentzako baimena aurkeztu behar da, hain zuen ere espedientea izapidetzeko behar diren datu pertsonalak biltzeko, erabiltzeko edota transmititzeko baimena, behar bezala sinatuta (eredu ofiziala 12. eranskinean dago). Baimen horren bidez Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak bere kabuz eskuratu ahal izango ditu espedientea bideratzeko behar dituen beste administrazio publikoen datuak eta informazioak. Baimen hori eman ezean, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak eskatzaileari eskatu ahal izango dio berak emateko datu horiek 6. artikuluan ezarri den bezala.

2. atala. Espedientearen instrukzioa.

4. artikulua. Eskaera egiaztatzea eta zuzentzea

1. Eskaera jaso ondoren eskatzailea bizi den udalerriko oinarrizko gizarte zerbitzua (edo Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde, eskatzailearen etxebizitza Vitoria-Gasteizen badago) espedientea izapidetzen hasiko da eta eskaera behar bezala beteta dagoenez egiaztatuko du.

2. Eskaera osorik beteta ez badago edo 3.1 artikuluan aipatzen diren agirietako bat falta bada, eskatzaileari idatziz jakinaraziko zaio akatsak zuzendu behar dituela eta horretarako 10 egun balioduneko epealdia edukiko duela jakinarazpena jasotzen duen egunetik aurrera. Errekerimenduan berariaz azalduko da:

a) Epealdi horretan akatsak zuzentzen ez badira, eskatzaileak eskaeran atzera egin duela pentsatuko da eta hura beste izapiderik gabe artxibatuko da Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak berariazko ebazpena eman ondoren. Nolanahi ere, eskatzaileak beste prozedura bati ekin ahal izango dio.

b) Eskaeran edo berarekin batera aurkeztutako agiriren batean datu faltsurik ematea edo eman beharreko daturen bat faltatzea nahikoa izango da mendekotasun egoera ez onartzeko.

5. artikulua. Mendekotasuna baloratzeko hitzorduaren berri ematea

1. Aurreko artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik eskaera egiaztatu, eta behar denean zuzendu, ondoren oinarrizko gizarte zerbitzuak edo Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak, kasuan kasukoak, idatziz jakinaraziko du zer egunetan eta zer ordutan baloratuko duten mendekotasuna organo eskuduneko teknikariek. Horrez gainera balorazioa non egingo den argituko du, eskatzailearen etxean edo Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Orientazio eta Balorazio Zentroan, foru dekretu honetako 8. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

2. Idazki horretan GOFek berariaz adieraziko du eskatzailea hitzordura (bere etxean zein Orientazio eta Balorazio Zentroan) agertzen ez bada, eskaeran atzera egin duela pentsatuko dela eta hura beste izapiderik gabe artxibatuko dela Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak berariazko ebazpena eman ondoren, ondoko kasuan izan ezik: ezarritako eguna baino lehen agiri baten bidez frogatzen badu egun horretan ezin dela azaldu baloraziora eta hitzordua aldatzeko eskatzen badu edo, hitzordua pasatutakoan, agiri baten bidez frogatzen badu ezin izan duela agertu baloraziora.

6. artikulua. Informazio errekerimenduak

1. Prozeduraren edozein unetan oinarrizko gizarte zerbitzuak zein Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak informazio eta agiri gehiago eskatu ahal izango dizkiote eskatzaileari espedientea ebazteko. Eskatzaileak 10 egun balioduneko epealdia edukiko du eskatutakoa aurkezteko jakinarazpena jasotzen duenetik aurrera.

2. 10 egun balioduneko epealdian eskatzaileak eskatutako guztia aurkezten ez badu, eskaeran atzera egin duela pentsatuko da eta hura beste izapiderik egin gabe artxibatuko da Gizarte

Ongizaterako Foru Erakundeak berariazko ebazpena eman ondoren. Nolanahi ere, eskatzaileak beste prozedura bati ekin ahal izango dio.

3. atala. Mendekotasunaren balorazioa.

7. artikulua. Balora daitezkeen egoerak

1. Otsailaren 11ko 174/2011 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera (horren bidez autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legean ezarritako mendekotasun egoera baloratzeko baremoa onartu da), egoera iraunkorrak soilik baloratu ahal izango dira, hain zuzen ere adinak, gaixotasunak edo ezintasunak eragindakoak eta autonomia fisikoa, mentala, intelektuala edo sentsoriala ez izatea edo galtzea eragiten dutenak.

Aurrekoaren ondorioetarako, egoera iraunkortzat joko da pertsonari erasaten dion patologiararen ondoriozko urritasuna estatikoa bihurtu edo egonkortu, tratamendu medikoarekin zein tratamendu medikorik gabe, eta etorkizunean tratamendua jaso arren probabilitate medikoaren marjinen baitan egoera aldatzeko probabilitaterik ez dagoenean.

2. Aurrekoari jarraiki, ez dira baloratuko behin-behineko edo aldi baterako egoerak. Pertsona hauek daude aldi baterako mendekotasunean:

a) Tratamendu agresiboa behar duten prozesu patologiko graberen bat duten pertsonak, tratamenduak aldi baterako mendekotasuna dakarrenean: balorazioa tratamendua amaitutakoan egin behar da, hain zuzen ere eskatzaileak gehieneko suspertze funtzionala lortutakoan.

b) Ebaketa kirurgiko batetik suspertzen ari diren pertsonak: balorazioa ebaketa egiten denetik gutxienez 6 hilabete pasatu ondoren egin behar da, gehieneko suspertze funtzionala lortutakoan.

c) Errehabilitazioko tratamenduan dauden pertsonak:

— Oro har, balorazioa tratamendua amaitutakoan egin behar da, hain zuzen ere eskatzaileak gehieneko suspertze funtzionala lortutakoan.

— Iraupen luzeko errehabilitazio tratamendua egiten ari diren pertsonen kasuan (traumatismo kranioentzefalikoak, bizkarrezur muineko lesioak, politraumatismoak, gaixotasun mentala...), balorazioa tratamendua hasten denetik gutxienez 6 hilabete pasatutakoan egingo da.

d) Infekzio prozesu akutuengatik ospitaleratutako pertsonak: ezin dira baloratu.

e) Prozesu kronikoa larritzeagatik ospitaleratutako pertsonak: balorazioa ospitalean alta eman ondoren egingo da, eskatzailea klinikoki egonkor dagoela.

f) Ospitalean luzaroan dauden pertsonak:

— Oro har, balorazioa alta eman ondoren egingo da, eskatzailea etxean edo egoitza zentroan dagoela, gehieneko suspertze funtzionala lortutakoan.

— Ospitalean dagoen bitartean, balorazioa ospitaleratu denetik 6 hilabete pasatutakoan egingo da, bidezko arrazoirik badago: ospitalean alta eman aurretik etxean egokitzen egin beharra, ospitalean alta eman ondoren zerbitzu bat jaso beharra edo antzeko beste arrazoiren bat.

Paragrafo honetan ezarritako kasuetan, balorazioa a) - f) idatz zatietan araututako unera arte (salbuespena: d) idatz zatia) ezin egin bada ere, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak une horretara iritsi baino lehen balorazio eskaeraren izapideak hastea onartu ahal izango du; horrelakoetan baloraziorako hitzordua ahalik arinen ipini behar da. Kasu hauetan mendekotasuna baloratzeko izapideen epealdiak baloraziorako hitzordutik aurrera hasiko dira zenbatzen.

3. Aparteko kasuetan, bigarren paragrafoan aipatutako egoeretan dauden adineko pertsonen balorazioa diagnostikoa eman edota tratamendua hasi denetik ondoren azalduko den aldia pasatutakoan egin ahal izango da, arrazoiak azalduz gero:

- b) 2 hilabete, eskatzaileak 80 urte edo gehiago badauzka;
- c) 3 hilabete, eskatzailearen adina 65 - 79 urte artekoa bada.

4. 2. eta 3. paragrafoetan ezarritakoa gorabehera, baldin eta, osasun txostenaren arabera eskatzailearen egoerak egonkorra ez izan arren, egiaztatzen bada mendekotasuna baloratzeko baremoan baloratutako jarduerak egiteko gaitasuna bereziki oztopa dezaketen aurretiko urritasunak daudela, balorazioa ez da atzeratuko eta ezarritako epealdiak aplikatu gabe eta egoera egonkortzeari itxaron gabe egingo da.

Kasu horietan balorazioa behin-behinekoa eta salbuespenezkoa izango da beti.

8. artikulua. Balorazioa non egin

1. Balorazioa ondoko leku hauetan egingo da, 5. artikuluan aipatutako hitzordurako ezarritako egunean:

a) 3 urtetik beherako neska-mutileen balorazioa Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Orientazio eta Balorazio Zentroan egingo da.

b) 3 urteko edo 3 urtetik gorako pertsonen baloraziorako 10. artikuluan aipatutako teknikariak, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak behar bezala akreditatuak, ohiko etxebizitzara joango dira, mendekotasun egoera baloratzeko baremoa onartzen duen otsailaren 11ko 174/2011 Errege Dekretuan ezarri den bezala. Horretarako pertsonaren errolda ziurtagirian ageri den etxebizitza hartuko da ohiko etxebizitzatzat. Hala ere, pertsona eskatzailea egoitza zentro pribatu batean bizi bada behin betiko, egoitza zentro hori ere ohiko etxebizitzatzat hartuko da, bertan erroldatu ez egon arren. Era berean, eta salbuespen gisa, ohiko etxebizitzatzat hartuko da pertsonak aldi baterako bizilekutzat hartu duen egoitza bere etxebizitzan egokitzapen obrak egin behar izateagatik edo behar bezala justifikatutako beste ezinbesteko kausa batzuegatik.

Eskatzailea ez bada agertzen hitzordura (bere etxean zein Orientazio eta Balorazio Zentroan, kasuan kasukoa), eskaera atzera botako da eta beste izapiderik egin gabe artxibatuko da, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak gai horren inguruan emandako ebazpena egin ondoren, ondoko kasu hauetan izan ezik: ezarritako eguna baino lehen agiri bidez frogatzen badu egun horretan ezin duela agertu eta hitzordua beste egun batera aldatzeko eskatzen badu edo, hitzordua pasatutakoan, agiri baten bidez frogatzen badu ezin izan duela agertu baloraziora.

2. Aurreko paragrafoko b) idatz zatian ezarritako mendekotasunaren balorazioa, eskatzailea erroldatuta dagoen etxean egin beharrekoa, egin gabe geratu ahal izango da hura aurreko artikuluan aipatu den bezala luzaroan ospitaleratuta badago, bai eta inguruabarrak direla eta beharrezkoa den guztietan ere, txosten teknikoek horren alde egin eta salbuespena justifikatuz gero.

9. artikulua. Baloraziorako irizpideak

Balorazio irizpide teknikoak dekretu honetan ezarri dira: 174/2011 Errege Dekretua, otsailaren 11koa, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legean ezarritako mendekotasun egoera baloratzeko baremoa (MBB) onartzen duena, baremo orokorrari nahiz hiru urtetik beherako neska-mutilentzako Berariazko Balorazio Eskalari dagokionez.

10. artikulua. Balorazio irizpen teknikoa

1. Balorazioa egiteko eskumena daukan organoak kasu bakoitzean pertsona eskatzailearen egoera baloratzeko beharrezkotzat jotzen dituen azterketak, elkarrizketak eta gainerako probak

egingo ditu eta, lortutako emaitzak oinarritzat hartuta, mendekotasun egoeraren balorazioaren irizpen teknikoa egingo du.

2. Eskatzailea hiru urtekoa edo adin horretatik gorakoa bada, lehenengo paragrafoan aipatutako irizpen teknikoan ondoko datu hauek zehaztu behar dira:

- a) mendekotasun gradua;
- b) erabilitako balorazio eskala;
- c) eguneroko bizitzako jardueretako bakoitzean lortutako puntuazioa eta mendekotasun egoera baloratzeko baremoa (MBB) aplikatu ondoren guztira lortutako puntuazioa;
- d) baloratutako pertsonak eguneroko bizitzako zer jardueretan behar duen laguntza;
- e) nolako laguntza behar den eta maiztasuna;
- f) bere kabuz aritzeko gaitasunaren maila;
- g) bere kabuz moldatzeko arazoak;
- h) indarraldia, behar denean.

Irizpen teknikoarekin batera eranskin bat emango da. Eranskin horretan diagnostikoak, osasun arazoak, ezintasun arazoak eta garrantzitsuak izan daitezkeen gainerako datu guztiak zehaztuko dira.

3. Eskatzailea hiru urtetik beherakoa bada, lehenengo paragrafoan aipatutako irizpen teknikoan ondoko datu hauek zehaztu behar dira:

- a) adina;
- b) diagnostikoa;
- c) garapen gradua; hauek zehaztu behar dira:
 - mugitze jardueraren gradua (mugimendu garapenaren zer patroï bete diren zehaztu behar da);
 - gizarte moldakuntzako jardueraren gradua (zer garapen patroï gainditu diren zehaztu behar da);
 - garapenari buruzko oharrak.
- d) osasun gradua; hauek adierazi behar dira:
 - pisua eta gradua;
 - euskarri neurriak bizi funtzioetan eta beraien gradua;
 - mugikortasun neurriak eta beraien gradua;
 - osasunari buruzko oharrak.
- e) mendekotasunaren gradua (garapen graduaren eta osasun graduaren arteko konbinazioa izango da);
- f) indarraldia.

4. Balorazio irizpen teknikoa balorazioa egiten duen profesionalak eta balorazio organoko pertsona arduradunak sinatuko dute eta balorazio organoa atxikita dagoen arloko zuzendariordetza teknikora bidaliko da.

4. atala. Prozedura amaitzea.

11. artikulua. Ebazpen proposamena

1. Balorazio organoaren balorazio irizpen teknikoa jaso ondoren arlo eskuduneko zuzendariorde eta teknikoak ebazpen proposamena egingo du eta gero Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Zuzendaritza-Kudeatzailetzari aurkeztuko dio.

2. Ebazpen proposamenean ondokoetako bat zehaztu behar da:

a) Balorazioa egin zaion pertsona 9. artikuluan aipatzen den balorazio tresnen arabera mendekotasun ertainean, larrian edo handian dagoela.

b) Balorazioa egin zaion pertsona ez dagoela artikulua honetako a) idatz zatian aipatzen diren mendekotasunetako ezeinetan.

3. Balorazioa egin zaion pertsona mendekotasun ertainean, larrian edo handian badago, proposamenean ondokoak argitu behar dira:

a) Mendekotasun gradua; mendekotasuna I. gradukoa bada, mendekotasun egoera baloratzeko baremoan 40 puntu, gutxiago edo gehiago duen zehaztu behar da. Hau foru dekretu honetako lehen xedapen iragankorrean ezarritakoaren arabera eskubidearen eraginkortasun gehikorraren egutegia indarrean den artean zehaztu behar da.

b) Eskatzaileak I. gradu mendekotasuna aitortuta badauka eta mendekotasun egoera baloratzeko baremoaren (MBB) arabera 40 puntu baino gutxiago badauzka, zehaztu behar da Autonomiaren Aldeko eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemako zerbitzuak edota prestazio ekonomikoak jasotzeko eskubidea aplikatzeko kontuan hartu behar dela foru dekretu honetako 46. artikuluan (lehenengo xedapen iragankorrekin lotuta) ezarritako eskubidearen eraginkortasun gehikorraren egutegia. Hau egutegi hori indarrean dagoen artean zehaztu behar da.

c) Eskatzaileak I. gradu mendekotasuna aitortuta badauka eta mendekotasun egoera baloratzeko baremoaren arabera 40 puntu edo gehiago badauzka, edo II. gradu mendekotasuna edo III. gradukoa, apirilaren 20ko 579/2011 Errege Dekretuak eta otsailaren 11ko 175/2011 Errege Dekretuak aldatutako 727/2007 Errege Dekretuan (727/2007 Errege Dekretua, ekainaren 7koa, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legean ezarritako zerbitzuen babes mailak eta prestazio ekonomikoen zenbatekoak zehazteko irizpideei buruzkoa) ezarritakoaren arabera aitortutako mendekotasun graduari dagozkion zerbitzu eta prestazio ekonomikoetatik egokienak zein diren zehaztu behar da. Eskatzaileak hauetako bat egin behar du:

– Vitoria-Gasteizen bizi bada, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundera joan behar da ezarritako hitzorduan erreferentziak profesionalarekin biltzera banakako arreta programa prestatzeko; hitzorduaren data eta lekua ebazpenean bertan adieraziko dira.

– Vitoria-Gasteizen bizi ez bada, harremanetan jarri behar da bere etxebizitzari dagokion oinarritzko gizarte zerbitzuko gizarte langilearekin banakako arreta programa egiteko hitzordua zehazteko.

d) Balorazioa noiz hasiko den ondorioak sortzen.

e) Mendekotasun egoera behin-behinekoa edo behin betikoa den.

f) Indarraldia, behar denean.

4. Balorazioa egin zaion ez badago pertsona mendekotasun ertainean, ez larrian, ez handian, proposamenean ondokoak argitu behar dira:

a) Mendekotasun egoera baloratzeko baremoan (MBB) lortutako puntuazioa edo Bera-riazko Balorazio Eskala aplikatuta lortutako emaitza. Puntuazio horrekin mendekotasun egoera aitortzerik ez dagoela azaldu behar da.

b) Argitu behar da aurrekoaren ondorioz eskatzaileak ezin dituela jaso Autonomiaren Aldeko eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemako zerbitzuak eta prestazioak.

12. artikulua. Ebazpena

1. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Zuzendaritza-Kudeatzaileak dauka mendekotasun egoera aitortzeko eskaerak ebazteko eskumena.

2. Eskaera oinarrizko gizarte zerbitzuan edo Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen (2. artikuluan eskaerak aurkezteko lekuez ezarritakoarekin bat etorritik) jasotzen denetik bi hilabete eta erdi pasatu baino lehen ebazpena eman behar da eta interesdunari jakinarazi behar zaio. Epealdi horretarako ez da kontuan hartuko eskatzaileari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik espedientearen geldituta dagoen denbora. Izapidetan horrela gertatzen diren atzerapenak idatziz azaldu behar dira.

3. Ebazpenean arrazoiak agertu behar dira, eta artikulua honetako 4. edo 5. paragrafoan aipatzen diren datuak zehaztu behar dira (kasuan kasukoak).

4. Ebazpenak mendekotasun ertaina, larria edo handia aitortzen bada, ondoko hauek zehaztu behar dira:

a) Mendekotasun gradua; mendekotasuna I. gradukoa bada, mendekotasun egoera baloratzeko baremoaren arabera 40 puntu, gutxiago edo gehiago duen zehaztu behar da. Hau foru dekretu honetako 46. artikuluan ezarritakoaren arabera eskubidearen eraginkortasun gehikorraren egutegia indarrean den artean zehaztu behar da.

b) Eskatzaileak I. graduko mendekotasuna aitortuta badauka eta mendekotasun egoera baloratzeko baremoaren arabera 40 puntu baino gutxiago badauzka, zehaztu behar da Autonomiaren Aldeko eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemako zerbitzuak edota prestazio ekonomikoak jasotzeko eskubidea aplikatzeko kontuan hartu behar dela foru dekretu honetako 46. artikuluan (lehenengo xedapen iragankorarekin lotuta) ezarritako eskubidearen eraginkortasun gehikorraren egutegia. Hau egutegi hori indarrean dagoen artean zehaztu behar da.

c) Eskatzaileak I. graduko mendekotasuna aitortuta badauka eta mendekotasun egoera baloratzeko baremoaren arabera 40 puntu edo gehiago badauzka, edo II. graduko mendekotasuna edo III. gradukoa, apirilaren 20ko 579/2011 Errege Dekretuak eta otsailaren 11ko 175/2011 Errege Dekretuak aldatutako 727/2007 Errege Dekretuan (727/2007 Errege Dekretua, ekainaren 7koa, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legean ezarritako zerbitzuen babes mailak eta prestazio ekonomikoen zenbatekoak zehazteko irizpideei buruzkoa) ezarritakoaren arabera aitortutako mendekotasun graduari dagozkion zerbitzu eta prestazio ekonomikoetatik egokienak zein diren zehaztu behar da. Eskatzaileak hauetako bat egin behar du:

– Vitoria-Gasteizen bizi bada, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundera joan ezarritako hitzorduan erreferentziazko profesionalarekin biltzera banakako arreta programa prestatzeko; hitzorduaren data eta lekua ebazpenean bertan adieraziko dira.

– Vitoria-Gasteizen bizi ez bada, harremanetan jarri behar da bere etxebizitzari dagokion oinarrizko gizarte zerbitzuko gizarte langilearekin banakako arreta programa egiteko hitzordua zehazteko.

d) Balorazioa noiz hasiko den ondorioak sortzen.

e) Mendekotasun egoera behin-behinekoa edo behin betikoa den.

f) Indarraldia, behin behinekoa izanez gero.

g) Ondoko kasuetan adieraziko da eskaera atzera botako dela eta espedientearen artxibatuko dela Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen gai horren inguruan ebazpena egin ondoren:

– Vitoria-Gasteizen bizi bada, ebazpenean adierazitako hitzordura aurkezten ez bada.

– Vitoria-Gasteizen bizi ez bada, banakako arreta programa egiteko hitzordua eskatzen ez badu edo hitzordua eskatu arren hitzordura aurkezten ez bada.

Idatz zati honetan ezarritakoa ezin izango da aplikatu eskatzaileak ezarritako eguna baino lehen agiri baten bidez frogatzen badu egun horretan ezin duela agertu eta hitzordua beste egun batera aldatzeko eskatzen badu edo, hitzordua pasatutakoan, agiri baten bidez frogatzen badu ezin izan duela agertu baloraziora.

h) Adieraziko da mendekotasun egoeraren aitortpenak berekin dakarrela eskatzaileak (eta behar den kasuetan bai eta beraren legezko ordezkariak edo egitatezko zaintza daukanak ere) Gizarte Ongizaterako Foru Aldundiari jakinarazi behar izatea aitorpenean eragina izan dezakeen edozein aldaketa gertatzen denetik hamabost egun natural pasatu baino lehen.

5. Ebazpenak ez badu aitortzen mendekotasunik (ez ertainik, ez larririk, ez handirik):

a) Mendekotasun egoera baloratzeko baremoaren arabera edo Berariazko Balorazio Eskala aplikatuta arabera lortutako puntuazioa. Puntuazio horrekin mendekotasun egoera aitortzerik ez dagoela azaldu behar da.

b) Argitu behar da aurrekoaren ondorioz eskatzaileak ezin dituela jaso Autonomiaren Aldeko eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemako zerbitzuak eta prestazio ekonomikoak.

6. Mendekotasun egoera aitortzen duen ebazpenak eskaeraren datatik aurrera sortuko ditu ondorioak; honek ez du eragozten mendekotasun graduaren berrikuspenen ondorioez ezarritakoa, ez eta hurrengo artikuluan behin behineko azterketei lotutako berrikuspenen ondorioez ezarritakoa ere.

13. artikulua. Mendekotasun graduaren berrikuspena

1. Berrikuspenak ofizioz egin ahal izango dira noiznahi, arrazoi teknikoengatik beharrezkotzat joz gero.

2. Eskatzailea 18 urtetik beherakoa bada, mendekotasun graduaren berrikuspenerako ondoko epealdi hauek errespetatu behar dira, lehenengo paragrafoan ezarritakoa eragotzi gabe:

a) Eskatzailea hiru urtetik beherakoa bada, hiru urtetik beherako pertsonentzako berariazko balorazio eskala (BBE) aplikatu behar da balorazioa egiteko, eta hau ez da behin betikoa izango: ofiziozko berrikuspenak egin behar dira 6, 12, 18, 24 eta 30 hilabete pasatutakoan, eta 36 hilabete pasatutakoan beste ebaluazio bat egin behar da hiru urtetik gorako pertsonentzako mendekotasun egoera baloratzeko baremoa (MBB) aplikatuz.

b) Eskatzailea 3 - 18 urte bitartekoa bada, mendekotasun gradua ofizioz berrikusi ahal izango da egoera baloratzeko baremoaren aplikazioarekin lotutako aplikazio taula kronologikoan bereizitako aldi bakoitzaren hasieran, edo bestela aldi bakoitzaren erdira iritsitakoan, aurreko berrikuspenetik urtebete pasatu ez bada.

3. Eskatzailea 18 urtekoa edo adin horretatik gorakoa bada, mendekotasun gradua aitortu ondoren ezin izango da eskatu beste baloraziorik mendekotasuna aitortzen duen ebazpena eman denetik bi urte pasatu arte.

Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legeko 30. artikulua arabera berrikuspenaren eskaera arrazoi hauetako batengatik egiten bada, paragrafo honetan ezarritako epealdia ezin izango da aplikatu:

a) Mendekotasunak hobera edo okerrera egitea, baldin eta eragilea Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak, gizarte zerbitzuen foru sareko edo udal sareko egoitza zerbitzuetako mediku batek edo Estatuko Administrazio Zibileko Funtzionarioen Mutualitateak (MUFACE), Indar Armatuen Gizarte Institutuak (ISFAS) edo Epailetzako Mutualitate Orokorrak (MUGEJU) beren

onuradunentzat hitzartutako osasun zerbitzu batek egindako txosten medikoaren bidez egiaztatutako gertaera bat bada.

b) Diagnostiko okerra, baldin eta Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak, gizarte zerbitzuen foru sareko edo udal sareko egoitza zerbitzuetako mediku batek edo Estatuko Administrazio Zibileko Funtzionarioen Mutualitateak (MUFACE), Indar Armatuaren Gizarte Institutuak (ISFAS) edo Epailtzako Mutualitate Orokorrek (MUGEJU) beren onuradunentzat hitzartutako osasun zerbitzu batek egindako txosten medikoaren bidez egiaztatzen bada.

c) Bidezko baremoaren aplikazioan errorea gertatu izana. Ustezko errorea azaldu behar da.

Honelako kasuetan mendekotasun gradua noiznahi berrikusi ahal izango da interesdunak, honen ordezkariak edo zaintza daukan pertsonak eskatuta (foru dekretu honetako 2.4 artikuluan azaldu da nortzuek aurkez ditzaketan eskaerak).

4. Artikulu honetako aurreko paragrafoetan araututako mendekotasun graduaren berrikuspena foru dekretu honetako 12.2 artikuluan hasierako baloraziorako ezarritako epealdian egin behar da; berrikuspen bakoitzak berari buruzko ebazpena ematen den egunetik aurrera sortuko ditu ondorioak.

5. Mendekotasunaren aitortpena behin-behinekoa izanez gero, aitortpenaren ebazpenean ezarritako epealdian soilik sortuko ditu ondorioak, artikulu honetako 5 b) paragrafoko bigarren gidoian ezarritakoa gorabehera. Mendekotasunean dagoenak bere eskubideak gozaten jarraitu ahal izateko, egoera aldatu ezean, berak edo beraren ordezkariak behin-behineko mendekotasunaren aitortpenaren indarraldia amaitu baino hiru hilabete lehenago ekin behar dio prozedurari, eta horretarako foru dekretu honetako 3.1.b) artikuluan adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharko du, behar bezala eguneratuta. Salbuespena: mendekotasunean dagoena 18 urtetik beherakoa denean, berrikuspena ofizioz egingo da artikulu honetako bigarren paragrafoa a) eta b) idatz zatietan aipatutako adinetara heldutakoan.

Idatz zati honetan aipatzen diren kasuetan, hau da, mendekotasuna behin-behinean aitortzen denean, ondokoak gerta daitezke:

a) Balorazio berria aurreko aitortpenaren indarraldia amaitu baino lehen egiten bada, baloratutako pertsona ezarritako hitzordura aurkeztu delako edo hitzordua aldatzeko eskatu duelako, arrazoiak azalduta, ebazpenak aurreko aitortpenaren indarraldia amaitzen den egunaren hurrengo egunetik aurrera sortuko ditu ondorioak, ebazpena egun hori baino lehen edo ondoren egitea gorabehera.

b) Balorazio berria aurreko aitortpenaren indarraldia amaitu ondoren egiten bada, pertsonak ezin izan duelako hitzordura aurkeztu dokumentuen bidez egiaztatutako arrazoi batengatik edo Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari egotz dakizkiokeen atzerapenak direla eta:

– Aitortpen berriak berekin badakar prestazio ekonomikoa jasotzeko eskubidea, atzeraeraginezko ondorioak sortuko ditu aurreko aitortpenaren indarraldia amaitu eta hurrengo egunetik aurrera.

– Behin-behineko aitortpen berriaren onuradunak zerbitzu bat jasotzen izan badu, hark ebazpena ematen denetik aurrera sortuko ditu ondorioak eta onuradunak zerbitzua jaso ahal izango du horretarako eskubidea azkentzen edo berresten duen ebazpena eman arte.

c) Balorazio berria aurreko aitortpenaren indarraldia amaitu ondoren egiten bada, pertsona ez delako hitzordura aurkeztu justifikatu gabeko edo agiri bidez frogatu gabeko arrazoi batenatik, aitortpen berriak balorazio berriaren ebazpena ematen den egunetik aurrera sortuko ditu ondorioak.

II. KAPITULUA. EZINTASUN GRADUA AITORTZEKO, DEKLARATZEKO ETA KALIFIKATZEKO PROZEDURA

1. atala. Prozedura hastea.

14. artikulua. Eskaerak aurkeztea

1. Ezintasun gradua aitortzeko, deklaratzeko eta kalifikatzeko prozedura pertsona interesdu-nak Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Zuzendaritza-Kudeatzailetzari eskaera aurkeztu ondoren hasiko da.

2. Eskaerak leku hauetan aurkeztu ahal izango dira:

a) Eskatzailearen ohiko etxebizitza Vitoria-Gasteizen badago, Informazio eta Gizarte Arre-tarako Bulegoan edo Orientazio eta Balorazio Zentroan. Biak ere Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari atxikita daude.

b) Eskatzailearen ohiko etxebizitza ez badago Vitoria-Gasteizen, etxebizitza dagoen udalerriko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuan.

Aurrekoa gorabehera, eskaerak aurkezteko Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 38. artikuluko gai-nerako prozedurak ere erabili ahal izango dira (lege hori urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu zuen).

3. Eskaerak foru dekretu honen 2. eranskineko eredu ofizialean egin behar dira, eta bertako argibideen arabera.

4. Ondoko hauek aurkez dezakete eskaera:

a) Ezintasun gradua aitortzeko eskatzen duenak berak zuzenean.

b) a) idatz zatiko kasuetan, eskatzailearen legezko ordezkariak daukan pertsonak.

c) a) idatz zatian aipatutako pertsonaren egitatezko zaintza daukan pertsonak; eskatzailea adingabea izanez gero, egitatezko zaintza daukan pertsonak eskaera aurkezteko ezinbestekoa izango da aurretik familia harrera formalizatzeke prozedura hasita egotea, bai eta familia har-rrera eraginkortasunez gauzatu arte prozedurarekin aurrera egin beharra bere gain hartzea ere.

15. artikulua. Dokumentazioa

1. Aurreko artikuluan aipatutako eskaerarekin batera dokumentu hauek aurkeztu behar dira:

a) Nortasuna egiaztatzeke dokumentuak:

– Ezinbestean, ezintasun gradua aitortzeko eskatzen duen pertsonaren Nortasun Agiri Na-zionalaren (NAN) edo Atzerritarren Identifikazio Zenbakiaren (AIZ) fotokopia edo, horrelakorik eduki ezean, indarrean dagoen legeriaren arabera nortasuna egiaztatzen duen beste edozein dokumentu ofizialen fotokopia, eskaera interesdunak zuzenean aurkezten duenean zein legezko ordezkariaren edo egitatezko zaintza daukanaren bidez aurkezten duenean.

– Behar denean, legezko ordezkari gisa aritzen den pertsonaren Nortasun Agiri Naziona-laren (NAN) edo Atzerritarren Identifikazio Zenbakiaren (AIZ) fotokopia eta ordezkariaren egiaztatzea:

- eskatzailea adingabea bada, familia liburua; gurasoak bananduta edo dibortziatuta ba-daude, zaintza eta jagoletza arautzen dituen hitzarmena; familia harreraren kasuan, harrera eratu duen administrazio ebazpena edo ebazpen judiziala;

- eskatzailea juridikoki ezgaitutako pertsona heldua bada, tutorea izendatu duen ebazpen judiziala.

– Behar denean, egitatezko zaintza daukan pertsonaren Nortasun Agiri Nazionalaren (NAN) edo Atzerritarren Identifikazio Zenbakiaren (AIZ) fotokopia eta zaintza horretan jarduten duelako zinpeko adierazpena (eredu ofiziala 9. eranskinean). Eskatzailea adingabea bada, egitatezko zaintzaren zinpeko adierazpenarekin batera familia harrera gauzatzeko prozedura (aurreko artikuluko 4.c idatz zatia) hasi dela frogatzen duen dokumentua aurkeztu behar da.

Eskaera ordezkariaren bitartez aurkezten bada, dokumentazioarekin batera ordezkariaren datuen berri emateko inprimakia (8. eranskina) aurkeztu behar da, behar bezala beteta.

Eskaera ez bada aurkezten ordezkariaren bidez, eskatzaileak erreferentziatzeko pertsona bat izendatu ahal izango du jakinarazpenak eta komunikazioak jasotzeko, ez beste ezertarako. Horretarako 8. eranskineko inprimakia bete behar da.

b) Udalaren errolda ziurtagiria, eskaera aurkezten denean eskatzailea non egon den erroldatuta azaltzen duena (Arabako Lurralde Historikoko udalerrri batean -Vitoria-Gasteiz, Laudio eta Amurrio ez beste guztiak) zein Arabako Lurralde Historikotik kanpo). Eskatzailea Vitoria-Gasteizen, Laudion edo Amurrion bizi izan bada, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak zuzenean erabiliko ditu udal erroldak.

Betekizun hau ez zaie aplikatuko ondoko hauei:

– Atzerrian bizi diren espainiarrei; hauek Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari eskatu ahal izango diote ezintasunaren kalifikazioa, baldin eta frogatzen badute Espainian eduki duten azken ohiko etxebizitza Arabako Lurralde Historikokoan egon dela, ezintasun gradua aitortzeko, deklaratzeko eta kalifikatzeko prozedurari buruzko abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuko 7.2 artikuluan ezarritakoa aplikatuta.

– Arabako Lurralde Historikoko espetxeetan dauden pertsoneri, espetxean sartu aurretik Arabako Lurralde Historikokoan erroldatuta egon ez badira.

c) Pertsona atzerritarrek b) idatz zatian aipatzen den errolda ziurtagiriaz gainera beste dokumentu hauek ere aurkeztu behar dituzte, idatz zati horretan ezarritakoarekin bat etorriz:

– Atzerritarra Europar Batasuneko estatu batekoa bada, Europar Batasuneko Herritarren Erregistro Ziurtagiria.

– Atzerritarra Europar Batasuneko estatu batekoa ez bada, bizileku baimena.

Idatz zati honetan ezarritakoa ez zaie aplikatuko atzerritar adingabeei.

d) Txosten medikoak edota psikologikoak, pertsonaren egoera egiatzatzen dutenak eta ezintasuna kalifikatzeko eskaeraren alde egiten dutenak, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak, gizarte zerbitzuen foru sareko egoitza zerbitzuetako medikuek edo Estatuko Administrazio Zibileko Funtzionarioen Mutualitateak (MUFACE), Indar Armatuen Gizarte Institutuak (ISFAS) edo Epailetzako Mutualitate Orokorrak (MUGEJU) beren onuradunentzat hitzartutako osasun zerbitzuek emandakoak. Hala ere, beste agiri mediko, psikologiko eta pedagogiko batzuk eta bestelako agiri osagarriak ere aurkeztu ahal izango dira.

3. Gainera, artikuluko honetako 1. paragrafoan aipatzen diren eskaerarekin eta agiriekin batera Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearentzako baimena aurkeztu behar da, hain zuen ere espedientea izapidetzeko behar diren datu pertsonalak biltzeko, erabiltzeko edota transmititzeko baimena, behar bezala sinatuta (eredu ofiziala 12. eranskinean dago). Baimen horren bidez Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak bere kabuz eskuratu ahal izango ditu espedientea bideratzeko behar dituen beste administrazio publikoen datuak eta informazioak. Baimen hori eman ezean, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak eskatzaileari eskatu ahal izango dio berak emateko datu horiek 18. artikuluan ezarri den bezala.

2. atala. Espedientearen instrukzioa.

16. artikulua. Eskaera egiaztatzea eta zuzentzea

1. Eskaera jaso ondoren eskatzailea bizi den udalerriko oinarrizko gizarte zerbitzua (edo Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea, kasuan kasukoa) espedientea izapidetzen hasiko da eta eskaera behar bezala beteta dagoenez egiaztatuko du.

2. Eskaera osorik beteta ez badago edo foru dekretu honetako 15.1 artikuluan aipatzen diren agirietako bat falta bada, eskatzaileari idatziz jakinaraziko zaio akatsak zuzendu behar dituela eta horretarako 10 egun balioduneko epealdia edukiko duela idatzizko jakinarazpena jasotzen duen egunetik aurrera. Errekerimenduan berariaz azalduko da:

a) Epealdi horretan akatsak zuzentzen ez badira, eskatzaileak eskaeran atzera egin duela pentsatuko da eta hura beste izapiderik gabe artxibatuko da Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak berariazko ebazpena eman ondoren. Nolanahi ere, eskatzaileak beste prozedura bati ekin ahal izango dio.

b) Eskaeran edo berarekin batera aurkeztutako agiriren batean datu faltsurik ematea edo eman beharreko daturen bat faltatzea nahikoa izango da ezintasun gradua ez aitortzeko.

17. artikulua. Ezintasuna baloratzeko hitzorduaren berri ematea

1. Aurreko artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik eskaera egiaztatu, eta behar denean zuzendu, ondoren oinarrizko gizarte zerbitzuak edo Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak, kasuan kasukoak, idatziz jakinaraziko du zer egunetan eta zer ordutan joan behar den eskatzailea Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Orientazio eta Balorazio Zentrora ezintasuna baloratzera.

2. Idazki horretan GOFek berariaz adieraziko du eskatzailea Orientazio eta Balorazio Zentrora agertzen ez bada ezarritako hitzorduan, eskaeran atzera egin duela pentsatuko dela eta hura beste izapiderik gabe artxibatuko dela Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak berariazko ebazpena eman ondoren, ondoko kasuan izan ezik: ezarritako eguna baino lehen agiri baten bidez frogatzen badu egun horretan ezin dela azaldu baloraziora eta hitzordua aldatzeko eskatzen badu edo, hitzordua pasatutakoan, agiri baten bidez frogatzen badu ezin izan duela agertu baloraziora.

18. artikulua. Informazio errekerimenduak

1. Prozeduraren edozein unetan Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Orientazio eta Balorazio Zentroak informazio eta agiri gehiago eskatu ahal izango dizkio eskatzaileari espedientearen ebazteko. Eskatzaileak 10 egun balioduneko epealdia edukiko du eskatutakoa aurkezteko jakinarazpena jasotzen duenetik aurrera.

2. 10 egun balioduneko epealdian eskatzaileak eskatutako guztia aurkezten ez badu, eskaeran atzera egin duela pentsatuko da eta hura beste izapiderik egin gabe artxibatuko da Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak berariazko ebazpena eman ondoren.

Hala ere, aurkezten ez den dokumentazio osagarria ezintasuna kalifikatzeko eskaeraren oinarri izan behar diren txosten medikoak edota psikologikoak badira, ez da pentsatuko eskatzaileak eskaera atzera egin duela. Horrelako kasuetan ezintasunaren balorazioa eskuragarri dagoen informazioa oinarriztat hartuta egingo da. Nolanahi ere, horrela zehaztutako ezintasun gradua foru dekretu honetako 24. artikuluan ezarri den bezala berrikusi ahal izango da, pertsona eskatzaileak informazio osagarria aurkeztuz gero.

3. atala. Ezintasunaren balorazioa.

19. artikulua. Balorazioa non egin

Hitzorduan ezarritako egunean eskatzailea Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Orientazio eta Balorazio Zentrora joan behar da organo eskudunak balorazioa egiteko.

20. artikulua. Baloraziorako irizpideak

1. Ondoko hauek dira ezintasunaren baloraziorako irizpide teknikoak: ezintasun gradua aitortzeko, deklaratzeko eta kalifikatzeko prozedura finkatu duen abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuan ageri direnak (dekretu hau 1856/2009 Errege Dekretuak eta 1364/2012 Errege Dekretuak aldatu dute), batez ere I. eranskineko A) idatz zatiko baremoak, hain zuzen ere organoetan, aparatuetan edo sistemetan dauden urritasun iraunkorrek sortutako ezintasuna zehazteko jarraibideak ezartzen dituztenak (baremo hauek aplikatzen dira ezintasuna ehunekoa adierazita baloratzeko).

2. Ezintasun gradua honela zehaztuko da: ezintasunaren balorazioa adierazten duen ehunekoari, aurreko paragrafoan azaldu den bezala kalkulaturakoari, I. eranskineko B) idatz zatiko gizarte faktore osagarrien baremoa aplikatuz lortutako puntuazioa gehituko zaio. Baremo horretan hainbat faktore biltzen dira, besteak beste, familia ingurunea, lan egoera eta egoera profesionala, hezkuntza mailak eta kultura mailak, ezintasuna duen pertsonaren ohiko beste egoera batzuk eta pertsonaren gizarteratzea oztopatzen duten gainerako ingurune elementu guztiak.

Gizarte faktore osagarri horiek administrazio eskudunek dokumentuen bidez behar bezala frogatuz gero baloratuko dira, eta pertsona eskatzaileak edo beraren ordezkariak onartzen badu faktoreok aintzat hartzea ezintasun gradua aitortzeko, deklaratzeko eta kalifikatzeko.

21. artikulua. Balorazio irizpen teknikoa

1. Balorazioa egiteko eskumena daukan organoak kasu bakoitzean pertsona eskatzailearen egoera baloratzeko beharrezkotzat jotzen dituen azterketak, elkarrizketak eta gainerako probak egingo ditu eta horien emaitzak oinarritzat hartuta balorazioaren irizpen teknikoa egingo du; irizpenean ondokoak zehaztu behar dira:

- a) Ezintasuna.
- b) Diagnostikoa.
- c) Etiologia.
- d) Ezintasuna eragiten duten prozesu bakoitzak nolako eragozpenak (gradua) sortzen dituen.
- e) Gizarte faktore osagarriak, egonez gero.
- f) Ezintasunaren gradua, guztira.
- g) Garraio kolektibo publikoetan mugitzeko eragozpenen ebaluazioaren emaitza.
- h) Kalifikazioa behin-behinekoa edo behin betikoa den.
- i) Kalifikazioa behin-behinekoa bada, indarraldia.

2. Irizpena baloraziorako eskumena daukan organoko arduradunak eta ezintasuna duten pertsonen arretaren esparruko eskumena daukan arloko zuzendariordetza teknikoak sinatuko dute.

4. atala. Prozedura amaitzea.

22. artikulua. Ebazpen proposamena

1. Aurreko artikuluan aipatutako balorazio irizpen teknikoa oinarritzat hartuta, ezintasuna duten pertsonen arretaren esparruko eskumena daukan arloko zuzendariordetza teknikoak ebazpen proposamena egingo du eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Zuzendaritza-Kudeatzaitzari aurkeztuko dio.

2. Ebazpen proposamenean ezintasun gradua zehaztu behar da, ehunekoan adierazita, balorazio irizpen teknikoa oinarritzat hartuta. Irizpena ebazpenari erantsi behar zaio.

23. artikulua. Ebazpena

1. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Zuzendaritza-Kudeatzaileak dauka ezintasun gradua aitortzeko eskaerak ebazteko eskumena; ebazpenak berariazkoak izan behar dira.

2. Ebazpena emateko eta eskatzaileari jakinarazteko epealdia 3 hilekoa izango da eskaera oinarrizko gizarte zerbitzuan edo Gizarte Ongizaterako Foru Erakundean jasotzen den egunetik aurrera. Epealdi horretarako ez da kontuan hartuko eskatzaileari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik espedientea geldituta dagoen denbora. Izapideetan horrela gertatzen diren atzerapenak idatziz azaldu behar dira.

Ebazpenari 21. artikuluan aipatutako balorazio irizpen teknikoa erantsi behar zaio.

3. Ebazpenean ondokoak zehaztu behar dira:

a) ezintasun gradua;

b) mugitzeko eragozpenen eta garraio kolektibo publikoetan ibiltzeko laguntza beharizanen ebaluazioaren emaitza;

c) kalifikazioa behin-behinekoa edo behin betikoa den;

d) kalifikazioa behin-behinekoa bada, indarraldia;

e) noiz hasiko den ondorioak sortzen.

Datu horiez gainera hau ere adieraziko da: eskatzaileak ezintasunaren kalifikazioak berekin dakartzan eskubideei buruzko informazioa nahi izanez gero, oinarrizko gizarte zerbitzuan edo Informazio eta Gizarte Arretarako Bulegoan eskatu dezakeela, kasuan kasukoa, eta gizarte zerbitzuen sareko zerbitzuren bat erabili nahi izatera, hitzordua eskatu behar diola batari edo besteari.

Halaber, adieraziko da ezintasun graduaren kalifikazioak berekin dakarrela eskatzaileak (eta behar den kasuetan bai eta beraren legezko ordezkariak edo egitatezko zaintza daukanak ere) Gizarte Ongizaterako Foru Aldundiari jakinarazi behar izatea kalifikazioan eragina izan dezakeen edozein aldaketa gertatzen denetik 15 egun natural pasatu baino lehen.

4. Ezintasun gradua aitortzen eta kalifikatzen duen ebazpenak eskaeraren datatik aurrera sortuko ditu ondorioak; honek ez du eragozten ezintasun graduaren berrikuspenen ondorioez ezarritakoa, ez eta hurrengo artikuluan behin behineko kalifikazioei lotutako berrikuspenen ondorioez ezarritakoa ere.

24. artikulua. Ezintasun graduaren berrikuspena

1. Berrikuspenak ofizioz egin ahal izango dira noiznahi, arrazoi teknikoengatik beharrezkotzat joz gero.

2. Pertsona baten ezintasun gradua aitortu ondoren ezin izango da eskatu beste baloraziorik ezintasuna aitortzen duen ebazpena eman denetik bi urte pasatu arte.

3. 2. paragrafoan ezarritako epealdia ezin izango da aplikatu berrikuspenaren eskaera ondoko arrazoi hauetako batengatik aurkezten bada:

a) Ezintasunak hobera edo okerrera egitea, baldin eta eragilea Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak, gizarte zerbitzuen foru sareko egoitza zerbitzuetako mediku batek edo Estatuko Administrazio Zibileko Funtzionarioen Mutualitateak (MUFACE), Indar Armatuen Gizarte Institutuak (ISFAS) edo Epaitetzako Mutualitate Orokorrek (MUGEJU) beren onuradunentzat hitzartutako osasun zerbitzu batek egindako txosten medikoaren bidez egiaztatutako gertaera bat bada.

b) Diagnostiko okerra, baldin eta Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak, gizarte zerbitzuen foru sareko egoitza zerbitzuetako mediku batek edo Estatuko Administrazio Zibileko Funtzionarioen Mutualitateak (MUFACE), Indar Armatuen Gizarte Institutuak (ISFAS) edo

Epailtzako Mutualitate Orokorrak (MUGEJU) beren onuradunentzat hitzartutako osasun zerbitzu batek egindako txosten medikoaren bidez egiaztatzen bada.

c) 20. artikuluan aipatutako baremoaren aplikazioan errorea gertatu izana. Ustezko errorea azaldu behar da.

Honelako kasuetan ezintasun gradua noiznahi berrikusi ahal izango da interesdunak, beraren ordezkariak edo zaintza daukan pertsonak eskatuta.

4. Ezintasun gradua berrikusten denean bi gauza berrikusi daitezke: ezintasunaren balorazio osoa, 21. artikuluan azaldu dena, edo mugikortasun arazorik dagoen eta garraio publiko kolektiboetan laguntza behar den.

5. Artikulu honetako 1., 2., 3. eta 4. paragrafoetan araututako ezintasun graduaren berrikuspenera foru dekretu honetako 23.2 artikuluan ezintasun graduaren aitortzearen epealdian egin behar da; berrikuspenera bakoitzak berari buruzko ebazpena ematen den egunetik aurrera sortuko ditu ondorioak.

6. Ezintasun graduaren aitortzearen behin-behinekoa izanez gero, aitortzearen ebazpenaren epealdian soilik sortuko ditu ondorioak. Honelako kasuetan, ezintasuna daukanak bere eskubideak gozatzeko jarraitu ahal izateko, egoera aldatu ezean, berak edo beraren ordezkariak ezintasunaren aitortzearen behin-behineko aitortzearen indarraldia amaitu baino hiru hilabete lehenago ekin behar dio prozedurari, eta horretarako foru dekretu honetako 15.1.d) artikuluan adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharko du, behar bezala eguneratuta.

Ondoko kasu hauek gerta daitezke:

a) Balorazio berria aurreko aitortzearen indarraldia amaitu baino lehen egiten bada, balorazioaren pertsona ezarritako hitzordura aurkeztu delako edo hitzordua aldatzeko eskatu duelako, arrazoiak azalduta, ebazpenak aurreko aitortzearen indarraldia amaitzen den egunaren hurrengo egunetik aurrera sortuko ditu ondorioak, ebazpena egun hori baino lehen edo ondoren egitea gorabehera.

b) Balorazio berria aurreko aitortzearen indarraldia amaitu ondoren egiten bada, pertsonak ezin izan duelako hitzordura aurkeztu dokumentuen bidez egiaztatutako arrazoi batengatik edo Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari egotz dakizkiokeen atzerapenak direla eta, aitortze berriak atzeraginezko ondorioak sortuko ditu aurreko aitortzearen indarraldia amaitu eta hurrengo egunetik aurrera.

c) Balorazio berria aurreko aitortzearen indarraldia amaitu ondoren egiten bada, pertsona ez delako hitzordura aurkeztu justifikatu gabeko edo agiri bidez frogatu gabeko arrazoi batengatik, aitortze berriak balorazio berriaren ebazpena ematen den egunetik aurrera sortuko ditu ondorioak.

5. atala. Ezintasuna egiaztatzen duen txartela.

25. artikulua. Txartelaren xedea

Arabako Lurralde Historikoan bizi den pertsona bati ehuneko 33ko edo hortik gorako ezintasun gradua aitortzen bazaio kapitulu honetako aurreko ataletan araututako prozeduraren bidez, ezintasuna egiaztatzen duen txartela eduki ahal izango du, baldin eta Nortasun Agiri Nazionala (NAN) edo Atzerritarren Identifikazio Zenbakia (AIZ) badauka. Txartel horren xedea titularrak ezintasun bat daukalako fede ematea, organo eskudunak ezintasun graduari buruzko emandako ebazpena gorabehera.

26. artikulua. Txartela nola erabili

Ezintasun gradua egiaztatzen duen txartela honela erabili behar da:

a) Dokumentu pertsonala da, eta besterenezina; titularrak ezintasun gradu bat aitortuta daukala egiaztatzen du.

b) Nortasun agiriarekin batera aurkeztu behar da beti (Nortasun Agiri Nazionala, NAN, edo Atzerritarren Identifikazio Zenbakia, AIZ) txartelaren titularrari ezintasunaren kalifikazioak berekin dakartzan eskubideak bermatzeko.

27. artikulua. Txartela emateko eta berriz emateko prozedura

1. Ezintasun gradua egiaztatzen duen txartela ofizioz emango zaie kapitulu honetako aurreko ataletan araututako prozeduraren arabera ehuneko 33ko ezintasun gradua edo handiagoa aitortuta duten pertsonari.

2. Ebazpen administratibo edo judizial baten ondorioz txartelaren titularrari aitortutako ezintasun gradua aldatzen bada eta aitortutako ezintasun gradu berria ehuneko 33tik beherakoa bada, txartelaren titularrak txartela itzuli beharko du baliogabetzeko errekerimendua jasotzen duen egunetik hamar egun balioudun pasatu baino lehen.

3. Aldiz, ebazpen judizial edo administratibo baten bidez aitortutako ezintasun gradua aldatzen bada eta gradu berria ehuneko 33tik gorakoa bada, txartel berria emango da, datuak eguneratuta edukiko dituen, onuradunak aurreko txartela itzuli ondoren.

28. artikulua. Txartel berria eskatzea

Titular batek erroteren bat aurkitzen badu bere datu pertsonaletan, txartel berria eskatu beharko du informazioa zuzen agertzeko (eskaera eredia 7. eranskinean dago). Txartel berria eskuratzeko datuak oker dituen utzi beharko du.

29. artikulua. Txartela berriz eskatzea

1. Onuradunek txartel berria eskatu ahal izango dute aurrekoa galdu, lapurtu edo hondatuz gero (eskaera eredia 7. eranskinean dago). Eskaera, bete ondoren, honela aurkez daiteke:

a) Eskuan aurkez dezakete Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Orientazio eta Balorazio Zentroan, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Informazio eta Gizarte Arretarako Bulegoan edo udalerriko oinarrizko gizarte zerbitzuan, kasuan kasukoan, beraiek zuzenean zein 14.4 artikuluan aipatutako pertsonetako batek eramanda.

b) Postaz bidal dezakete a) idatz zatian azaldutako lekuetara.

c) Posta elektronikoz bidal dezakete Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen helbidera.

2. Txartel berria lapurreta baten ondorioz eskatzen bada, eskaerarekin batera salaketa aurkeztu behar.

30. artikulua. Txartela ezeztatzea

Txartela aurrean azaldutako kasuetan ezeztatuko da, bai eta iruzurra egiteko erabiltzen bada ere. Ezeztatu baino lehen entzunaldia emango zaio titularrari. Ezeztapenak erantzukizunak ekar ditzake.

31. artikulua- Indarraldia

Txartelaren indarraldia ebazpenean adierazitakoaren arabera izango da. Behin betikoa edo behin-behinekoa izan daiteke; behin-behinekoa bada, noiz arte izango den baliozkoa adierazi behar da.

III. KAPITULUA. 6 URTEKO EDO ADIN HORRETATIK BEHERAKO NESKA-MUTILEK GARAPEN NAHASMENDURIK DUTEN EDO HALAKORIK EDUKITZEKO ARRISKUA DUTEN AZTERTZEKO PROZEDURA

1. atala. Prozedura hastea.

32. artikulua. Eskaerak aurkeztea

1. Haur batek garapen nahasmendurik daukan edo halakorik edukitzeko arriskuan dagoen baloratzeko prozedura hasteko ezinbestekoa da gurasoek, tutoreek, harrera familiakoek edo zaintza daukanak, kasuan kasukoak, eskaera aurkeztea Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Zuzendaritza-Kudeatzailtzari.

2. Eskaerak leku hauetan aurkeztu behar dira:

a) Eskatzailearen ohiko etxebizitza Vitoria-Gasteizen badago, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari atxikitako Orientazio eta Balorazio Zentroan.

b) Eskatzailearen ohiko etxebizitza ez badago Vitoria-Gasteizen, ohiko etxebizitza dagoen udalerriko oinarrizko gizarte zerbitzuan edo Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari atxikitako Orientazio eta Balorazio Zentroan.

Aurrekoa gorabehera, eskaerak aurkezteko Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 38. artikuluko gainerako prozedurak ere erabili ahal izango dira (lege hori urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu zuen).

3. Eskaerak 3. eranskineko eredu ofizialaren arabera egin behar dira.

4. Ondoko hauek aurkez dezakete eskaera:

a) Haurraren guraso ahala daukaten gurasoek (aitak, amak edo biek).

b) Behar den kasuetan, haurraren tutoretza daukan pertsonak.

c) Behar den kasuetan, familia harrera egiten duen pertsonak.

d) Behar den kasuetan, haurraren egitatezko zaintza daukan pertsonak, baldin eta aurretik familia harrera formalizatzeko prozedurari ekin badio eta bere gain hartu badu familia harrera eraginkortasunez gauzatu arte prozedurarekin aurrera egin beharra.

5. Haur batek garapen nahasmendurik daukan edo halakorik edukitzeko arriskuan dagoen baloratzeko prozeduraren eta aurkeztutako txosten medikoen ondorioz agerian jartzen bada haurra mendekotasunean dagoela, mendekotasuna baloratzeko eskaera ere izapidetuko da, eta balorazio honen emaitzak ez du eraginik edukiko garapen nahasmenduaren balorazioan eta ez du eragotziko arreta goiztiarreko zerbitzua erabiltzea.

33. artikulua. Dokumentazioa

1. Eskaerarekin batera agiri hauek aurkeztu behar dira:

a) Nortasuna egiaztatzeko dokumentuak:

– Balorazio eskatzen zaio haurra identifikatzen duen familia liburuaren fotokopia, edo Nortasun Agiri Nazionalarena, edukiz gero.

– Guraso ahala daukaten gurasoen (aita, ama edo biak) Nortasun Agiri Nazionalaren (NAN) edo Atzerritarren Identifikazio Zenbakiaren (AIZ) fotokopia.

– Behar denean, haurraren tutoretza daukan pertsonaren Nortasun Agiri Nazionalaren (NAN) edo Atzerritarren Identifikazio Zenbakiaren (AIZ) fotokopia eta tutoretzaren egiaztagiria.

– Behar denean, familia harrera egin duen pertsonaren Nortasun Agiri Nazionalaren (NAN) edo Atzerritarren Identifikazio Zenbakiaren (AIZ) fotokopia eta harrera eratu zuen ebazpen administratiboa edo judiziala.

– Behar denean, egitatezko zaintza daukan pertsonaren Nortasun Agiri Nazionalaren (NAN) edo Atzerritarren Identifikazio Zenbakiaren (AIZ) fotokopia, zaintza horretan jarduten duelako zinpeko adierazpena (eredu ofiziala 9. eranskinean) eta familia harrera gauzatzeko prozeduraren hasi dela egiaztatzen duen dokumentua.

Dokumentazio horrekin batera ordezkariaren datuen berri emateko inprimakia (8. eranskina) aurkeztu behar da, behar bezala beteta.

b) Gurasoen, familia harrera egin duenaren edo tutoretza daukanaren zerga egoitza, haurraren ohiko etxebizitza ere badena, Arabako Lurralde Historikoa dagoela frogatzen duen errolda ziurtagiria. Zerga egoitza hori eskaera aurkeztu baino urtebete lehenagotik eduki behar da; salbuespenak:

– Estatuko lurraldean urtebete baino gutxiago egon diren pertsonak, baldin eta zerga egoitza Araban badaukate Estatuko lurraldean sartu zirenetik.

– Mendekotasuna aitortuta daukaten haurrak.

Ziurtagiri hori nahitaez aurkeztu beharko da eskatzailea Arabako Lurralde Historikoko udalerrri batean bizi izan bada (salbuespenak: Vitoria-Gasteiz, Laudio eta Amurrio) zein Arabako Lurralde Historikotik kanpo bizi izan bada. Eskatzailea Vitoria-Gasteizen, Laudio edo Amurrian bizi izan bada, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak zuzenean erabiliko ditu udal erroldak.

c) Behar izanez gero, ondoko agiri hauen fotokopiak: Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak edo Estatuko Administrazio Zibileko Funtzionarioen Mutualitateak (MUFACE), Indar Armatuaren Gizarte Institutuak (ISFAS) edo Epailtzako Mutualitate Orokorrak (MUGEJU) beren onuradunentzat hitzartutako osasun zerbitzuek emandako txosten medikoak, sozialak, psikologikoak eta pedagogikoak. Hala ere, beste agiri mediko, psikologiko eta pedagogiko batzuk eta bestelako agiri osagarriak ere aurkeztu ahal izango dira.

2. Gainera, artikulua honetako 1. paragrafoan aipatzen diren eskaerarekin eta agiriekin batera Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearentzako baimena aurkeztu behar da, hain zuen ere espedientea izapidetzeko behar diren datu pertsonalak biltzeko, erabiltzeko edota transmititzeko baimena, behar bezala sinatuta (eredu ofiziala 12. eranskinean dago). Baimen horren bidez Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak bere kabuz eskuratu ahal izango ditu espedientea bideratzeko behar dituen beste administrazio publikoen datuak eta informazioak. Baimen hori eman ezean, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak eskatzaileari eskatu ahal izango dio berak emateko datu horiek 36. artikuluan ezarri den bezala.

2. atala. Espedientearen instrukzioa.

34. artikulua. Eskaera egiaztatzea eta zuzentzea

1. Eskaera jaso ondoren haurra bizi den udalerriko oinarrizko gizarte zerbitzua (edo Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Orientazio eta Balorazio Zentroa, haurraren egoitza Vitoria-Gasteizen badago) espedientea izapidetzen hasiko da eta eskaera behar bezala beteta dagoenez egiaztatuko du.

2. Eskaera osorik beteta ez badago edo 33.1 artikuluan aipatzen diren agirietako bat falta bada, eskatzaileei idatziz jakinaraziko zaie akatsak zuzendu behar direla eta horretarako 10 egun balioduneko epealdia dagoela jakinarazpena jasotzen den egunetik aurrera. Errekerimenduan berriaz azalduko da:

a) Epealdi horretan akatsak zuzentzen ez badira, eskatzaileak eskaeran atzera egin duela pentsatuko da eta hura beste izapidetik gabe artxibatuko da Gizarte Ongizaterako Foru

Erakundeak berriazko ebazpena eman ondoren. Nolanahi ere, eskatzaileak beste prozedura bati ekin ahal izango dio.

b) Eskeraren edo berarekin batera aurkeztutako agiriren batean datu faltsurik ematea edo eman beharreko datuen bat faltatzea nahikoa izango da haurrak garapen nahasmendua daukela edo halako nahasmendua edukitzeko arriskuan dagoela aitortzeko eskaera ez onartzeko.

35. artikulua. Baloraziorako hitzorduaren berri ematea

1. Aurreko artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik eskaera egiaztatu, eta behar denean zuzendu, ondoren oinarrizko gizarte zerbitzuak edo Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Orientazio eta Balorazio Zentroak, kasuan kasukoak, idatziz jakinaraziko du zer egunetan eta zer ordutan joan behar den haurra aitarekin edota amarekin edo tutoretza edo egitatezko zaintza daukan pertsonarekin edo familia harrera egin dionarekin Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Orientazio eta Balorazio Zentrora, garapen nahasmenduak baloratzeko eskumena daukan unitate teknikoak balorazioa egin dezan.

2. Idazki horretan GOFek berriaz adieraziko du haurra aitarekin edota amarekin edo tutoretza edo egitatezko zaintza daukan pertsonarekin edo familia harrera egin dionarekin Orientazio eta Balorazio Zentrora agertzen ez bada ezarritako hitzorduan, eskaeran atzera egin duela pentsatuko dela eta hura beste izapiderik gabe artxibatuko dela Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak berriazko ebazpena eman ondoren, ondoko kasuan izan ezik: ezarritako eguna baino lehen agiri baten bidez frogatzen badu egun horretan ezin dela azaldu baloraziora eta hitzordua aldatzeko eskatzen badu edo, hitzordua pasatutakoan, agiri baten bidez frogatzen badu ezin izan duela agertu baloraziora.

36. artikulua. Informazio errekerimenduak

1. Prozeduraren edozein unetan Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Orientazio eta Balorazio Zentroak informazio eta agiri gehiago eskatu ahal izango dizkio eskatzaileari espedientearen ebazteko. Eskatzaileak 10 egun balioduneko epealdia edukiko du eskatutakoa aurkezteko jakinarazpena jasotzen duenetik aurrera.

2. 10 egun balioduneko epealdian eskatzaileak eskatutako guztia aurkezten ez badu, eskaeran atzera egin duela pentsatuko da eta hura beste izapiderik egin gabe artxibatuko da Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak berriazko ebazpena eman ondoren. Nolanahi ere, eskatzaileak beste prozedura bati ekin ahal izango dio.

3. atala. Haurrak garapen nahasmendua daukan edo halakorik edukitzeko arriskuan dagoen baloratzea.

37. artikulua. Balorazioa

1. Hitzorduan ezarritako egunean haurra Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Orientazio eta Balorazio Zentrora joan behar da aitarekin edota amarekin edo tutoretza edo egitatezko zaintza daukan pertsonarekin edo familia harrera egin dionarekin, unitate tekniko eskudunak garapen nahasmendua daukan edo halakorik edukitzeko arriskuan dagoen baloratu dezan.

2. Haurra aitarekin edota amarekin edo tutoretza edo egitatezko zaintza daukan pertsonarekin edo familia harrera egin dionarekin Orientazio eta Balorazio Zentrora agertzen ez bada ezarritako hitzorduan, eskaeran atzera egin dela pentsatuko da eta hura beste izapiderik gabe artxibatuko da Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak berriazko ebazpena eman ondoren, ondoko kasuan izan ezik: ezarritako eguna baino lehen agiri baten bidez frogatzen bada egun horretan ezin dela azaldu baloraziora eta hitzordua aldatzeko eskatzen bada edo, hitzordua pasatutakoan, agiri baten bidez frogatzen bada haurra ezin izan dela agertu baloraziora.

38. artikulua. Baloraziorako irizpideak

1. Haurraren eta beraren familiaren beharrezkoak baloratzeko haurraren garapenaren ikuspegi globala eta ingurunearekiko elkarreraginak kontuan dauzkana aplikatuko da.

2. Balorazioa egiteko ondoko irizpide hauek hartuko dira aintzat:

a) Haur batek garapen nahasmendua dauka baldin eta garapenean desbideratze esanguratsua antzematen bazaio bilakaera biologikoa, psikologikoa eta soziala arriskuan jartzen dituen osasun edo harreman gertaera baten ondorioz. Asaldura edo nahasmendua kognitiboa, mugimendukoa, sentsoriala, emozionala, jokabidearena, hizkuntzazkoa, orokorra edo somatikoa izan daiteke, edo atzerapena heltze prozesuan.

b) Ondoko egoeretako batean dauden haurrak garapen nahasmendua edukitzeko arriskuan daude:

– Arrisku biologikoan dauden haurrak. Egoera horretan daude jaio aurreko, jaiotza inguruko edo jaio ondoko aldian edo garapen goiztiarrean heltze prozesua alda dezaketen egoeretan egon direnak, hala nola denbora bete gabe jaiotzea, pisu eskasarekin jaiotzea edo jaiotzean anoxia jasatea, bai eta gaixotasun kongenittoa edo hartutakoa dutenak edo alterazio genetikoren bat dutenak.

– Arrisku psikosozialean dauden haurrak. Egoera horretan daude heltze prozesua aldatu dezaketen gizarte inguruabar kaltegarrietan bizi diren haurrak, hala nola behar bezala zainduta ez daudenak, gurasoekin eta familiarekin nahikoa elkarreragin ez dutenak, tratu txarrak, arduragabekeriak edo abusuak jasaten dituztenak.

39. artikulua. Balorazio irizpen teknikoa

1. Balorazioa egiteko eskumena daukan organoak kasu bakoitzean haurraren egoera baloratzeko beharrezkotzat jotzen dituen azterketak, elkarrizketak eta gainerako probak egingo ditu eta, lortutako emaitzak oinarritzat hartuta, balorazioaren irizpen teknikoa bidaliko dio ezintasunaren arretaren eskumena daukan arloko zuzendaritza teknikoari.

2. Aurreko paragrafoan aipatutako irizpenean zehaztu behar da haurrak garapen nahasmendurik daukan edo halakorik edukitzeko arriskuan dagoen.

4. atala. Prozedura amaitzea.

40. artikulua. Ebazpen proposamena

1. Haurrak garapen nahasmendurik daukan edo halakorik edukitzeko arriskuan dagoen argitzeko balorazio organoak emandako irizpena jaso ondoren ezintasunaren arretarako eskumena daukan arloko zuzendariordetza teknikoak ebazpen proposamena egingo du eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Zuzendaritza-kudeatzailetzari aurkeztuko dio.

2. Ebazpen proposamenean haurrak garapen nahasmendurik daukan ez halakorik edukitzeko arriskuan dagoen zehaztu behar da; ondoko hauek azaldu behar dira:

a) diagnostikoa;

b) indarraldia;

c) noiz hasiko den ondorioak sortzen.

41. artikulua. Ebazpena

1. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Zuzendaritza-Kudeatzailetzak dauka haurrek garapen nahasmendurik daukaten edo halakorik edukitzeko arriskuan dauden baloratzeko ebazpenak emateko eskumena; ebazpenak berariazkoak izan behar dira.

2. Eskaera oinarritzko gizarte zerbitzuan edo Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen (32.2 artikuluan eskaerak aurkezteko lekuez ezarritakoarekin bat etorriz) jasotzen denetik bi hilabete pasatu baino lehen ebazpena eman behar da eta eskatzaileari jakinarazi behar zaio. Epealdi horretarako ez da kontuan hartuko eskatzaileari egotz dakizkikeen arrazoiengatik espedientea geldituta dagoen denbora. Izapideetan horrela gertatzen diren atzerapenak idatziz azaldu behar dira.

3. Ebazpenean arrazoiak agertu behar dira, eta ondokoak argitu:

- a) diagnostikoa;
- b) indarraldia;
- c) noiz hasiko den ondorioak sortzen.

Horrez gainera ondokoen berri eman behar da: garapen nahasmendua daukatenek edo halakorik edukitzeko arriskuan daudenek dauzkaten eskubideei buruzko informazioa eskatu daiteke eta horretarako Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Orientazio eta Balorazio Zentrorako behar da; arreta goiztiarreko zerbitzua jasotzeko hitzordua eskatu behar da zentro horretan.

Gainera, adierazi behar da haurrak garapen nahasmenduak daukala edo halakorik edukitzeko arriskuan dagoela aitortzeak berekin dakarrela gurasoek, tutoreek, zaintza daukan pertsonak edo haurrari familia harrera egin dionak Gizarte Ongizaterako Foru Aldundiari jakinarazi behar izatea kalifikazioan eragina izan dezaketen aldaketa guztiak gertatzen direnetik 15 egun natural pasatu baino lehen.

4. haurrak garapen nahasmendua daukala edo halakorik edukitzeko arriskuan dagoela aitortzen duen ebazpena eskaera aurkeztu den egunetik aurrera hasiko ondorioak sortzen, hurrengo artikuluan berrikuspenen ondorioez ezarritakoa gorabehera.

42. artikulua. Berrikuspena

1. Balorazioa ez da behin betikoa izango: ofiziozko berrikuspenak egin behar dira 6, 12, 18, 24 eta 30 hilabete pasatutakoan. Nolanahi ere, balorazioa egiteko eskumena daukan organoak berrikuspenak maiztasun handiagoarekin egitea agindu dezake.

2. Aurreko paragrafoan araututako berrikuspena foru dekretu honetako 41.2 artikuluan garapen nahasmenduen eta halakoen arriskuen baloraziorako ezarritako epealdian egin behar da; berrikuspen bakoitzak berari buruzko ebazpena ematen den egunetik aurrera sortuko ditu ondorioak.

II. TITULUA. ZERBITZUAK ETA PRESTAZIO EKONOMIKOAK JASOTZEKO ESKUBIDEA

43. artikulua. Eskubidea

I. titulan araututako beharrizan egoeretako bat aitortzeak berekin ekarriko du titulu hone-tan egoera horretarako ezarritako zerbitzuak eta prestazio ekonomikoak jasotzeko eskubidea; nolahi ere, zerbitzu eta prestazio ekonomiko horiek jasotzeko ezartzen diren baldintzak bete beharko dira.

44. artikulua. Salbuespen egoerak

1. Aparteko kasuetan, eta aurreko artikuluan ezarritakoa eragotzi gabe, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak honela jokatu ahal izango du berak eman beharreko zerbitzu eta prestazio ekonomikoei dagokienez, inguruabarrak direla eta beharrezkoa bada eta txosten teknikoek justifikatzen badute:

a) Onuradun izateko baldintzak betetzen ez dituen pertsona batek foru dekretu honetan araututako zerbitzu bat, zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa edo Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa jasotzea onartu dezake.

b) Foru dekretu honen arabera bateragarriak ez diren zerbitzuak edota prestazioak bateragarri bihurtu ditzake edo zerbitzu eta prestazio ekonomikoen bateragarritasunaren maila foru dekretu honetako 47.1 artikuluan ezarritako gehieneko mugaz gainetik ezar dezake.

c) Eguneko zentro edo eguneko arreta zerbitzuetan (zentro okupazionalak barne), adinekoentzako etxebizitza zerbitzuetan (etxebizitza komunitarioa), ezintasuna edo adimen gaixotasuna duten pertsonentzako etxebizitza laguntzadunetan eta egoitza zerbitzu edo

zentroetan hutsik dauden plazak ezarritako zerrendetako lehentasun hurrenkera aplikatu gabe esleitu ditzake.

2. Justifikazio teknikoaren oinarritzat hartuta, eskumena daukan arloko zuzendariorde eta teknikoak salbuespeneko ebazpen baten proposamena egingo du eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Zuzendaritza-Kudeatzailetzari aurkeztuko dio, behar diren azalpenak emanda. Zuzendaritza-Kudeatzailetzak Administrazio Kontseiluari aurkeztuko dio proposamena, eta hark proposamena onartu edo ukatu ebatziko du.

3. Honelako salbuespen kasu batzuetan aitortutako eskubidea behin-behinekoa izango da, hain zuzen ere inguruabarrak direla eta beharrezkoa denean eta txosten teknikoek horren alde egiten badute eta justifikatzen badute. Honelakoetan ebazpenean eskubidearen indarraldia noiz artekoa den adierazi behar da.

4. Salbuespen kasuetan III. tituluko I., II. eta III. kapituluetan araututako prozedura arrunta aplikatu ahal izango da edo, beharrezkoa izanez gero, 71. artikuluan araututako presazko prozedura.

I. KAPITULUA. MENDEKOTASUN EGOERA AITORTZEAK BEREKIN DAKARREN ZERBITZUAK ETA PRESTAZIO EKONOMIKOAK JASOTZEKO ESKUBIDEA

45. artikulua. Autonomiaren Aldeko eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemako zerbitzuak eta prestazio ekonomikoak jasotzeko eskubidea

1. Foru dekretu honetako I. tituluko I. kapituluaren araututako mendekotasuna (ertaina, larria edo handia) aitortzeak Autonomiaren Aldeko eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemako zerbitzu edota prestazio ekonomiko hauetako bat edo batzuk jasotzeko eskubidea emango dio aitortpenaren onuradunari 46. artikuluan aipatzen den aplikazio egutegiaren barruan:

a) I. graduaren mendekotasuna (ertaina) aitortuta duten pertsonen zerbitzu edo prestazio ekonomiko hauek jaso ditzakete:

- Telelaguntza zerbitzua.
- Autonomia pertsonala sustatzeko zerbitzuak.
- Etxez etxeko laguntza zerbitzua.
- Eguneko zerbitzua edo eguneko zentroa, modalitate guztietan, are zentro okupazionala ere.
- Gaueko zerbitzua edo gaueko zentroa adineko pertsonentzat.
- Etxebizitza zerbitzua adinekoentzat.
- Etxebizitza laguntzaduna ezintasuna edo adimen gaixotasuna duten pertsonentzat.
- Familiakoek eskainitako zaintzarako eta profesionalak ez diren zaintzaileek emandako laguntzarako prestazio ekonomikoa.
- Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa.
- Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa (zerbitzua idatz zati honetan ezarritakoetako bat izan behar da).

b) II. graduaren mendekotasuna (larria) edo III. graduaren (handia) aitortuta duten pertsonen zerbitzu edo prestazio ekonomiko hauek jaso ditzakete:

- Telelaguntza zerbitzua.
- Autonomia pertsonala sustatzeko zerbitzuak.
- Etxez etxeko laguntza zerbitzua.

- Eguneko zerbitzua edo eguneko zentroa, modalitate guztietan, are zentro okupazionala ere, eguneko arretarako landa zentroetako adineko pertsonentzako eguneko zerbitzua izan ezik.
- Gaueko zerbitzua edo gaueko zentroa adineko pertsonentzat.
- Etxebizitza laguntzaduna ezintasuna edo adimen gaixotasuna duten pertsonentzat.
- Egoitza zerbitzua edo zentroa.
- Familiakoek eskaintako zaintzarako eta profesionalak ez diren zaintzaileek emandako laguntzarako prestazio ekonomikoa.
- Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa.
- Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa (zerbitzua idatz zati honetan ezarritakoetako bat izan behar da), eta adinekoentzako etxebizitza zerbitzuei (etxebizitza komunitarioak) lotutakoak, hain zuzen ere Arabako Foru Aldundiak II. eta III. graduetakoa mendekotasunerako akreditatzen dituenak prestazio ekonomikoaren esparruan.

2. 1. paragrafoan aipatzen diren zerbitzuak eta prestazio ekonomikoak Eusko Jaurlaritzak, Arabako Foru Aldundiak edo Arabako Lurralde Historikoko udalek emango dituzte, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeko 40., 41. eta 42. artikuluetan eskumen banaketaz ezarritakoa kontuan hartuta. Honek ez du eragozten foru dekretu honetako bosgarren xedapen iragankorrean ezarritakoa.

3. Artikulu honetako 1. paragrafoan ezarritako zerbitzuek eta prestazio ekonomikoek egokitasunaren arabera laguntza edo babes emango dute; laguntza edo babes, gainera, Estatuko arautegian ezarritako gutxienezkoa izango da. Nolanahi ere, Arabako Foru Aldundiak Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak ematen dituen zerbitzuen eta prestazio ekonomikoen intentsitatea gehitu ahal izango du babes maila handiagoa aplikatzeko.

4. Artikulu honetako 2. paragrafoan aipatzen den foru eskumenaren esparruan, eguneko zentroak edo eguneko arreta zerbitzuak, adinekoentzako gaueko zerbitzuak edo zentroak, adinekoentzako etxebizitza zerbitzuak (etxebizitza komunitarioak) –Arabako landa zonan bizi diren adineko pertsonak–, ezintasuna edo adimen gaixotasuna duten pertsonentzako laguntzadun etxebizitzak, eta egoitza zerbitzuak edo zentroak, artikulu honetako 1. paragrafoan aipatzen direnak, bi modalitateetan ariko dira: modalitate arrunta eta atsedeen modalitatea (salbuespena: zentro okupazionalak modalitate arruntean bakarrik ariko dira). Aurrekoa aplikatzeko ondoko irizpide hauek hartuko dira aintzat:

a) Atsedenerako modalitatean zerbitzuak gehienez 45 egun edo gautan erabili ahal izango dira urtean, jarraian zein tarteka (zerbitzu bakoitzeko gehieneko muga beraren izaeraren arabera izango da).

b) Modalitate arruntean zerbitzuak gehienez aurreko idatz zatian atsedenerako modalitate-rako ezarritako aldian erabili ahal izango dira, jarraian.

Paragrafo honetan aipatzen diren atsedenerako zerbitzuak bi modutara jaso daitezke: gizarte zerbitzuen foru sarearen bidez edo zerbitzuari (atsedenerako modalitatea) lotutako prestazio ekonomiko baten bitartez. Salbuespenak: adinekoentzako etxebizitza zerbitzuak (etxebizitza komunitarioak) eta adinekoentzako egoitza zerbitzuak eta zentroak, hauek beti emango dira eta zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoaren bitartez, inguruabarrak direla eta gizarte zerbitzuen foru sareko zerbitzuren bat erabiltzea egokiagoztat jo ezean (txosten tekniko batean azaldu eta justifikatu behar da).

5. 75 urtetik beherako pertsona bati behin-behinean aitortu bazaio mendekotasuna eta beraren arretarako zerbitzu egokia adinekoentzako etxebizitza zerbitzua (etxebizitza komunitarioa) edo ezintasuna edo adimen gaixotasuna duten pertsonentzako laguntzadun etxebizitza bada, edo Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak ematen duen egoitza zerbitzu edo zentroa, gizarte

zerbitzuen foru sareko plaza eman beharrean zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa emango zaio, ondoko kasu hauetan izan ezik:

a) Baldin eta, gizarte zerbitzuen foru sarean plazaren bat hutsik egonik, ez badago inor adinekoentzako etxebizitza zerbitzuan (etxebizitza komunitarioa), ezintasuna edo adimen gaixotasuna duten pertsonentzako laguntzadun etxebizitzan edo egoitza zerbitzu edo zentroan plaza eskuratzeko itxaron zerrendan plaza hori dagoen udalerria lehentasunekotzat jo duenik.

b) Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoaren bidez zerbitzuak emateko akreditatutako sare pribatuko zerbitzuak ez badira egokiak erabiltzailearen berariazko beharriaz erantzuteko (bidezko arloko zuzendariordetza txosten batean adierazi behar du).

Kasu horietan pertsonak gizarte zerbitzuen foru sareko plaza eskuratuko du behin-behinean.

46. artikulua. Autonomiaren Aldeko eta Mendekotasunaren Arretarako Sistema erabiltzeko eskubidearen eraginkortasun gehikorra

Mendekotasuna aitortuta duten pertsonak Autonomiaren Aldeko eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemako gizarte zerbitzuak edota prestazio ekonomikoak jasotzeko eskubidea daukate; eskubide horren eraginkortasuna Estatuko aplikazio egutegiaren arabera izango da. Nolanahi ere, Arabako Foru Aldundiak Arabako Foru Aldundiak Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak ematen dituen zerbitzuen eta prestazio ekonomikoen intentsitatea gehitu ahal izango du babes maila handiagoa aplikatzeko, foru dekretu honetako lehenengo xedapen iragankorrean ezarri den bezala.

47. artikulua. Bateragarritasunerako irizpide orokorrak

1. 45. artikuluan arautzen diren zerbitzuak eta prestazio ekonomikoak bateragarriak izango dira 48., 49. eta 50. artikuluetan ezarritako kasuetan, ondoko muga hauekin:

a) I. mendekotasun gradua aitortu zaien pertsonak, mendekotasun egoera baloratzeko barmoaren arabera 40 puntu edo gehiago badauzkate, gehienez foru eskumeneko bi zerbitzu edota prestazio ekonomiko jaso ahal izango dituzte batera, modalitate arruntean.

b) II. edo III. mendekotasun gradua aitortu zaien pertsonak gehienez foru eskumeneko hiru zerbitzu edota prestazio ekonomiko jaso ahal izango dituzte batera, modalitate arruntean.

2. Aurreko paragrafoko a) eta b) idatz zatietan ezarritako gehieneko mugak gorabehera ondoko hauek kontuan hartu behar dira:

a) Foru dekretu honetako 44.1 b) artikuluan ezarritako salbuespen egoerak.

b) Zerbitzu edo prestazio ekonomiko horiek atsedenerako zerbitzuekin bateratzeko aukera, foru dekretu honetako 49. eta 50. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz.

c) Zerbitzu edo prestazio ekonomiko horiek telelaguntza zerbitzuarekin bateratzeko aukera, foru dekretu honetako 49.2 eta 50.3 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz.

Zerbitzuak edota prestazioak batera jasoz gero, ondoko irizpideak aplikatuko dira gutxitzeko, txikitzeko edo eteteko:

a) Baldin eta foru dekretu honetako 48. artikuluko bateragarritasun araubidearen esparruan pertsona batek Autonomiaren Aldeko eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemako bi prestazio ekonomiko jasotzen baditu artikuluko horretako 1. paragrafoan ezarritakoaren arabera, jasotzen duen zenbatekoa sistema horretako prestazio ekonomikoak arautzen dituen foru arautegian ezarritakoarekin bat etorriz murriztu ahal izango da.

Pertsona batek Autonomiaren Aldeko eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemako prestazio ekonomikoa jasotzen badu eta horrekin batera xede bereko Estatuko prestazioa ere bai, 48. artikuluko 3. paragrafoan ezarri den bezala, Estatuaren prestazioaren zenbatekoa sistema

horretako prestazio ekonomikoak arautzen dituen foru arautegian ezarritakoaren arabera ordaindu beharrekotik kenduko da.

b) Baldin eta foru dekretu honetako 49. artikuluko bateragarritasun araubidearen esparruan pertsona batek batera jasotzen baditu prestazio ekonomiko bat eta zerbitzu bat, prestazio ekonomikoaren zenbatekoa Autonomiaren Aldeko eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemako prestazio ekonomikoak arautzen dituen foru arautegian ezarritakoarekin bat etorri murriztu ahal izango da.

c) Baldin eta foru dekretu honetako 50. artikuluko bateragarritasun araubidearen esparruan pertsona batek bi zerbitzu jasotzen baditu batera, banako programazioaren arabera lehentasuneko baliabidea ez den zerbitzuaren intentsitatea edo bi zerbitzuena murriztu ahal izango da, kasuan kasukoa, 50. artikuluan ezarritakoaren arabera zerbitzu nagusia eteten denean izan ezik.

48. artikulua. Prestazio ekonomikoen arteko bateragarritasunaren eta bateraezintasunaren araubidea

1. Foru dekretu honetan araututako prestazio ekonomikoak bateraezinak izango dira beti elkarren artean. Beraz, prestazio horietako bat eskuratzen duenak ezin izango du jaso besterik.

Aurrekoa gorabehera, Arabako Foru Aldundiak ematen duen babes maila osagarriaren esparruan, mendekotasun egoeran dagoen pertsona etxean egotea errazten duten laguntza, zainketak eta arreta emateko prestazio ekonomikoak bateragarri egin ahal izango dira I. graduko mendekotasuna eta mendekotasuna baloratzeko baremoaren arabera 40 puntu edo gehiago dituzten pertsonentzat, II. graduko mendekotasuna dutenentzat edo III. graduko mendekotasuna dutenentzat, era honetara:

a) Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa eta zerbitzuari lotutako prestazioa bateragarriak izan daitezke, baina horretarako ezinbestekoa da bigarrena lotutako zerbitzua bateragarria izatea bestearekin.

b) Familia ingurune zainketetarako eta zaintzaile ez profesionalei laguntzeko prestazio ekonomikoa eta zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa bateragarri egin ahal izango dira, azken prestazio hori aurreko prestazio horrekin bateragarria den zerbitzu batekin lotzen bada.

Prestazio horiek batera jasotzeak berekin ekarriko du foru dekretu honetako 47. artikuluko 3.a) idatz zatian aipatutako murrizketak.

2. Era berean, foru dekretu honetan araututako prestazio ekonomikoak ezin dira bateratu ondoko prestazio hauekin:

a) Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legea oinarri hartuta, Arabako Foru Aldundiak mendeko pertsonen autonomia pertsonala sustatzea nahiz eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak egiteko zailtasunak dituzten pertsonen arreta emateko ematen duen beste edozein prestazio ekonomiko, laguntzarako produktuak eskuratzeko edota etxebizitza moldatzeko direnak izan ezik.

b) Antzeko helburuetarako Arabako Foru Aldundiak ematen dituen beste prestazio batzuk, subjektu eragilea edo onuraduna mendekotasuna duen pertsona bada, nahiz eta prestazioa familia unitateko beste kide baten izenean egon.

3. Foru dekretu honetan araututako prestazio ekonomikoak bateragarriak izango dira Estatu arautegian antzeko helburuetarako ezarritako beste prestazio batzuekin, subjektu eragilea edo onuraduna mendekotasuna duen pertsona bada, nahiz eta prestazioa familia unitateko beste kide baten izenean egon. Ondoko hauek dira:

a) Baliaezintasun handiagatik osagarria, Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorraren testu bateratua onartzen duen ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuak, Gizarte Segurantzaren arloko Berariazko Xedapenei buruzko abenduaren 10eko 52/2003 Legearen bidez aldatuak, 139.4 artikuluan arautzen duena.

b) Gutxienez ehuneko 75eko minusbaliotasun gradua duen 18 urtetik gorako seme edo alabaren bat kargura daukatenezako esleipen ekonomikoaren osagarria, Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorraren testu bateratua onartzen duen ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuak, Gizarte Segurantzaren arloko Berariazko Xedapenei buruzko abenduaren 10eko 52/2003 Legearen bidez aldatuak, 182 bis 2 c) artikuluan ezartzen duena.

c) Kotizazio gabeko baliaezintasun pentsioaren osagarria, beste pertsona baten beharra edukitzeagatik jasotzen dena, Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorraren testu bateratua onartzen duen ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuak, Gizarte Segurantzaren arloko Berariazko Xedapenei buruzko abenduaren 10eko 52/2003 Legearen bidez aldatuak, 145.6 artikuluan ezartzen duena.

d) Hirugarren pertsona baten laguntzarengatik sorospena, Minusbaliatuak Gizarteratzeari buruzko apirilaren 7ko 13/1982 Legeko 12.2 c) artikulua arautzen duena, eta Ezintasuna duten Pertsonen Eskubideei eta haiek Gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bateratua onartzen duen azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak mantentzen duena legegintzako errege dekretu hori indarrean jarri baino lehenagotik hura jasotzen duten eta dekretu horren xedapen iragankor bakarrean ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsonentzat.

Horrelako kasuetan paragrafo honetan aipatutako prestazio ekonomikoak foru dekretu honetako 47. artikuluko 3.a) idatz zatiko azken puntuan arautu den bezala murriztuko dira.

49. artikulua. Prestazio ekonomikoen eta zerbitzuen arteko bateragarritasunaren eta batezintasunaren araubidea

1. Prestazio ekonomikoak eta zerbitzuak bateragarriak izango dira ondoko kasu hauetan:

a) I. gradu mendekotasuna aitortuta duten pertsonen mendekotasuna baloratzeko baremoaren arabera 40 puntu edo gehiago badauzkate, irizpide hauek aplikatuko dira:

– Familia inguruneko zainketetarako eta zaintzaile ez profesionalei laguntzeko prestazio ekonomikoa hauekin bateragarria izango da:

. Autonomia pertsonala sustatzeko zerbitzuak.

. Etxez etxeko laguntza zerbitzua.

. Eguneko zerbitzua edo zentroa, modalitate guztietan, are zentro okupazionala ere.

. Gaueko zerbitzua edo gaueko zentroa adineko pertsonentzat.

. Atsedenerako zerbitzua eguneko zentroan edo eguneko arreta zerbitzuan, modalitate guztietan, zentro okupazionalan izan ezik, gehienez 45 egun urtean, foru dekretu honetako 45.4 artikuluan ezarri den bezala.

. Atsedenerako zerbitzua adinekoentzako gaueko zerbitzuan edo zentroan, gehienez 45 gau urtean, foru dekretu honetako 45.4 artikuluan ezarri den bezala.

. Adinekoentzako etxebizitza zerbitzua (etxebizitza komunitarioa) eta atsedenerako zerbitzua ezintasuna edo adimen gaixotasuna duten pertsonentzako laguntzadun etxebizitzan, gehienez 45 egun urtean, foru dekretu honetako 45.4 artikuluan ezarri den bezala. Foru dekretu honetako 74.1.a) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, aurreko zerbitzuetako egonaldietan familia inguruneko zainketetarako eta zaintzaile ez profesionalei laguntzeko prestazio ekonomikoa etengo da, bai jasotzen den atsedenerako zerbitzua gizarte zerbitzuen foru sarekoa denean, bai sare horretatik kanpokoan izanik zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoaren bitartez jasotzen denean (atsedenerako modalitatea).

– Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa hauekin izango da bateragarria:

. Autonomia pertsonala sustatzeko zerbitzuak.

. Eguneko zentroko zerbitzua edo eguneko arretaren zerbitzua, modalitate guztietan –baita zentro okupazionala ere–.

. Gaueko zerbitzua edo gaueko zentroa adineko pertsonentzat.

. Atsedenerako zerbitzua eguneko zentroan edo eguneko arreta zerbitzuan, modalitate guztietan, zentro okupazionalan izan ezik, gehienez 45 egun urtean, foru dekretu honetako 45.4 artikuluan ezarri den bezala.

. Atsedenerako zerbitzua adinekoentzako gaueko zerbitzuan edo zentroan, gehienez 45 gau urtean, foru dekretu honetako 45.4 artikuluan ezarri den bezala.

. Adinekoentzako etxebizitza zerbitzua (etxebizitza komunitarioa) eta atsedeen zerbitzua ezintasuna edo adimen gaixotasuna duten pertsonentzako laguntzadun etxebizitzan, gehienez 45 egun urtean, foru dekretu honetako 45.4 artikuluan ezarri den bezala. Foru dekretu honetako 74.1.a) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, aurreko zerbitzuetako egonaldietan laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa etengo da, bai jasotzen den atsedeen zerbitzua gizarte zerbitzuen foru sarekoa denean, bai sare horretatik kanpokoa izanik zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoaren bitartez jasotzen denean (atseden modalitatea).

– Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa, bai modalitate arruntean, bai atsedenerako modalitatean, foru dekretu honetako 45.1.a) artikuluan (45.4 artikuluekin lotuta) ezarritako zerbitzuak eskuratzeko –foru sarekoak ez besteak– bateragarria izango da berari lotutako zerbitzuarekin bateragarriak diren zerbitzuekin, 50. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

b) II. edo III. gradu mendekotasuna aitortuta duten pertsonen kasuan irizpide hauek aplikatuko dira:

– Familia inguruneko zainketetarako eta zaintzaile ez profesionalei laguntzeko prestazio ekonomikoa hauekin bateratu ahal izango da:

. Autonomia pertsonala sustatzeko zerbitzuak.

. Etxez etxeko laguntza zerbitzua.

. Eguneko zentroko edo eguneko arretarako zerbitzua, modalitate guztietan –baita zentro okupazionala ere–, eguneko arretarako landa zentroko eguneko zerbitzua izan ezik.

. Gaueko zerbitzua edo gaueko zentroa adineko pertsonentzat.

. Atsedenerako zerbitzua eguneko zentroan edo eguneko arreta zerbitzuan, modalitate guztietan, zentro okupazionalan izan ezik, eta eguneko arretarako landa zentroko eguneko zerbitzua, gehienez 45 egun urtean, foru dekretu honetako 45.4 artikuluan ezarri den bezala.

. Atsedenerako zerbitzua adinekoentzako gaueko zerbitzuan edo zentroan, gehienez 45 gau urtean, foru dekretu honetako 45.4 artikuluan ezarri den bezala.

. Adinekoentzako etxebizitza zerbitzua (etxebizitza komunitarioa), hain zuzen ere Arabako Foru Aldundiak II. eta III. gradu mendekotasuna duten pertsonen arretarako akreditatutakoa, atsedeen zerbitzua ezintasuna edo adimen gaixotasuna duten pertsonentzako laguntzadun etxebizitzan eta atsedeen zerbitzua egoitza zerbitzuan edo zentroan, gehienez 45 egun urtean, foru dekretu honetako 45.4 artikuluan ezarri den bezala. Foru dekretu honetako 74.1.a) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, aurreko zerbitzuetako egonaldietan familia inguruneko zainketetarako eta zaintzaile ez profesionalei laguntzeko prestazio ekonomikoa etengo da, bai jasotzen den atsedeen zerbitzua gizarte zerbitzuen foru sarekoa denean, bai sare horretatik kanpokoa izanik zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoaren bitartez jasotzen denean (atseden modalitatea).

– Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa hauekin izango da bateragarria:

. Autonomia pertsonala sustatzeko zerbitzuak.

. Eguneko zentroko zerbitzua eta eguneko arretarako zerbitzua, modalitate guztietan –baita zentro okupazionala ere–, eguneko arretarako landa zentroko eguneko zerbitzua izan ezik.

. Gaueko zerbitzua edo gaueko zentroa adineko pertsonentzat.

. Atsedenerako zerbitzua eguneko zentroan edo eguneko arreta zerbitzuan, modalitate guztietan, zentro okupazionalan izan ezik, eta eguneko arretarako landa zentroko eguneko zerbitzua, gehienez 45 egun urtean, foru dekretu honetako 45.4 artikuluan ezarri den bezala.

. Atsedenerako zerbitzua adinekoentzako gaueko zerbitzuan edo zentroan, gehienez 45 gau urtean, foru dekretu honetako 45.4 artikuluan ezarri den bezala.

. Adinekoentzako etxebizitza zerbitzua (etxebizitza komunitarioa), hain zuzen ere Arabako Foru Aldundiak II. eta III. graduako mendekotasuna duten pertsonen arretarako akreditatutakoa, atsedeen zerbitzua ezintasuna edo adimen gaixotasuna duten pertsonentzako laguntzadun etxebizitzan eta atsedeen zerbitzua egoitza zerbitzuan edo zentroan, gehienez 45 egun urtean, foru dekretu honetako 45.4 artikuluan ezarri den bezala. Foru dekretu honetako 74.1.a) artikuluan ezarritakoarekin bat etorri bat, aurreko zerbitzuetako egonaldietan laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa etengo da, bai jasotzen den atsedeen zerbitzua gizarte zerbitzuen foru sarekoa denean, bai sare horretatik kanpokoa izanik zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoaren bitartez jasotzen denean (atseden modalitatea).

– Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa, bai modalitate arruntean, bai atsedenerako modalitatean, foru dekretu honetako 45.1.b) artikuluan (45.4 artikuluekin lotuta) ezarritako zerbitzuak eskuratzeko –foru sarekoak ez besteak– bateragarria izango da berari lotutako zerbitzuarekin bateragarriak diren zerbitzuekin, 50. artikuluan ezarritakoarekin bat etorri.

Paragrafo honetan araututako bateragarritasunak berekin ekarriko du foru dekretu honetako 47. artikuluko 3.b) idatz zatian aipatutako murrizketak aplikatzea.

2. Prestazio ekonomikoak bateragarriak izango dira Eusko Jaurlaritzak ekintza zuzenaren esparruan ematen duen telelaguntza zerbitzuarekin (zerbitzu honetarako berariaz onartuta Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeko 40.3 artikuluen bitartez), ondokoetako bati lotutako prestazio ekonomikoa izan ezean: adinekoentzako etxebizitza zerbitzua (etxebizitza komunitarioa), modalitate arruntean, ezintasuna edo adimen gaixotasuna duten pertsonentzako laguntzadun etxebizitza edo egoitza zerbitzua edo egoitza zentroa.

3. Prestazio ekonomikoak bateragarriak izango dira prestazioaren pertsona titularra foru dekretu honetako 79. artikuluan aipatzen den plazak kudeatzeko programan sartzearekin. Programa hori foru eskumeneko edozein zerbitzuren izan daiteke, egoitza zerbitzuak eta egoitza zentroak barne, edozein modalitatetan, adinekoentzako etxebizitza zerbitzuak (etxebizitza komunitarioak) eta ezintasuna edo adimen gaixotasuna duten pertsonentzako etxebizitza laguntzadunak barne.

50. artikulua. Zerbitzuen arteko bateragarritasunaren eta bateraezintasunaren araubidea

1. I. graduako mendekotasuna aitortuta duten pertsonen mendekotasuna baloratzeko baremoaren arabera 40 puntu edo gehiago badauzkate, irizpide hauek aplikatuko dira foru sareko zerbitzuak bateratzeko:

a) Autonomia pertsonala sustatzeko zerbitzuak zerbitzu guztiekin bateratu daitezke ondokoekin izan ezik: eguneko arreta zentroa edo zerbitzua (modalitate arrunta), adinekoentzako etxebizitza zerbitzua (etxebizitza komunitarioa), ezintasuna edo adimen gaixotasuna duten pertsonentzako laguntzadun etxebizitza (modalitate arrunta), baldin eta zerbitzuok autonomia pertsonala sustatzeko zerbitzuen antzekoak badira.

Autonomia pertsonala sustatzeko zerbitzu batekin batera atsedeen zerbitzua jasotzen bada eguneko zentroan edo eguneko arretarako zerbitzuan, adinekoentzako etxebizitza zerbitzuan (etxebizitza komunitarioa) edo ezintasuna edo adimen gaixotasuna duten pertsonentzako laguntzadun etxebizitzan eta zerbitzu hau autonomia pertsonala sustatzeko zerbitzuaren

antzekoa bada, azken hau eten egingo da atsedean zerbitzua jasotzen den artean. Zerbitzuak antzekoak ez badira, batera jaso ahal izango dira.

b) Etxez etxeko laguntza zerbitzua zerbitzu guztiekin batera jaso daiteke, ondoko hauekin izan ezik:

- Adinekoentzako etxebizitza zerbitzua (etxebizitza komunitarioa), modalitate arrunta.
- Ezintasuna edo adimen gaixotasuna duten pertsonentzako laguntzadun etxebizitza, modalitate arrunta.

Etxez etxeko laguntza zerbitzuarekin batera atsedean zerbitzua jasotzen bada adinekoentzako etxebizitza batean (etxebizitza komunitarioa), hura eten egingo da atsedean zerbitzua jasotzen den artean.

Etxez etxeko laguntza zerbitzuarekin batera atsedean zerbitzua jasotzen bada ezintasuna edo adimen gaixotasuna duten pertsonentzako laguntzadun etxebizitza batean, hura eten atsedean zerbitzua jasotzen den artean, ondoko kasuan izan ezik: onuraduna eguneko zentro batera ere joaten bada (honelakoetan etxeko laguntza zerbitzua jaso ahal izango da).

c) Eguneko zentroa edo eguneko arreta zerbitzua, modalitate arrunta, zerbitzu guztiekin batera jaso daiteke, ondoko hauekin izan ezik:

- Adinekoentzako gaueko zerbitzua edo zentroa, modalitate arrunta.
- Adinekoentzako etxebizitza zerbitzua (etxebizitza komunitarioa), modalitate arrunta.

Eguneko zentroko zerbitzuarekin edo eguneko arreta zerbitzuarekin batera (modalitate arrunta) atsedean zerbitzua jasotzen bada adinekoentzako etxebizitza batean (etxebizitza komunitarioa), hura eten egingo da atsedean zerbitzua jasotzen den artean.

Eguneko zentroko zerbitzuarekin edo eguneko arreta zerbitzuarekin batera (modalitate arrunta) atsedean zerbitzua jasotzeko ezintasuna edo adimen gaixotasuna duten pertsonentzako laguntzadun etxebizitza batean ezinbestekoa izango da atsedean eguneko zentroko edo eguneko arretako zerbitzua erabiltzea; hala egin ezean, ezin izango da jaso atsedean zerbitzua.

d) Adinekoentzako gaueko zerbitzua edo zentroarekin batera adinekoentzako gainerako zerbitzu guztiak erabil daitezke, ondoko hauek izan ezik:

- Eguneko zentroa edo eguneko arreta zerbitzua, modalitate arrunta.
- Adinekoentzako etxebizitza zerbitzua (etxebizitza komunitarioa), modalitate arrunta.

Adinekoentzako gaueko zerbitzua edo zentroarekin batera (modalitate arrunta) atsedean zerbitzua jasotzen bada adinekoentzako etxebizitza batean (etxebizitza komunitarioa), hura eten egingo da atsedean zerbitzua jasotzen den artean.

e) Adinekoentzako etxebizitza zerbitzua (etxebizitza komunitarioa), modalitate arrunta, bateraezina da zerbitzu guztiekin; salbuespena: autonomia pertsona sustatzeko zerbitzuekin batera jaso daiteke bi zerbitzuak antzekoak ez direnean.

f) Ezintasuna edo adimen gaixotasuna duten pertsonentzako laguntzadun etxebizitza, modalitate arrunta, bateraezina da zerbitzu guztiekin, ondoko kasuetan izan ezik:

- Autonomia pertsonala sustatzeko zerbitzuekin batera jaso daiteke bi zerbitzuok antzekoak ez direnean.
- Eguneko zentroarekin edo eguneko arreta zerbitzuarekin bateratu daiteke (modalitate arrunta zein atsedena), baldin eta zentroa edo zerbitzua atsedean zehar erabiltzen bada.

g) Atsedean zerbitzua eguneko zentroan edo eguneko arreta zerbitzuan bateragarria da zerbitzu guztiekin, ondoko hauekin izan ezik:

– Adinekoentzako gaueko zerbitzua edo zentroa, atsedeen modalitatea.

– Adinekoentzako etxebizitza zerbitzua (etxebizitza komunitarioa), modalitate arrunta zein atsedeen modalitatea.

Eguneko zentro batean edo eguneko arreta zerbitzu batean atsedeen zerbitzua jasotzen bada, atsedeenaldian ezin jaso izango dira autonomia pertsonala sustatzeko zerbitzuak, ondoko kasuan izan ezik: eguneko zentroan edo eguneko arreta zerbitzuan eskaintzen dena eta autonomia sustatzeko zerbitzuan eskaintzen dena antzekoak ez badira.

h) Adinekoentzako gaueko zentroan edo zerbitzuan atsedeen zerbitzua jasotzen dutenek adinekoentzako gainerako zerbitzu guztiak erabil ditzakete, ondoko hauek izan ezik:

– Eguneko zentroa edo eguneko arreta zerbitzua, atsedeen modalitatea.

– Adinekoentzako etxebizitza zerbitzua (etxebizitza komunitarioa), modalitate arrunta zein atsedeen modalitatea.

i) Adinekoentzako etxebizitza batean (etxebizitza komunitarioa) atsedeen zerbitzua jasotzen dutenek adinekoentzako gainerako zerbitzu guztiak jaso ditzakete aldi berean. Adinekoentzako etxebizitza batean (etxebizitza komunitarioa) atsedeen zerbitzua jasotzen hasteak berekin ekarriko du atsedeenaldian ezin jaso izatea ordura arte jasotzen izan diren gainerako zerbitzu guztiak, ondoko kasuan izan ezik: autonomia pertsonala sustatzeko zerbitzuak, etxebizitza zerbitzuaren antzekoak ez badira. Antzekoak ez badira, biak jaso daitezke.

j) Ezintasuna edo adimen gaixotasuna duten pertsonentzako etxebizitza laguntzadun batean atsedeen zerbitzua jasotzen dutenek pertsona horientzako gainerako zerbitzu guztiak jaso ditzakete aldi berean. Atsedeen zerbitzu hori jasotzen hasteak berekin ekarriko du atsedeenaldian ezin jaso izatea ordura arte jasotzen izan diren gainerako zerbitzu guztiak, ondokoak izan ezik: eguneko zentroa edo eguneko arreta zerbitzua (eta behar den kasuetan horretarako etxeko laguntza zerbitzua ere bai) eta autonomia pertsonala sustatzeko zerbitzuak, laguntzadun etxebizitzako zerbitzuaren antzekoak ez badira eta onuradunak atsedeenaldian erabiltzen baditu; horrelakoetan bateragarriak dira.

2. Mendekotasuna baloratzeko baremoaren arabera II. edo III. graduako mendekotasuna aitortuta duten pertsonen irizpide hauek aplikatuko zaizkie foru sareko zerbitzuak bateratzeko:

a) Autonomia pertsonala sustatzeko zerbitzuak zerbitzu guztiekin bateratu daitezke, ondokoekin izan ezik: eguneko zentroa edo eguneko arreta zerbitzua (modalitate arrunta), ezintasuna edo adimen gaixotasuna duten pertsonentzako laguntzadun etxebizitza (modalitate arrunta) eta egoitza zerbitzua edo zentroa (modalitate arrunta), baldin eta zerbitzuok autonomia pertsonala sustatzeko zerbitzuen antzekoak badira.

Autonomia pertsonala sustatzeko zerbitzu batekin batera atsedeen zerbitzua jasotzen bada eguneko zentro batean edo eguneko arretako zerbitzu batean, ezintasuna edo adimen gaixotasuna duten pertsonentzako laguntzadun etxebizitza batean edo egoitza zerbitzu edo zentro batean, zerbitzu hau autonomia pertsonala sustatzeko zerbitzuaren antzekoa bada, azken atsedeen zerbitzua jasotzen den artean etengo da. Zerbitzuak antzekoak ez badira, batera jaso ahal izango dira.

b) Etxez etxeko laguntza zerbitzua zerbitzu guztiekin batera jaso daiteke, ondoko hauekin izan ezik:

– Ezintasuna edo adimen gaixotasuna duten pertsonentzako laguntzadun etxebizitza, modalitate arrunta.

– Egoitza zerbitzua edo zentroa, modalitate arrunta.

Etxez etxeko laguntza zerbitzuarekin batera atsedeen zerbitzua jasotzen bada adinekoentzako egoitza zerbitzu edo zentro batean, hura eten egingo da atsedeen zerbitzua jasotzen den artean.

Etxez etxeko laguntza zerbitzuarekin batera atsedean zerbitzua jasotzen bada ezintasuna edo adimen gaixotasuna duten pertsonentzako laguntzadun etxebizitza batean edo egoitza zerbitzu edo zentro batean, hura eten egingo da atsedean zerbitzua jasotzen den artean, ondoko kasuan izan ezik: onuraduna eguneko zentro batera joaten bada (honelakoetan etxeko laguntza zerbitzua jaso ahal izango da).

c) Eguneko zentroa edo eguneko arreta zerbitzua, modalitate arrunta, zerbitzu guztiekin batera jaso daiteke, ondoko hauekin izan ezik:

- Adinekoentzako gaueko zerbitzua edo zentroa, modalitate arrunta.
- Adinekoentzako egoitza zerbitzua edo zentroa, modalitate arrunta.

Eguneko zentroko zerbitzuarekin edo eguneko arreta zerbitzuarekin batera (modalitate arrunta) atsedean zerbitzua jasotzen bada adinekoentzako egoitza zerbitzu edo zentro batean, hura eten egingo da atsedean zerbitzua jasotzen den artean.

Eguneko zentroko zerbitzuarekin edo eguneko arreta zerbitzuarekin batera (modalitate arrunta) atsedean zerbitzua jasotzeko ezintasuna edo adimen gaixotasuna duten pertsonentzako laguntzadun etxebizitza batean edo ezintasuna edo adimen gaixotasuna duten pertsonentzako egoitza zerbitzu batean ezinbestekoa izango da atsedean eguneko zentroa edo eguneko arretako zerbitzua erabiltzea; hala egin ezean, ezin izango da jaso atsedean zerbitzua.

d) Adinekoentzako gaueko zerbitzua edo zentroarekin batera adinekoentzako gainerako zerbitzu guztiak erabil daitezke, ondoko hauek izan ezik:

- Eguneko zentroa edo eguneko arreta zerbitzua, modalitate arrunta.
- Egoitza zerbitzua edo zentroa, modalitate arrunta.

Adinekoentzako gaueko zentroa edo gaueko zerbitzuarekin batera (modalitate arrunta) atsedean zerbitzua jasotzen bada egoitza zerbitzu edo zentro batean, hura eten egingo da atsedean zerbitzua jasotzen den artean.

e) Ezintasuna edo adimen gaixotasuna duten pertsonentzako laguntzadun etxebizitza, modalitate arrunta, bateraezina da zerbitzu guztiekin, ondoko kasuetan izan ezik:

- Autonomia pertsonala sustatzeko zerbitzuekin batera jaso daiteke, baldin eta bi zerbitzuok antzekoak ez badira.
- Eguneko zentroarekin edo eguneko arreta zerbitzuarekin bateratu daiteke (modalitate arrunta zein atsedena), baldin eta zentroa edo zerbitzua atsedean zehar erabiltzen bada.

f) Egoitza zerbitzua edo zentroa (modalitate arrunta) erabiliz gero, ezin da erabili beste zerbitzurik; salbuespena: ezintasuna edo adimen gaixotasuna duten pertsonak ondoko hauek erabil ditzakete egoitza zerbitzuarekin edo zentroarekin batera:

- Autonomia pertsonala sustatzeko zerbitzuak, baldin eta egoitza zerbitzuak edo zentroak eskatzen duena eta autonomia pertsonala sustatzeko zerbitzuek eskaintzen dutena antzekoak ez badira.
- Eguneko zentroa edo eguneko arreta zerbitzua (modalitate arrunta zein atsedena); atsedean modalitatean ezinbestekoa da zentroa edo zerbitzua atsedean zehar erabiltzea.

g) Atsedean zerbitzua eguneko zentroan edo eguneko arreta zerbitzuan bateragarria da zerbitzu guztiekin, ondoko hauekin izan ezik:

- Adinekoentzako gaueko zerbitzua edo zentroa, atsedean modalitatean.
- Adinekoentzako egoitza zerbitzua edo zentroa, modalitate arrunta zein atsedean modalitatean.

Eguneko zentro batean edo eguneko arreta zerbitzu batean atsedean zerbitzua jasotzen bada, atsedenaldirian ezin jaso izango dira autonomia pertsonala sustatzeko zerbitzuak, ondoko kasuan izan ezik: eguneko zentroan edo eguneko arreta zerbitzuan eskaintzen dena eta autonomia sustatzeko zerbitzuan eskaintzen dena antzekoak ez badira.

h) Adinekoentzako gaueko zentroan edo zerbitzuan atsedean zerbitzua jasotzen dutenek adinekoentzako gainerako zerbitzu guztiak erabil ditzakete, ondoko hauek izan ezik:

- Eguneko zentroa edo eguneko arreta zerbitzua, atsedean modalitatea.
- Egoitza zerbitzua edo zentroa, modalitate arrunta zein atsedean modalitatea.

i) Ezintasuna edo adimen gaixotasuna duten pertsonentzako etxebizitza laguntzadun batean atsedean zerbitzua jasotzen dutenek pertsona horientzako gainerako zerbitzu guztiak jaso ditzakete aldi berean. Atsedean zerbitzu hori jasotzen hasteak berekin ekarriko du atsedenaldirian ezin jaso izatea ordura arte jasotzen izan diren gainerako zerbitzu guztiak, ondokoak izan ezik: eguneko zentroa edo eguneko arreta zerbitzua (eta behar den kasuetan horretarako etxeko laguntza zerbitzua ere bai) eta autonomia pertsonala sustatzeko zerbitzuak, laguntzadun etxebizitzako zerbitzuaren antzekoak ez badira eta onuradunak atsedenaldirian erabiltzen baditu; horrelakoetan bateragarriak dira.

j) Adinekoentzako egoitza zerbitzu edo zentro batean atsedean zerbitzua jasotzen dutenek adinekoentzako gainerako zerbitzu guztiak jaso ditzakete aldi berean. Atsedean zerbitzu hori jasotzen hasteak berekin ekarriko du atsedenaldirian ezin jaso izatea ordura arte jasotzen izan diren gainerako zerbitzu guztiak.

k) Ezintasuna edo adimen gaixotasuna duten pertsonentzako egoitza zerbitzu edo zentro batean atsedean zerbitzua jasotzen dutenek pertsona horientzako gainerako zerbitzu guztiak jaso ditzakete aldi berean. Atsedean zerbitzu hori jasotzen hasteak berekin ekarriko du atsedenaldirian ezin jaso izatea ordura arte jasotzen izan diren gainerako zerbitzu guztiak, ondokoak izan ezik: eguneko zentroa edo eguneko arreta zerbitzua (eta behar den kasuetan horretarako etxeko laguntza zerbitzua ere bai) eta autonomia pertsonala sustatzeko zerbitzuak, egoitza zerbitzuaren antzekoak ez badira eta onuradunak atsedenaldirian erabiltzen baditu; horrelakoetan bateragarriak dira.

3. Zerbitzu guztiak (adinekoentzako etxebizitza zerbitzuak –etxebizitza komunitarioa-, ezintasuna edo adimen gaixotasuna duten pertsonentzako etxebizitza laguntzadunak eta egoitza zerbitzua edo zentroa ez beste guztiak) bateragarriak izango dira Eusko Jaurlaritzak ekintza zuzenaren esparruan ematen duen telelaguntza zerbitzuarekin (zerbitzu honetarako berariaz onartuta Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeko 40.3 artikulua bitartez).

51. artikulua. Onuradun bakoitzak jaso ditzakeen zerbitzuak edo prestazio ekonomikoak mugatzea egokitasunaren arabera

1. Pertsona bat mendekotasunean dagoela aitortuz gero, erreferentziazko profesionalak bere irizpide teknikoaren arabera erabakiko du hark edo beraren senideek edo tutoretza duen erakundeak proposatutako zerbitzu edota prestazio ekonomikoetatik, hain zuzen ere aitortutako mendekotasun graduari dagozkionetatik, zein erabili ahal izango duen, foru dekretu honetako 45. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik eta 47., 48., 49. eta 50. artikuluetan ezarritako bateragarritasunaren eta bateraezintasunaren araubidearen esparruan.

2. Erabakia hartzeko kontuan edukiko da zerbitzu edo prestazio ekonomikoak detektatutako beharriaz erantzuteko egokiak diren, preskripzio teknikoan zehazten denarekin bat etorritik, ondoko elementu hauen arabera:

a) Zerbitzua edo prestazio ekonomikoa behar den laguntzaren intentsitate iristeko nahikoa den edo ez.

b) Zerbitzu edo prestazio ekonomikoa egoera pertsonalari, familiarrari, bizikidetzakoari eta erlazionalari, eta behar denean etxebizitzaren ezaugarriei ere egokia denez.

3. Foru dekretu honetako 63. artikuluan araututako banakako arreta programaren esparruan erabakiko da zein diren zerbitzu edota prestazio ekonomiko egokienak. Programa horretan egokientzat zer zerbitzu eta prestazio ekonomiko jotzen den azalduko da. Zerbitzuak eta prestazioak lehentasun hurrenkeran sailkatu behar da.

Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa ezin da izan lehentasunekoa banakako arreta programan; hala ere, ordeko formula moduan ager daiteke gizarte zerbitzuen foru sareko zerbitzu egokian plazarik ez badago. Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoari ez zaio aplikatuko aurrekoa ondoko kasuetan:

a) Mendekotasuna behin-behinean aitortuta duten 75 urtetik beherako pertsonen kasuetan (foru dekretu honetako 45.5 artikuluan araututako kasuak), zerbitzurik egokiena adinekoentzako etxebizitza zerbitzua (etxebizitza komunitarioa), ezintasuna edo adimen gaixotasuna daukaten pertsonentzako laguntzadun etxebizitza edo egoitza zerbitzu edo zentroa bada, zerbitzuari lotutako prestazioa izango da lehentasuneko baliabidea, aurrean aipatutako artikuluan ezarritako kasuetan izan ezik.

Atsedenerako zerbitzua ematen denean adinekoentzako etxebizitza zerbitzuan (etxebizitza komunitarioa) edo adinekoentzako egoitza zerbitzuan edo zentroan, beti emango da zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa, 45.4 artikuluko azken tartekian ezarritakoarekin bat etorritik, ondoko kasuan izan ezik: gizarte zerbitzuen foru sareko zerbitzu bat egokiagotzat jotzen denean (txosten tekniko baten bidez justifikatu behar da).

52. artikulua. Noiz sortzen den eskubidea

1. Mendekotasuna aitortuta duten pertsonak zerbitzuak eta prestazio ekonomikoak jasotzeko eskubidea daukate; eskubide horrek zerbitzu edota prestazioak aitortzen eta esleitzen dituen ebazpena ematen den egunetik sortuko ditu ondorioak, ebazpenean ezartzen denarekin bat etorritik eta bertako epealdietan (foru dekretu honetako 69. artikulua). Hori guztia bat dator autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legeko azken xedapenetatik leheneko 3. paragrafoan ezarritakoarekin (lege hori aurrekontu egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna bultzatzeko neurriei buruzko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretuak aldatu du).

2. Aurrekoa gorabehera, eskubideak atzeraeraginez sor ditzake ondorioak, hau da, prestazio ekonomikoa aitortzen eta esleitzen duen ebazpenaren data baino lehenagotik, ondoko kasu hauetan:

a) Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa edo zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa aitortzen eta esleitzen duen ebazpena ematen denetik eskatzaileari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik jakinarazpena eman arte 6 hilabete baino gehiago pasatzen badira (69.2 artikuluan prozedura jarraituetarako ezarritako epealdia) edo bi hilabete baino gehiago (artikulu berean prozedura etenetarako ezarritako epealdia). Ebazpenak aurreko epealdiak amaitzen diren egunaren hurrengo egunetik sortuko ditu ondorioak atzeraeraginez, baldin eta onuradunak laguntzaile pertsonala kontratatzen badu, edo zerbitzu edo zentro batean sartzen bada, kasuan kasukoa.

b) Mendekotasuna behin-behinean aitortuta daukan pertsona baten balorazio berria behin-behineko aitopenearen indarraldia amaitu baino lehen egiten ez denean eta arrazoiak eskatzaileari ezin egotzi zaionean 13. artikuluko 5.b) paragrafoan ezarritakoarekin bat etorritik. Halako kasuetan, bidezkoa izanez gero, mendekotasunaren balorazio berriaren ebazpena eman ondoren laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa, zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa edo familia inguruneko zainketetarako eta zaintzaile ez profesionalei laguntzeko prestazio ekonomikoa jasotzeko eskubidea aitortzen duen eta haren zenbatekoa zehazten duen ebazpena eman eta jakinaraziko da. Zenbatekoa mendekotasun graduan gertatutako aldaketaren

araberakoa izango da, hau da, aurreko indarraldikoa bera izan daiteke baina baita gutxiago edo gehiago ere. Ebazpenak atzeraeraginez sortuko ditu ondorioak aurreko aitortzenaren indarraldiko azken egunaren biharamunetik aurrera, baldin eta onuradunak laguntzaile pertsonala kontratatzen bada, zerbitzu edo zentro batean sartzen bada edo jasotzen dituen zainketak moldatzen badira, kasuan kasukoa.

3. Aurreko 1. paragrafoan ezarritakoa gorabehera, ondoko kasuetan eskubideak zerbitzua edo prestazio ekonomikoa aitortzen eta esleitzen duen ebazpena eman ondoren sortuko ditu ondorioak:

a) Mendekotasuna behin-behinean aitortuta daukan pertsona baten balorazio berria behin-behineko aitortzenaren indarraldia amaitu baino lehen egiten ez denean. Horrelakoetan, mendekotasunaren balorazio berriaren ebazpena eman ondoren onuradunak zerbitzua edo prestazio ekonomikoa jasotzen jarraituko du behin-behineko aitortzenaren indarraldia amaitu arte. Egun horretatik aurrera balorazio berriak sortuko ditu ondorioak. Gainera, behar izanez gero, beste ebazpen bat eman beharko da zerbitzuak edota prestazio ekonomikoak esleitzeko, banakako arreta programa berrikusi ondoren, bidezkoa bada.

b) Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa aitortzen duen ebazpena prestazioari lotutako zerbitzua edo zentroa erabiltzen hasi aurretik ematen denean. Kasu horietan ebazpenak onuraduna zerbitzua edo prestazioari lotutako zentroa erabiltzen hasten den egunetik aurrera sortuko ditu ondorioak.

II. KAPITULUA. ADIMEN EZINTASUNA DUTEN PERTSONEN ETA ADIMEN GAIXOTASUN KRONIKOA DUTEN PERTSONEN ESKUBIDEA ZENTRO OKUPAZIONALAK ETA EGUNEKO ZENTROAK ERABILTZEKO

53. artikulua. Eskubidea

1. Ezintasuna kalifikatuta duten pertsonak mendekotasuna aitortu ez badute, gizarte zerbitzuen foru sareko zerbitzu eta zentro okupazionalak eta eguneko zentroak erabil ditzakete ondoko baldintza hauek betez gero:

a) Adimen ezintasuna edukiz gero, gradua ehuneko 33koa edo hortik gorakoa izan behar da.

b) 21 eta 64 urte arteko adina eduki behar dute; salbuespena: ezin badu egon hezkuntza sisteman 21 urtera arte (sistemak egiaztatu behar du).

c) Adimen ezintasuna dela eta lanik egiteko modurik ez edukitzea, ez enplegu babestuko merkatuan, ez lan merkatu arruntean, baina ondokoetako baterako gauza izatea:

– Zentro okupazional batean sartzeko, jarduera okupazional bati onura ateratzeko gauza izatea enplegua lortzeko asmoarekin edo enplegua helburutzat ez daukan eguneko arretako programa baten barruan (organo eskudunak baloratu behar du).

– Eguneko zentro batean sartzeko, eguneko arretako programa bati onura ateratzeko gauza izatea (organo eskudunak baloratu behar du).

Paragrafo honetan araututako eskubidea mendekotasuna aitortuta daukaten adimen ezinduek ere edukiko dute autonomiaren aldeko eta mendekotasunaren arretarako sisteman sartzeko eskubidea eraginkorra ez den artean, foru dekretu honetako lehenengo xedapen iragankorreko bigarren paragrafoan ezarritakoarekin bat etorritik.

2. Mendekotasuna aitortuta ez eduki arren adimen gaixotasuna daukaten pertsonak gizarte zerbitzuen foru sareko zerbitzu eta zentro okupazionalak eta eguneko zentroak erabil ditzakete ondoko baldintza hauek betez gero:

a) Ondokoetako batek diagnostikatutako adimen gaixotasun kronikoa frogatu behar da: Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak, gizarte zerbitzuen foru sareko egoitza zerbitzuetako mediku batek edo Estatuko Administrazio Zibileko Funtzionarioen Mutualitateak (MUFACE), Indar

Armatuen Gizarte Institutuak (ISFAS) edo Epailtzako Mutualitate Orokorra (MUGEJU) beren onuradunentzat hitzartutako osasun zerbitzu batek.

b) Ehuneko 33ko ezintasuna edo hortik gorakoa eduki behar dute, adimen gaixotasun kroniko batek eragina.

c) 21 eta 64 urte arteko adina eduki behar dute; salbuespena: ezin izatea egon hezkuntza sisteman 21 urtera arte (sistemak egiaztatu behar du).

d) Adimen gaixotasun kronikoa dela eta lanik egiteko modurik ez edukitzea, ez enplegu babestuko merkatuan, ez lan merkatu arruntean, baina ondokoetako baterako gauza izatea:

– Zentro okupazional batean sartzeko, jarduera okupazional bati onura ateratzeko gauza izatea enplegua lortzeko asmoarekin edo enplegua helburutzat ez daukan eguneko arretako programa baten barruan (hori arlo eskudunak edo Lanbidek baloratu behar du).

– Eguneko zentro batean sartzeko, eguneko arretako programa bati onura ateratzeko gauza izatea (organo eskudunak baloratu behar du).

Adimen gaixotasuna dutela mendekotasuna aitortuta daukaten pertsonak ere paragrafo honetan araututako eskubidea edukiko dute autonomiaren aldeko eta mendekotasunaren arretarako sisteman sartzeko eskubidea eraginkorra ez den artean, foru dekretu honetako lehenengo xedapen iragankorreko bigarren paragrafoan ezarritakoarekin bat etorritik.

54. artikulua. Onuradun bakoitzak jaso ditzakeen zerbitzuak edo prestazio ekonomikoak mugatzea egokitasunaren arabera

1. Aurreko artikuluan aipatzen diren pertsonak zer erabiliko duten (zerbitzu edo zentro okupazionala edo eguneko zentroa) beraien beharrezanaren arabera ezarriko da, hau da, bakoitzari egokiena esleituko zaio.

2. Aurreko paragrafoan aipatutako egokitasuna erreferentziazko pertsona profesionalaren preskripzio teknikoaren bidez zehaztuko da elementu hauen arabera:

a) Zerbitzua behar den laguntzaren intentsitatera iristeko nahikoa den edo ez.

b) Zerbitzua behar den laguntza emateko eta beste laguntza batzuekin (eguneko arreta edo lan orientazioa) bateratzeko egokia denez.

3. Zerbitzu edo zentro okupazionalaren edo eguneko zentroaren egokitasuna arreta plan pertsonalizatuaren esparruan zehaztuko da foru dekretu honetako 63. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

55. artikulua. Noiz sortzen den eskubidea

Zerbitzu edo zentro okupazionalak eta eguneko zentroa erabiltzeko eskubideak (53. artikulua) kasuan kasuko zerbitzua aitortzen eta esleitzen duen ebazpena ematen den egunetik aurrera sortuko ditu ondorioak, foru dekretu honetako 69. artikuluan ebazpenez ezarritakoarekin bat etorritik.

III. KAPITULUA. ARRETA GOIZTIARREKO ZERBITZUA JASOTZEKO ESKUBIDEA

56. artikulua. Eskubidea

1. Haurrek arreta goiztiarreko zerbitzua jaso dezakete, eta horren bidez bai eta gizarte zerbitzuen foru sareko arreta goiztiarreko zentroak ere, ondoko baldintza hauek betez gero:

a. Garapen nahasmendua eduki behar dute edo halako bat edukitzeko arriskuan egon behar dira (organo eskudunak baloratu behar du), foru dekretu honetako I. tituluko I. kapituluaren ezarritakoarekin bat etorritik.

b. Gehienez 6 urte eduki ditzakete; horretarako ikasturtean zehar zenbat urte betetzen dituzten hartuko da kontuan.

2. Artikulu honetan araututakoa gizarte zerbitzuen foru sareak arreta goiztiarraren esparruan egin behar duen jardunean aplikatuko da; nolahi ere, beharizanen arabera gerta liteke ondoko hauek ere jardun behar izatea: hezkuntza sistemak eta osasun sistemak, arreta goiztiarra interdiziplinarra baita –osasuna, hezkuntza eta gizarte–.

57. artikulua. Onuradun bakoitzak jaso ditzakeen zerbitzuak edo prestazio ekonomikoak mugatzea egokitasunaren arabera

1. Garapen nahasmendua daukan edo horrelakoa edukitzeko arriskuan dagoen haur bakoitzak jasotzen duen arreta goiztiarra beraren beharizanen arabera ezarriko da, hau da, bakoitzari arretarik egokiena esleituko zaio.

2. Aurreko paragrafoan aipatutako egokitasuna erreferentziako pertsona profesionalaren preskripzio teknikoaren bidez zehaztuko da elementu hauen arabera:

a) Zerbitzua behar den laguntzaren intentsitatera iristeko nahikoa den edo ez.

b) Zerbitzua behar den laguntza emateko eta beste laguntza batzuekin bateratzeko egokia denez.

3. Egokitasuna arreta plan pertsonalizatuaren esparruan zehaztuko da foru dekretu honetako 63. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.

58. artikulua. Noiz sortzen den eskubidea

Arreta goiztiarra jasotzeko eskubideak (56. artikulua) haur bakoitzari arreta jakina aitortzen eta esleitzen dion ebazpena ematen den egunetik aurrera sortuko ditu ondorioak, foru dekretu honetako 69. artikuluan ebazpenez ezarritakoarekin bat etorritz.

III. TITULUA. ZERBITZUAK ETA PRESTAZIO EKONOMIKOAK JASOTZEKO PROZEDURA

59. artikulua. Aplikazio eremua

Titulu honetan araututako prozedura ondoko kasuetan aplikatuko da:

a) Mendekotasuna aitortuta daukaten pertsonak (I. tituluko I. kapitulua) Autonomiaren Aldeko eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemako gizarte zerbitzuak eta prestazio ekonomikoak (foru dekretu honetako 45. artikulua) eta gizarte zerbitzuen foru sarekoak jasotzeko aplikatuko da. Nolanahi ere, egokitzen joz gero, 63. artikuluan araututako banakako programazioan beste administrazio publiko batzuek ematen dituzten sistema horretako zerbitzuak sartu ahal izango dira (halakoetan zerbitzu horiek jasotzeko administrazio horiek ezarritako prozedurak aplikatuko dira).

b) Adimen ezintasuna edo adimen gaixotasun kronikoa duten pertsonak (I. tituluko II. kapitulua) gizarte zerbitzuen foru sareak ematen dituen zerbitzu edo zentro okupazionalak eta eguneko zentroak erabiltzeko aplikatuko da, 53. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.

c) Garapen nahasmendua daukaten edo halakoa nahasmendua edukitzeko arriskuan dauden haurrek (I. titulu, III. kapitulua) gizarte zerbitzuen foru sareko arreta goiztiarreko zerbitzua jasotzeko aplikatuko da, 56. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.

60. artikulua. Erreferentziako profesionala

1. Aurreko artikuluko a) eta b) idatz zatietan aipatzen diren pertsonak erreferentziako gizarte langile bat edukiko dute esleituta ofizioz: Vitoria-Gasteizen bizi ez direnek bizi diren tokiko oinarritzko gizarte zerbitzuko edukiko dute eta Vitoria-Gasteizen bizi direnek Gizarte Ongizaterako Foru Erakundekoa.

2. Aurreko artikuluko c) idatz zatian aipatzen diren haurrek erreferentziako profesionala edukiko dute esleituta arreta goiztiarreko zerbitzua nortzuek jaso behar duten zehazteko eskumena daukan talde teknikoan.

I. KAPITULUA. PROZEDURAREN HASIERA

61. artikulua. Banakako programazioa egiteko hitzordua

1. Mendekotasuna aitortuta daukan edo adimen ezintasuna edo adimen gaixotasun kroniko bati lotutako ezintasuna kalifikatuta daukan pertsonaren edo garapen nahasmendua daukan edo halako edukitzeko arriskuan dagoen haurren beharrianei erantzuteko zerbitzurik edota prestazio ekonomikorik egokienak zein diren zehazteko, foru dekretu honetako I. tituluko I., II. edo III. kapituluaren horien aitortzeaz ezarritakoarekin bat etorritik, erreferentziako profesionalarekin hitzartutako hitzordura agertu beharko da, foru dekretu honetako 12.4.c), 23.3 edo 41.3. artikuluan, hurrenez hurren, ezarritakoaren arabera.

2. Bileran erreferentziako profesionalak ondokoak egingo ditu:

a) Pertsonari jakinaraziko dio banakako programazioaren esparruan zerbitzu edota prestazio ekonomiko egokienak zein diren zehaztu ondoren horiek jasotzeko eskubidea izapidetzeko behar diren agiri osagarriak aurkeztu beharko dituela (foru dekretu honetako 62. artikuluan zehaztu dira) banakako arreta programan edo arreta pertsonalizaturako planean ezartzen den egunerako, 63.4.h) artikuluan ezarri den bezala.

b) Banakako programazioa prestatzeko behar diren elkarrizketa guztiak edukiko ditu eskatzailearekin eta behar diren etxeko bisitak ezarriko ditu; behar izanez gero, gauza bera egingo du foru dekretu honetako 2.4, 14.4 eta 32.4 artikuluetan aipatutako pertsonekin ere.

62. artikulua. Dokumentazio osagarria

1. 59. artikuluko a) eta b) idatz zatietan aipatutako kasuetan agiri osagarri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Nortasun Agiri Nazionalaren (NAN) fotokopia; hori eduki ezean, kontuan har daitekeen bizikidetzaren unitateko kideren baten nortasuna egiaztatzen duen agiri ofizial baten fotokopia, prezio publikoak arautzen dituen foru arauan ezarritakoarekin bat etorritik.

b) Autonomiaren Aldeko eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemako zerbitzuak eta prestazio ekonomikoak (foru dekretu honetako 45. artikulua) erabiltzeko behar diren datu osagarriak, diru sarreraren eta ondasunen zinpeko aitortzea barne (eredua 4. eranskinean). Autonomiaren Aldeko eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemakoa ez den zerbitzua edo prestazio ekonomikoa erabiltzeko gizarte zerbitzua jasotzeko eskaera aurkeztu behar da (eredua 5. eranskinean). Batera zein bestera, ezarritako frogagiriak aurkeztu behar dira. Prestazio ekonomikoa jasotzeko izapideak eginez gero, 4. eranskineko eredu normalizatuaz gainera prestazio ekonomikoei buruzko foru arautegian ezartzen diren berriazko datu osagarriak ere aurkeztu behar dira.

c) Titularraren eta kontuaren identifikazio fitxa (eredu normalizatua 13. eranskinean), banketxeak sinatuta eta zigilatuta.

d) Arabako Lurralde Historikoan ez dauden ondasunen titulartasuna egiaztatzen duen dokumentazioa.

e) Prestazioa edo zerbitzua beharriari erantzuteko egokia den zehazteko behar diren gainerako txosten guztiak.

2. Foru dekretu honetako 59. artikuluko c) idatz zatian aipatzen den kasuan, garapen nahasmendua daukan edo halakoa edukitzeko arriskuan dagoen haurrari esleitutako erreferentziako profesionalak gurasoei, tutoreei, familia harreragileei edo egitatezko zaintzaileei eskatutako die gizarte zerbitzuak jasotzeko eskaera aurkezteko (eredu normalizatua 5. eranskinean).

3. Aurreko paragrafoetan aipatutako kasuetan, kasu bakoitzean behar den dokumentazioarekin batera Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari gizarte prestazioak, laguntzak eta zerbitzuak lortzeko, jasotzeko eta mantentzeko legez ezarritakoa betetzeko behar diren datu pertsonalak biltzeko edota emateko emandako baimena aurkeztu behar da, behar den bezala sinatuta (eredu

ofiziala 12. eranskinean). Baimen horren bidez Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak bere kabuz eskuratu ahal izango ditu espedientea bideratzeko behar dituen beste administrazio publikoen datuak eta informazioak. Baimen hori eman ezean, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak eskatzaileari eskatu ahal izango dio berak aurkezteko datu horiek.

Era berean, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak baimen horretaz baliatuta datu pertsonalak transmititu ahal izango dizkie esleitzen diren zerbitzuak ematen dituzten erakundeak. Erakundeak datu pertsonalak Erakundeari itzuli beharko dizkiote onuradunek zerbitzua erabiltzeari utziz gero.

II. KAPITULUA. ESPEDIENTEAREN INSTRUKZIOA

63. artikulua. Banako programazioa

1. Mendekotasuna aitortuta duten pertsonen kasuan (foru dekretu honetako 59.a artikulua) eta adimen ezintasuna edo adimen gaixotasun kronikoa duten pertsonen kasuan (59.b artikulua), erreferentziatzeko pertsona profesionalak 61.2.b) artikuluan aipatutako elkarrizketen eta etxeko bisiten bitartez 51. eta 54. artikuluetan, hurrenez hurren, ezarritako irizpideen arabera zerbitzu edota prestazio ekonomiko egokienak zein diren zehaztuko du bere irizpide teknikoak aplikatuta eta, ahal den heinean, onuradunaren lehentasunak aintzat hartuta.

Hala ere:

– Familia inguruneke zainketetarako eta zaintzaile ez profesionalak laguntzeko prestazio ekonomikoa baliabide egokia dela ebazteko eskumena erreferentziatzeko profesionalak dauka, berak baino ez, aurrekontu egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna bultzatzeko neurriak buruzko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretuko 29.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

– Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa ezin da izan lehentasuneko banakako arreta programan, foru dekretu honetako 51.3 artikuluan arautu den bezala; hala ere, ordezko formula moduan ager daiteke, artikulua horretan salbuespenzat jotako kasuetan izan ezik.

2. Garapen nahasmendua daukaten edo halako nahasmendua edukitzeko arriskuan dauden haurren kasuan (foru dekretu honetako 59.c artikulua), erreferentziatzeko profesionalak arreta plan pertsonalizatua diseinatutako du eta horretarako, ahal dela eta egokia bada, kontuan hartuko ditu gurasoak, tutoreak, familia harreragileak edo egitatezko zaintza dutenak.

3. Egokitzen jotzen diren zerbitzuak edota prestazio ekonomikoak banakako programazioan zehaztu behar dira, bai eta laguntza baliabide bakoitzaren intentsitatearen eta, behar denean, hornikuntzaren antolamenduaren eta koordinazioaren inguruko zehaztasunak ere:

a) Mendekotasuna aitortuta daukan pertsonarentzako programazioaren izendazioa banakako arreta programa izango da, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legeko 29. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

b) Onuradunak adimen ezintasuna edo adimen gaixotasun kronikoa badauka baina mendekotasunaren kalifikaziorik ez, berarentzako programazioa arreta plan pertsonalizatua izango da, gizarte zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeko 19.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

c) Onuraduna garapen nahasmendua daukan edo halako nahasmendua edukitzeko arriskuan dagoen haurra bada, programazioa arreta plan pertsonalizatua izango da, gizarte zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeko 19.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik. Pertsona batek garapen nahasmendurik daukan edo halako nahasmendua edukitzeko arriskuan dagoen jakiteko balorazioaren izapideak egin badira eta, mendekotasuna aitortzeko eskaeraren izapideak egin ondoren (foru dekretu honetako 32.5 artikulua), mendekotasuna aitortu bazaio, banakako programazioa banakako arreta programa baten esparruan egingo da.

4. Banakako programazioan (bai banakako arreta programan, bai arreta plan pertsonalizatuan) ondoko elementu hauek agertu behar dira:

a) Egokitzat jotzen diren baliabideak zehaztu behar dira, eta behar denean haien intentsitatea edota maiztasuna ere bai:

– Mendekotasunean dauden pertsonentzako banakako arreta programetan egokientzat jotzen diren gizarte zerbitzuak edota prestazio ekonomikoak, beraien arteko lehentasun hurrenkera ezarrita. Gizarte zerbitzuen foru sarean plazarik egon ez eta ondorioz onuradunari zerbitzurik egokiena eman ezin bazaio, aldi batez zer prestazio ekonomiko jasoko duen zehaztu behar da, artikuluko honetako 1. paragrafoko azken tartekian (51.3 artikuluaekin lotua) aurreikusitakoaren arabera.

– Adimen ezintasuna edo adimen gaixotasun kronikoa duten pertsonentzako arreta plan pertsonalizatueta pertsona zentro okupazional batean edo eguneko zentro batean egon behar denez zehaztu behar da.

– Garapen nahasmendua daukate edo halako nahasmendua edukitzeko arriskuan dauden haurrentzako arreta plan pertsonalizatueta arreta goiztiarreko jarduketarik egokienak zehaztu behar dira.

b) Banakako programazioa ezartzen bada baliabiderik egokiena adinekoentzako etxebizitza zerbitzua (etxebizitza komunitarioa), ezintasuna edo adimen gaixotasuna daukaten pertsonentzako laguntzadun etxebizitza edo egoitza zerbitzua edo zentroa dela, lehentasuneko udalerrria zein den zehaztu behar da.

Ezin izango da adierazi lehentasuneko zentrorik, ondoko kasu hauetan izan ezik:

– zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa esleituz gero;

– pertsona eskatzailearen ezkontidea, edo berarekin ezkontzaren antzeko lotura baten bidez lotuta dagoen pertsona (lotura frogatu behar da), gizarte zerbitzuen foru sareko zentro batean bizi bada;

– eskatzailearen senide bat, guraso bat edo seme edo alaba bat gizarte zerbitzuen foru sareko zentro batean bizi izanez gero, baldin eta hura zentroan sartu aurretik elkarrekin bizi izan badira.

c) Zerbitzuaren edo prestazio ekonomikoaren onuradunaren baimena, berariazkoa eta dokumentatua, artikuluko honetako 5. artikuluan ezarri den bezala.

d) Noiz berrikusiko den banakako arreta programa edo arreta plan pertsonalizatua.

e) Erreferentziako profesionalaren izena.

f) Erreferentziako profesionalaren sinadura, bai eta onuradunarena edo haren ordezkaria-rena ere. Banakako programazioaren ezarritakoarekin bat ez badator, horren berri eman behar da.

g) Banakako programazioa tekniko dela adierazi behar da, eta berariaz argitu behar da programazioa ezartzeak ez dakarrela berekin egokitzat jotako zerbitzuak edota prestazio ekonomikoak jasotzeko eskubidearen aitortpena.

h) Noiz arteko epealdia dagoen dokumentazio osagarria (62. artikulua) aurkezteko. Erabiltzaileak gutxienez 10 egun naturaleko epealdia eduki behar du horretarako banakako programazioaren datatik aurrera.

i) Banakako programazioaren data.

5. Zerbitzua edo prestazio ekonomikoa jasoko duen pertsonak berariaz eta dokumentaturik eman behar du aurreko paragrafoko c) idatz zatian araututako baimena, eta baliozkotasun juridikoarekin. Bestela ondoko hauek eman dezakete baimena:

- a) Interesdunaren gaineko guraso agintea edo tutoretza dutenek.
- b) Interesdunaren legezko ordezkariak daukanak.

Aurrekoa gorabehera, modu objektiboan eta arrazoituta ondorioztatzen bada eskatzailea ez dela gauza baliozko baimena eta horrez gainera ez badauka formalki esleituta ordezkariak, aurreko paragrafoa a) eta b) idatz zatietan ezarritakoaren arabera, egitatezko zaintza daukanak aurkeztutako eskaera onartu ahal izango da, Prozedura Zibilari buruzko urtarrilaren 7ko 1/2000 Legean xedatutakoarekin bat etorritik.

Nolanahi ere, eskatzaileak egoitza zentro batean edo etxebizitza zerbitzu batean sartu nahi badu eta ez bada gauza baliozko baimena emateko, halako kasuetarako Prozedura Zibilari buruzko urtarrilaren 7ko 1/2000 Legean epailearen baimena behar izateaz ezarritakoa aplikatuko da, bai eta jurisprudentzian horren inguruan egindako interpretazioa eta, behar denean, foru dekretu hau garatzen duen araudian arlo honetaz xedatutakoa ere bai; beraz, programazioa Estatuko arautegian eta jurisprudentzia ezarritakora moldatu beharko da.

64. artikulua. Dokumentazio osagarria ematea eta gero egiaztatzea eta zuzentzea

1. Eskatzaileak, edo legezko ordezkariak edo haren egitatezko zaintza daukanak 63.4.h) artikuluan ezarritako egunerako aurkeztu behar du dokumentazio osagarria.

2. Dokumentazioa osorik aurkezten ez bada, oinarrizko gizarte zerbitzuak edo Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak, kasuan kasukoak, idatzizko jakinarazpen bidez eskatzaileari eskatuko dio akatsa zuzentzeko jakinarazpena jasotzen duenetik 10 egun baliodun pasatu baino lehen.

3. Aurreko paragrafoa errekerimenduan berariaz azalduko da:

a) Epealdi horretan akatsak zuzentzen ez badira, eskatzaileak zerbitzuak edota prestazio ekonomikoak jasotzeko eskaeran atzera egin duela pentsatuko da eta hura beste izapiderik gabe artxibatuko da Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak berariazko ebazpena eman ondoren.

b) Agiriren batean datu faltsurik ematea edo eman beharreko daturen bat faltatzea nahikoa izango da zerbitzuak edota prestazio ekonomikoak jasotzeko eskaera ez onartzeko.

4. Artikulu honetan dokumentazio osagarriaz ezarritakoa gorabehera, prozeduraren edozein unetan oinarrizko gizarte zerbitzuak zein Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak, kasuan kasukoak, informazio eta agiri gehiago eskatu ahal izango dizkiote eskatzaileari espedientea ebazteko. Eskatzaileak 10 egun balioduneko epealdia edukiko du eskatutakoa aurkezteko jakinarazpena jasotzen duenetik aurrera.

10 egun balioduneko epealdian eskatzaileak eskatutako guztia aurkezten ez badu, eskaeran atzera egin duela pentsatuko da eta hura beste izapiderik egin gabe artxibatuko da Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak berariazko ebazpena eman ondoren. Nolanahi ere, eskatzaileak beste prozedura bati ekin ahal izango dio.

65. artikulua. Espedientea gainbegiratzea

2. Mendekotasuna aitortuta duen pertsona batentzako banakako arreta programa edo adimen ezintasuna edo adimen gaixotasun kronikoa edukita mendekotasunaren ez dagoen pertsona batentzako arreta plan pertsonalizatua egin ondoren erreferentziako profesionalak espediente osoa bidaliko du Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen gizartegintzaren arloko eskumena daukan arloko zuzendariorde teknikorak gainbegiratu dezan.

Zuzendariorde horrek dokumentazioa osorik dagoen, espedientea ondo izapidetu den eta eskatzaileak eskubidea edukitzeko betekizunak betetzen diren egiaztatuko du:

a) Erabakitzen badu dokumentazioa ez dagoela osorik edo espedientea gaizki izapidetu duela, espedientea erreferentziako profesionalari itzuliko dio eta espedientea zuzentzeko zer aldatu behar den jakinaraziko dio.

b) Eskatzaileak eskubidea edukitzeko ezarritako betekizunak ez dituela betetzen erabakitzen badu, eskaera ukatzeko ebazpenaren proposamena bidaliko dio Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Zuzendaritza-Kudeatzailetzari.

c) Espedientea izapidetzeko ontzat ematen badu eta uste badu eskatzaileak eskubidea edukitzeko betekizunak betetzen dituela, arlo eskuduneko zuzendariordetza teknikora bidaliko du, espedientearen balorazio ekonomikoa egiteko (balorazio hori foru dekretu honetako 66. artikuluan arautu da).

3. Garapen nahasmendua daukan edo halako nahasmendua edukitzeko arriskuan dagoen haur batentzako arreta plan pertsonalizatua egin ondoren arreta goiztiarraren esparruan baloratzeko eskumena daukan organoko erreferentziazko profesionalak zerbitzu hori emateko eskumena daukan arloko zuzendariordetzari jakinaraziko dio:

a) Zuzendariordetza tekniko horrek uste badu proposatutako banakako arreta programan edo arreta plan pertsonalizatuan zerbait aldatu behar dela, egokitzat jotzen dituen aldaketak jakinaraziko dizkio hura bidali duen erreferentziazko profesionalari, aldaketak egin ditzan.

b) Zuzendariordetza teknikoak ontzat ematen badu proposatutako banakako arreta programa edo arreta plan pertsonalizatua, arlo eskuduneko zuzendariordetza tekniko eskudunari bidaliko dio espedientearen balorazio ekonomikoa egiteko (balorazio hori foru dekretu honetako 66. artikuluan arautu da).

4. Prozeduraren fase honetan eskatzaileak berariaz uko egiten badio banakako arreta programan edo arreta plan pertsonalizatuan ezarritako zerbitzuak edota prestazio ekonomikoa jasotzeko eskubideari, espedientea artxibatuko da Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak berariazko ebazpena eman ondoren.

66. artikulua. Espedientearen balorazio ekonomikoa

1. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen analisi ekonomikoa egiteko eskumena daukan arloko zuzendariordetza teknikoak espedientearen balorazio ekonomikoa egingo du xede haue-tarako:

a) Gizarte zerbitzuak erabiltzeko lehentasun hurrenkera ezartzea mendekotasun edo ezintasu-n gradu bera aitortuta daukaten pertsonen artean.

b) Onuradunak prezio publikoa ezarrita daukan zerbitzua jasotzen badu, haren finantzaketan zenbat dagokion zehaztea; bestela, prestazio ekonomikoa jasotzen badu, zenbatekoa zehaztea.

2. Balorazio ekonomikoa egiteko irizpideak Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak ematen dituen zerbitzuen prezio publikoei buruzko foru arautegian ezarri dira.

Irizpide horiek aplikatuta eskatzaile bakoitzari beraren puntuazioa esleituko zaio eta horren arabera, behar izanez gero, gizarte zerbitzuak esleitzeko lehentasunen hurrenkera (artikulu honetako 1.a paragrafoan aipatutakoa) ezarriko da.

3. Gainera, espedientearen balorazio ekonomikoa egiteko eskumena daukan arloko zuzendariordetzak egiaztatuko du eskatzaileak Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearekin zorrik daukanez egiaztapena egin aurretik erabilitako zerbitzuen prezio publikoak edo egiaztapena egitean erabiltzen ari den zerbitzuenak ez ordaintzeagatik edo Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak gaizki egindako ordaintzen ondorioz edo okerreko zenbatekoa ordaintzeagatik.

4. Zorrik badauka, honela jokatu da:

a) Zorra Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen prestazioa bide ez duela jasotzeagatik edo Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak okerreko zenbatekoa ordaintzeagatik sortu bada, prestazio ekonomikoei buruzko foru arautegian horrelako kopuruak itzultzeko ezarritako prozedura jarriko da abian.

b) Zorra ordaindu beharrekoaren zati bat geroratu ezin den zerbitzuen prezio publikoak ez ordaintzeagatik sortu bada –Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak ematen dituen zerbitzuen prezio publikoei buruzko foru arautegian ezarritakoarekin bat etorriz–, eskatzaileari errekerimendua bidaliko zaio zor duena ordaintzeko 30 egun naturaleko epealdian edo, bestela, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari zorraren ordainketa zatikatzeko eskatzeko, prezio publikoei buruzko foru arautegian ezarritakoarekin bat etorriz.

c) Zorra ordaindu beharrekoaren zati bat geroratu ahal den zerbitzu batek eragin badu, prezio publikoei buruzko foru arautegian ezarritakoarekin bat etorriz, eskatzaileari errekerimendua bidaliko zaio ondokoa egin dezan:

– Sortutako zorra, geroratu daitekeen prezio publikoaren zatiari dagokiona, zerbitzuagatik ordaindu beharreko prezio publikoaren zati bat geroratuta sortzen den zorrarekin metatu.

– Behar den kasuetan, sortutako zorra, geroratu ezin den prezio publikoaren zatiari dagokiona, aurreko puntuan aipatutako zor geroratuarekin metatu.

Idatz zati honetan araututako kasuetan zorraren metaketaren berri ezarri behar da zerbitzua dela eta formalizatzen den zorra aitortzeko agirian, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak ematen dituen zerbitzuen prezio publikoei buruzko foru arautegian ezarritakoarekin bat etorriz.

Gainera, paragrafo honetan aipatzen diren kasuetan Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak bermeak eskatu ahal izango ditu; horretarako prezio publikoei buruzko foru arautegian halako bermeez ezarritakoa bete beharko da.

5. Eskatzaileak zorrik badauka prezio publikoak ez ordaintzeagatik edo Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak bidegabeko zenbatekoak ordaintzeagatik, edo zorrak eduki baditu eta aurreko paragrafoan azaldutako bideetatik kasuari dagokionaren bidez ordaindu baditu, balorazio ekonomikoa egiteko eskumena daukan arloko zuzendariordetzak txosten ekonomikoa egingo du eta espedientea zerbitzuaren gaineko eskumena daukan arloari bidaliko dio.

Eskatzaileak zorrik badauka prezio publikoak ez ordaintzeagatik edo Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak bidegabeko zenbatekoak ordaintzeagatik eta ez badu erabiltzen artikuluko honetako 4. paragrafoan azaldutakoetatik kasuari dagokion ordainbidea, eskaeran atzera egin duela pentsatuko da eta beste izapiderik egin gabe artxibatuko da Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak berriazko ebazpena, balorazio ekonomikoa egiteko eskumena daukan arloko zuzendariordetzak proposatua, eman ondoren. Hala ere, eskatzaileak gero zorra ordaindu ahal izango du eta beste prozedura bat abiarazi.

67. artikulua. Espedientearen analisi teknikoa

1. Mendekotasuna aitortuta daukaten pertsonen eta mendekotasunean ez egon arren adimen ezintasuna edo adimen gaixotasun kronikoa daukaten pertsonen espedienteen kasuan, aurreko artikuluan ezarritakoaren arabera espedientea bidali zaion arlo eskuduneko zuzendariordetzak espedientearen analisi teknikoa egingo du. Analisi horren arabera ondokoak zehaztuko dira:

a) Banakako arreta programan ezarritako zerbitzuak edota prestazio ekonomikoak edo arreta plan pertsonalizatuan ezarritako zerbitzuak egokiak diren edo ez.

b) Esleitutako zerbitzua hainbat modalitatetan ematen bada, zer modalitate den egokiena eskatzailearen beharrezararako.

c) Behar denean, zerbitzuaren intentsitatea eta maiztasuna.

d) Behar denean, zerbitzua emateko zentrorik egokiena zein den.

Horretarako Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak arlo bakoitzean beharrezkotzat jotzen dituen balorazio eta orientazio batzordeak sortu ahal izango ditu eskaerak irizpide teknikoen eta, behar denean, ezarritako baremoen arabera ebaluatzeko.

2. Garapen nahasmendua daukaten edo halako nahasmendua edukitzeko arriskuan dauden haurren espedienteen kasuan, ezintasuna duten pertsonen arretarako eskumena daukan arloko zuzendariordetza teknikoak egingo du espedientearen analisi teknikoa. Honek planean ezarritako jarduketak programatuko ditu eta ondoko hauek zehaztu beharko ditu:

a) Nolako jarduketak egingo diren: psikomotrizitatea, psikoterapia, fisioterapia, logopedia, gizarte lana.

b) Zer arlotan jardungo den: haurra, familia, eskola, ingurunea:

c) Jarduketan maiztasuna, iraupena eta ordutegia.

d) Jarduketak arreta goiztiarreko zer zentrotan egingo diren.

III. KAPITULUA. PROZEDURAREN AMAIERA

68. artikulua. Ebazpen proposamena

1. Kasu bakoitzean banakako arreta programan edo arreta plan pertsonalizatuan esleitutako zerbitzua edo prestazio ekonomikoa emateko eskumena daukan arloko zuzendariordetza teknikoak ebazpen proposamena egingo du eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Zuzendaritza-Kudeatzailetzari bidaliko dio.

2. Ebazpen proposamenean ondoko alderdiei buruzko irizpenak emango dira:

a) Behar denean, banakako arreta programan edo arreta plan pertsonalizatuan ezarritako gizarte zerbitzuaren zer modalitate den egokiena eskatzailearen beharrianak asetzeko; horrez gainera zer zerbitzu intentsitate behar den prestazio ekonomikoa zenbatekoa izan behar den ere zehaztu behar da.

b) Baliabidea zentro batean ematen den zerbitzua bada eta ezarritako modalitatean plazarik badago, ebazpen proposamenean plaza zer zentrotan dagoen zehaztu behar da, eta baldintza ekonomikoak finkatu behar dira eta, ahal dela, zerbitzua zer egunetan hasiko den jasotzen ere bai. Aurrekoa ez da aplikatuko 51.3 artikuluan ezarritakoaren arabera zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa banakako programazioko lehentasuneko baliabidea denean.

c) Baliabidea zentro batean ematen den zerbitzua bada baina ez badago plazarik esleitutako modalitatean, ebazpen proposamenean ondokoak zehaztu behar dira:

– Adierazi behar da eskatzailea Plazak Kudeatzeko Programan sartuko dela, eta zenbat puntu lortu dituen zehaztu behar da foru dekretu honetako 79. artikuluan ezarritakoaren arabera.

– Banakako arreta programan zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa ezartzen bada aldi batez jasotzeko hautatutako zerbitzua erabiltzerik ez dagoenean, ebazpen proposamenean zehaztu behar da gizarte zerbitzuen foru saretik kanpoko zer zentrori lotuko zaion prestazioa, prestazioa noiz hasiko den eta zenbatekoa izango den.

d) Banakako arreta programan familiakoak zaintzeko eta zaintzaile ez profesionalei laguntzeko prestazio ekonomikoa edo laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa ezartzen bada, ebazpen proposamenean zenbatekoa finkatu behar da eta prestazioa noiz hasiko den jasotzen zehaztu.

e) Ebazpen proposamenean adierazi behar da zerbitzua edota prestazio ekonomikoa jasotzeko eskubidea behin betiko edo behin-behinean aitortzen den; behin-behinean aitortzen bada, aitortpenaren indarraldia zehaztu behar da.

3. Halaber, ebazpen proposamenean adierazi behar da zerbitzua edo prestazio ekonomikoa jasotzeko eskubidea aitortzeak berekin dakarrela eskatzaileak (eta behar denean beraren legezko ordezkariak edo beraren egitatezko zaintza daukanak ere bai) Gizarte Ongizaterako Foru Aldundiari 15 egun natural pasatu baino lehen jakinarazi behar izatea aitortpenean eragina izan lezaketen aldaketa guztiak.

4. Adingabe baten egitatezko zaintza daukan pertsonak foru dekretu honetako 2.4 c), 14.4 c) eta 32.4 d) artikuluetan ezarritakoaren arabera familia harrera erabat formalizatu arte haren prozedurarekin jarraitu beharra onartzen badu, ebazpen proposamenean adieraziko da harrera aurreko artikuluetan aipatutako eskaera aurkezten denetik 6 hilabete pasatu baino lehen gauzatzen ez bada, familiakoak zaintzeko eta zaintzaile ez profesionali laguntzeko prestazio ekonomikoa jasotzeko eskubidea amaituko dela, 75.1.f) artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

69. artikulua. Ebazpena

1. Ebazpena Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Zuzendaritza-Kudeatzaileak emango du.

2. Mendekotasuna aitortuta daukaten pertsonen kasuan, zerbitzuak edota prestazio ekonomikoak jasotzeko ebazpena aitortenaren ebazpena eman denetik hiru hilabete eta erdi pasatu baino lehen eman behar, bai eta eskatzaileari horren jakinarazpena bidali ere, foru dekretu honetako 7.2 artikuluko azken tartekian ezarritakoa gorabehera.

Ebazpena emateko, gainera, 6 hileko gehieneko epealdia errespetatu beharko da, mendekotasun egoera aitortzeko eskaera aurkeztu den egunetik zenbatuta. Epealdi hori prozedura jarraituetan aplikatuko da, hain zuzen ere gizarte zerbitzuak edo prestazio ekonomikoak jasotzeko prozedura mendekotasuna aitortzeko prozedura amaitu ondoren egiten denean. Aurreko epealdia zenbatzeko, mendekotasuna aitortzeko eskaera aurkeztutako horrelako azkena izango da, ez lehenengoa.

Prozedura etenetan, ebazpena dokumentazio osagarria, foru dekretu honetako 64.1 artikuluan aipatzen dena, aurkezten denetik bi hilabete pasatu baino lehen eman behar da, bai eta ebazpenaren jakinarazpena bidali ere. Hori dela eta, prozedura etentzat joko da baldin eta mendekotasunaren aitortpena jakinarazten denetik 64.1 artikuluan aipatutako dokumentazio osagarria aurkeztu arte bi hilabete, gutxienez, pasatzen badira eta arrazoia eskatzaileari egotzi ahal bazaio.

3. Adimen ezintasuna edo adimen gaixotasun kronikoa daukaten pertsonak zentro okupazional batean edo eguneko zentro plaza eskatzen badute, ebazpena dokumentazio osagarria, foru dekretu honetako 64.1 artikuluan aipatzen dena, aurkezten denetik bi hilabete pasatu baino lehen eman behar da, bai eta eskatzaileari ebazpenaren jakinarazpena bidali ere.

4. Garapen nahasmendua daukan edo halako nahasmendua edukitzeko arriskuan dagoen haur batek arreta goiztiarreko zerbitzua jasotzeko eskaera aurkezten badu, ebazpena foru dekretu honetako 64.1 artikuluan aipatutako dokumentazio osagarria aurkezten denetik bi hilabete pasatu baino lehen eman behar da, bai eta eskatzaileari ebazpenaren jakinarazpena bidali ere.

5. Artikulu honetan ezarritako epealdiak zenbatzeko ez da kontuan eduki behar eskatzaileari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik espedientearen geldituta dagoen denbora. Izapideetan horrela gertatzen diren atzerapenak idatziz azaldu behar dira. Aurrekoa ezin izango da aplikatu artikulu honetako bigarren paragrafoko azken tartekian azalduetako kasuan.

6. Ebazpenean arrazoiak azaldu behar dira eta aurreko artikuluko 2. eta 3. paragrafoan aipatutako alderdiak erabaki behar dira, eta behar den kasuetan 4. paragrafoak ere bai.

70. artikulua. Eskaeran atzera egitea eta eman ondoren uko egitea

1. Ebazpena eman baino lehen, prozeduraren edozein fasetan eskatzaileak edo beraren legezko ordezkariak edo egitatezko zaintza daukanak eskaeran atzera egin dezake berariaz.

Halaber, titulu honetan araututakoari dagokionez, baldin eta eskatzailea zerbitzua edo prestazio ekonomikoa onartzen duen ebazpena eman baino lehen hiltzen bada, prozedura amaituzat joko da eskatzaileak berak eskaeran atzera egiten duenean bezala. Nolanahi ere, eskatzailea mendekotasunean egonez gero, zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa edo laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa jasotzeko eskubidea onartzen duen ebazpena

69.2 artikuluan aipatutako 6 hileko gehieneko epealdia (prozedura jarraitua) edo 2 hileko gehieneko epealdia (prozedura etena) amaitutakoan eman ez gero, bidezko zenbatekoak ordaindu beharko dira, baldin eta laguntzaile pertsonala kontratatu bada edo onuraduna zentro batean sartu bada (kasuan kasukoa).

Gainera, titulu honetan araututakoa dela eta, eskatzaileak edo beraren legezko ordezkariak edo egitatezko zaintza daukanak dokumentazioa aurkezten ez badu edo administrazio espedientearen izapidetzea eragozten badu zerbitzua edo prestazio ekonomikoa onartzen den ebazpena eman aurretik, prozedura amaituzat joko da eskatzaileak berak eskaeran atzera egiten duenean bezala.

2. Era berean, zerbitzu edo prestazio ekonomiko bat jasotzeko eskubidea daukan pertsonak edo beraren legezko ordezkariak edo egitatezko zaintza daukanak uko egin ahal izango die ebazpenean onartutako eskubideei.

3. Artikulu honetan araututakoaren arabera eskaeran berariaz atzera egin nahi izanez gero edo eskubide bati uko egin nahi izanez gero, horren berri ematen duen idazkia bidali behar zaio Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari edo bestela bertara joan behar da legitimatutako pertsona. Legitimatutako pertsona bertaratzen bada, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak behar den eginbidea egingo du eta interesdunak sinatu egin beharko du.

4. Eskaeran atzera egitea edo eskubideari uko egitea formalizatutakoan eskaera artxibatuko da eta espedientearen amaituzat joko da Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen berariazko ebazpenaren bidez.

IV. KAPITULUA. PRESAZKO PROZEDURA

71. artikulua. Presazko prozedura

1. Eskatzaile batek mendekotasuna aitortuta badauka, ezintasuna kalifikatuta badauka edo garapen nahasmendua daukala edo halako nahasmendua edukitzeko arriskuan dagoela baloratu bada:

a) Arreta premia handiarekin jaso behar badu, berarentzat egokiena den zerbitzuaren eskumena daukan arloko zuzendariordetza teknikoak justifikazio txostena egingo du eta gero Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak zerbitzu hori esleitu ahal izango dio salbuespen gisa ebazpen arrazoitu baten bidez. Honelako prozeduretako izapideek lehentasuna edukiko dute besteen aldean.

b) Presazko espediente hauek 64.1 artikuluan aipatutako dokumentazio osagarria aurkezten denetik hamabost egun baliodun pasatu baino lehen izapidetu, ebatzi eta jakinaraziko dira.

c) Honelako kasuetan zerbitzuaren esleipena behin-behinekoa izango da eta ez du iraungo hiru hilabete baino luzeago. Mendekotasunean dagoen pertsonak presazko prozeduraren bidez eskatzen duena egoitza zerbitzua edo zentroa, adinekoentzako etxebizitza zerbitzua (etxebizitza komunitarioa) edo ezintasuna edo adimen gaixotasuna duten pertsonentzako laguntzadun etxebizitza bada, gizarte zerbitzuen foru sareko plaza baten ordezkari lotutako prestazio ekonomikoa jasotzeko eskubidea aitortuko zaio, ondoko kasu hauetan izan ezik:

– Baldin eta, gizarte zerbitzuen foru sarean plazaren bat hutsik egonik, ez badago inor egoitzetan, etxebizitza zerbitzuetan eta laguntzadun etxebizitzetan plaza eskuratzeko itxaron zerrendan plaza hori dagoen udalerrira lehentasunekoztat jo duenik.

– Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoaren bidez zerbitzuak emateko akreditatutako sare pribatuko zentroak ez badira egokiak erabiltzailearen berariazko beharrazanei erantzuteko (bidezko arloko zuzendariordetza txosten batean adierazi behar du).

Kasu horietan pertsonak behin-behinean eskuratuko du gizarte zerbitzuen foru sareko plaza.

2. Foru dekretu honetako 44.1.a) artikuluan araututako salbuespen kasuetarako ezarritakoa aplikatzeko, aurreko paragrafoko b) eta c) idatz zatietan ezarritakoa arreta premia handiarekin jaso behar duten pertsonen kasuetan aplikatuko dira nahiz eta premia agertu aurretik mende-kotasuna, ezintasuna edo garapen nahasmendua aitortzeko eskaera ez aurkeztu; honelakoetan eskaera aurkeztu beharko da zerbitzua jasotzen hasi baino lehen.

Honelako kasuetan foru dekretu honetako 12.2, 23.2 eta 41.2 artikuluetan aipatzen diren epealdiak hamabost egun baliodunekoak izango dira.

V. KAPITULUA. ESKUBIDEA BERRIKUSTEA, ALDATZEA, ETETEA ETA AZKENTZEA

72. artikulua. Berrikuspena

1. Titulu honetan araututako prozeduraren bidez aitortzen diren gizarte zerbitzuak eta prestazio ekonomikoak ondoko kasuetan berrikusi ahal izango dira:

a) Gizarte zerbitzua edo prestazio ekonomikoa jasotzeko ezarritako betekizunetan aldaketaren bat gertatzen bada.

b) Titularraren ahalmen ekonomikoa aldatzen bada.

c) Titularraren beharrizanen edo egoera pertsonalaren edota familiako egoeraren bilakaera dela eta zerbitzua aldatzea komeni bada.

2. Berrikuspena ofizioz zein alderdi batek eskatuta egin daiteke.

3. Berrikuspenetan zerbitzuaren edota prestazio ekonomikoaren titularrari edo beraren legezko ordezkariari edo egitatezko zaintza daukan pertsonari eskatu ahal izango zaio haiek jasotzeko eskubidea edukitzeko ezarritako betekizunak betetzen direla frogatzeko behar diren agiriak aurkezteko.

4. Berrikuspeneko espedienteak izapidetzeko eta ebazteko prozedura titulu honetako II. eta III. kapituluetan zerbitzuak eta prestazio ekonomikoak erabiltzeko ezarritako prozedura izango da, salbuespen honekin: banakako arreta programazioa eta espedientearen gainbegiratzea onuradunak jasotzen duen zerbitzuaren edo prestazio ekonomikoaren arabera eskumena daukan arloaren egitekoak izango dira.

5. Artikulu honetan araututako berrikuspenaren bidez aitortutako eskubidea aldatu, eten edo azkendu ahal izango da kapitulu honetan ezarritakoarekin bat etorritik. Horrez gainera plazak kudeatzeko programako plaza hutsak esleitzeko zerrendako lekua ere aldatu ahal izango da.

73. artikulua. Eskubidea aldatzea

Aitortutako gizarte zerbitzuen eta prestazio ekonomikoen modalitatea edo intentsitatea aldatu daiteke titularraren beharrezararako edo egoera pertsonalerako edota familia egoerarako egokitzat jotzen bada. Kasu horietan berrikuspenaren bidez banakako arreta programa edo arreta plan pertsonalizatua aldatuko da, kasuan kasukoa.

74. artikulua. Eskubidea etetea

1. Pertsonak aitortuta daukan gizarte zerbitzuak eta prestazio ekonomikoak jasotzeko eskubidea ondoko kasu hauetan etengo da (etendura noiz hasiko den ondorioak sortzen zehaztuko da):

a) Atsedeen zerbitzua erabiltzeagatik, hain zuzen ere adinekoentzako etxebizitza zerbitzua (etxebizitza komunitarioa), adimen ezintasuna edo gaixotasuna duten pertsonentzako laguntzadun etxebizitza, edo egoitza zerbitzua edo zentroa, bai gizarte zerbitzuen foru sarearen barruan, bai horretatik kanpo dauden zerbitzu pribatuak, zerbitzuari lotutako prestazio ekonomiko baten bidez erabiltzen direnak (atseden modalitatea). Horrelakoetan etendurak atsedeen zerbitzua erabiltzen den lehen egunetik aurrera sortuko ditu ondorioak.

Adimen ezintasuna edo adimen gaixotasun kronikoa daukaten pertsonen kasuan, laguntzadun etxebizitzan edo egoitza zerbitzuan edo zentroan atsedeen zerbitzua jasotzen

hasteak ez du ekarriko berekin eguneko zentroa edo eguneko arreta zerbitzua (are modalitate okupazionala ere), aurrekoa erabiltzeko behar den etxeko laguntza edota autonomia sustatzeko zerbitzuak jasotzeko eskubidea, baldin eta laguntzadun etxebizitzako zerbitzuaren antzekoak ez badira eta onuradunak atsedendian erabiltzen baditu.

Adinekoen kasuan, atsedeen zerbitzua erabiltzen bada etxebizitza zerbitzuan (etxebizitza komunitarioa), horrek ez du ekarriko autonomia sustatzeko zerbitzuak erabiltzeko eskubidea etetea, baldin eta etxebizitza zerbitzuak eskaintzen dituen baliabideak beste zerbitzuen antzekoak ez badira eta onuradunak atsedendian erabiltzen baditu.

b) Atsedeen zerbitzua erabiltzeagatik eguneko zentro batean edo eguneko arreta zerbitzu batean, bai gizarte zerbitzuen foru sarearen barruan, bai horretatik kanpo dauden zerbitzu pribatuak, zerbitzuari lotutako prestazio ekonomiko baten bidez erabiltzen direnak (atseden modalitatea), autonomia pertsonala sustatzeko zerbitzuen kasuan, baldin eta atsedeen zerbitzuak eskaintzen dituen baliabideak beste zerbitzuen antzekoak badira. Horrelakoetan etendurak atsedeen zerbitzua erabiltzen den lehen egunetik aurrera sortuko ditu ondorioak.

c) Autonomia pertsonala sustatzeko zerbitzuak eta etxeko laguntza zerbitzua jasotzeko eskubidea erabiltzaileak berak edo beraren ordezkariak eskatuta etengo da. Horrelakoetan etendurak eskaeran ezartzen den egunetik aurrera sortuko ditu ondorioak.

d) Eguneko zentroa edo eguneko arreta zerbitzua, adinekoentzako gaueko zerbitzua edo zentroa, adinekoentzako etxebizitza zerbitzua (etxebizitza komunitarioa), adimen ezintasuna edo adimen gaixotasuna daukaten pertsonentzako etxebizitza laguntzaduna eta egoitza zerbitzua edo zentroa erabiltzeko eskubidea erabiltzaileak berak edo beraren ordezkariak eskatuta etengo da, baldin eta etenduraren helburua erabiltzailearen integrazio sozio-familiarra bada. Horrelakoetan etendurak eskaeran ezartzen den egunetik aurrera sortuko ditu ondorioak.

e) Ospitalean sartzeagatik:

– Autonomia pertsonala sustatzeko zerbitzuen onuradunak eta etxeko laguntza zerbitzuarenak ospitalean sartuz gero, etendurak lehenengo egunetik sortuko ditu ondorioak.

– Eguneko zentroa edo eguneko arreta zerbitzua, adinekoentzako gaueko zerbitzua edo zentroa, adinekoentzako etxebizitza zerbitzua (etxebizitza komunitarioa), adimen ezintasuna edo gaixotasuna duten pertsonentzako laguntzadun etxebizitza, eta egoitza zerbitzua edo zentroa erabiltzen duten pertsonak ospitalean sartuz gero, zerbitzua ez da etengo ospitalean pasatzen dituen lehen 45 egunetan; etendura epealdi hori amaitu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

f) Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak edo kasuan kasuko oinarrizko gizarte zerbitzuak prestazio ekonomikoaren edo zerbitzuaren kudeaketarako eskatzen dituen informazioak eta agiriak berandu aurkezteagatik. Honek salbuespena dauka: atzerapena hilabete baino luzeagoa izatea aurrekoa betetzeko ezarritako epealdia amaitzen denetik. Horrelakoetan etendura ebazpena ematen den egunean jarriko da indarrean.

Idatz zati honetan aipatzen den atzerapena hilabete baino luzeagoa izanez gero, betebeharra ez dela bete pentsatuko da eta eskubidea azkenduko da foru dekretu honetako 75.1.k) artikuluan ezarri den bezala.

g) Prezio publikoa behin eta berriz ez ordaintzeagatik. Etendura ebazpena ematen den egunean jarriko da indarrean.

2. 1. paragrafoan aipatutako etendura kasuetan ez du edukiko inolako eraginik foru arautegian Autonomiaren Aldeko eta Mendetasunaren Arretarako Sistemako prestazio ekonomikoen etendurez ezarritakoak.

3. Eskubidea eteten bada, onuradunak aldi batean ez du jasoko zerbitzua edo prestazioa (etendaldia noiz hasiko den artikuluko honetako 1. paragrafoan ezarri da). Etendura indarrean jartzea

gorabehera etenaldian zehar prezio publikoaren ondoriozko zenbatekoa ordaindu beharko dira, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak ematen dituen zerbitzuen prezio publikoei buruzko foru arautegian ezarritakoarekin bat etorriz.

4. Etenduraren iraupena:

a) Etenduraren eragilea adinekoentzako etxebizitza zerbitzuan (etxebizitza komunitarioa), adimen ezintasuna edo gaixotasuna duten pertsonentzako laguntzadun etxebizitzan edo egoitza zerbitzuan edo zentroan atsedean zerbitzua erabiltzea bada (artikulu honetako 1.a paragrafoa), etenduraren iraupena atsedenaldira izango da.

b) Etenduraren eragilea eguneko zentro batean edo eguneko arreta zerbitzu batean atsedean zerbitzua erabiltzea bada (artikulu honetako 1.b paragrafoa), etenduraren iraupena atsedenaldira izango da.

c) Etendura pertsona erabiltzaileak edo beraren ordezkariak eskatuta gertatzen bada (artikulu honetako 1.c eta 1.d paragrafoak), etenduraren iraupena eskatzen dena izango da, baina muga edukiko du: 6 hilabete; 6 hileko aldia amaitutakoan eskubidea azkenduko da 75.1 j) artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

d) Etendura onuraduna ospitalean sartzegatik gertatzen bada (artikulu honetako 1.e paragrafoa), etenaldia 6 hilekoa izan daiteke gehienez etendura indarrean jartzen den egunetik aurrera (zerbitzuaren araberakoa da); aldi hori amaitutakoan eskubidea azkenduko da 75.1 j) artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

e) Etendura Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak edo kasuan kasuko oinarrizko gizarte zerbitzuak prestazio ekonomikoaren edo zerbitzuaren kudeaketarako eskatzen dituen informazioak eta agiriak berandu aurkezteagatik gertatzen bada (artikulu honetako 1.f paragrafoa), etendurak hilabete iraungo du.

f) Etendura prezio publikoa behin eta berriz ez ordaintzeagatik gertatzen bada (artikulu honetako 1.g paragrafoa), etendura indarrean egongo da zor dena ordaintzen ez den artean; egoerak 6 hilabete baino luzeago irauten badu, eskubidea azkenduko da 75.1 j) artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

g) Etendura prestazio ekonomikoei buruzko foru arautegian ezarritako arrazoietakoa bategatik gertatzen bada (artikulu honetako 2. paragrafoa), etenduraren iraupena arautegian kasu bakoitzerako ezarritakoa izango da.

5. Eskubidea etetea eragin duen arrazoia desagertzen bada, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak ofizioz edo alderdiak eskatuta zerbitzua edo prestazio ekonomikoa berriz jasotzeko betekizunak betetzen direnez egiaztatuko du.

75. artikulua. Eskubidea azkentzea

1. Oro har, foru dekretu honetan araututako zerbitzuak eta prestazio ekonomikoak jasotzeko eskubidea ondoko arrazoi hauengatik azkenduko da:

a) Titularra hiltzea.

b) Foru dekretu honetan eskubidea edukitzeko ezarritako betekizunetako bat ez betetzea.

c) Titularrak eskubideari uko egitea, berariaz zein bestela, foru dekretu honetan arautu den bezala.

d) Banakako arreta programa edo arreta plan pertsonalizatua aldatzea aitortutako zerbitzua edo prestazio ekonomikoa jada ez dela egokia adierazteko.

e) Azkenduko den zerbitzuarekin bateragarria ez den zerbitzu edo prestazio ekonomiko baterako eskubidea aitortzea.

f) Prestazio ekonomikoaren edo zerbitzuaren aitopenearen ebazpenean ezarritako iraunaldia amaitzea.

g) Mendekotasunaren edo ezintasun graduaren behin-behineko aitopenerako ezarritako indarraldia amaitzea, 13.5 b) artikuluko bigarren puntuaren araututako kasuetan izan ezik.

h) 2. artikuluko 4.c) idatz zatian, 14. artikuluko 4.c) idatz zatian eta 32. artikuluko 4.d) idatz zatian aipatutako kasuetan ezarritako eskaera egunetik 6 hilabete pasatu baino lehen familia harrera ez gauzatzea, eragilea gorabehera. Hori gertatuz gero, familiakoak zaintzeko eta zaintzaile ez profesionalei laguntzeko prestazio ekonomikoa soilik azkenduko da.

i) Pertsona onuraduna Euskal Autonomia Erkidegoko beste lurralde historiko batera edo Euskal Autonomia Erkidegotik kanpora behin betiko joatea; honek ez du eragozten foru dekretu honetako bigarren xedapen gehigarrian espedienteak lekualdatzeari buruz ezarritakoa, ez eta Autonomiaren Aldeko eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemako prestazio ekonomikoei buruzko foru arautegian zerbitzu bati lotutako prestazio ekonomikoak Arabatik kanpoko zentro batean sartzeko erabiltzeari buruz ezarritakoa ere.

j) Eskubidea 6 hilabete baino gehiago jarraian etenda egotea etenaldia indarrean jartzen denetik aurrera zenbatuta.

k) Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak edo kasuan kasuko oinarrizko gizarte zerbitzuak prestazio ekonomikoaren edo zerbitzuaren kudeaketarako eskatzen dituen informazioak eta agiriak ez aurkeztea, edo hilabetetik gorako atzerapenarekin betetzea.

l) Eskaeran edo horrekin batera aurkeztu beharreko agirietan datuak edo informazioa ezkatzea edo faltsutzea.

m) Urtean zehar berrogeita bost egun baino gehiagotan ez joatea zentrora bidezko arrazoirik gabe.

2. 1. paragrafoan aipatutako kasuetan ez du edukiko inolako eraginik foru arautegian Autonomiaren Aldeko eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemako prestazio ekonomikoak azkentzeaz ezarritakoak.

3. Eskubidea azkentzeak berekin ekarriko du zerbitzua edo prestazioa gehiago ez jasotzea.

76. artikulua. Eskubidea eteteko eta azkentzeko prozedura

1. Aurreko artikuluetan eskubidea eteteko edo azkentzeko araututako arrazoiak bat gertatzen bada, Autonomiaren Aldeko eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemako prestazio ekonomikoei buruzko arautegia ezarritakoa aintzat hartuta, zerbitzuaren edo prestazio ekonomikoaren eskumena daukan arloko zuzendariorde teknikoak erabiltzaileari edo beraren ordezkariari jakinarazi beharko dio eta 15 egun balioduneko epealdia edukiko dute nahi dituzten alegazioak aurkezteko.

Aurrekoa ez da aplikatuko eskubidea erabiltzailea hiltzeagatik edo erabiltzaileak eskubideari uko egiteagatik azkentzen denean. Kasu hauetan Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Zuzendaritza-Kudeatzaileak espedientea artxibatuko du berariazko ebazpena eman ondoren.

2. Aurreko paragrafoan aipatutako alegazioen izapidea bete ondoren arlo eskuduneko zuzendariorde teknikoak ebazpen proposamena bidaliko dio Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Zuzendaritza-Kudeatzaileari. Ondokoetako bat proposatu daiteke:

a) Onuradunak zerbitzuaren edo prestazio ekonomikoaren titularra izaten jarraitzea.

b) Eskubidea etetea eta onuradunak aldi batez zerbitzuaren edo prestazio ekonomikoaren titularra izateari uztea.

c) Eskubidea azkentzea eta onuradunak behin betiko zerbitzuaren edo prestazio ekonomikoaren titularra izateari uztea.

3. Proposamena jaso ondoren Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Zuzendaritza-Kudeatzailetzak ebazpen arrazoitua emango du.

4. Aurreko artikuluko 1. paragrafoko l) idatzatian aipatutako arrazoietakoa bategatik zerbitzua edo prestazioa jasotzeko eskubidea galtzen bada, titularrak ezin izango du eskatu berriro foru arau honetan araututako zerbitzurik ez prestazio ekonomikorik eskubidea azkentzen denetik urtebete pasatu arte, 44. artikuluan ezarritako salbuespenak gorabehera.

IV. TITULUA. PLAZAK KUDEATZEKO ANTOLAKETA PROZEDURAK

I. KAPITULUA. GIZARTE ZERBITZUEN FORU SAREKO ZENTROETAKO PLAZAK ESKURATZEA

77. artikulua. Plaza hutsak eskuratzeko moduak

1. Gizarte zerbitzuen foru sareko zentroetan ez badago plaza hutsik eskubidea aitortzen duen ebazpena ematen denean (foru dekretu honetako 68.2.c artikulua), onuradunek honela jaso dute plaza:

- a) Ofizioz lekualdatu (hurrengo artikuluan arautu da nola).
- b) Plazak kudeatzeko programako plaza hutsak esleitzeko zerrendaren bidez.

2. Ofizioz lekualdatzeak lehentasuna edukiko du plazak kudeatzeko programako plaza hutsak esleitzeko zerrendaren aldean.

78. artikulua. Ofizioz lekualdatzea

1. Pertsona bat artatzen ari den zentroaren eskumena daukan arloko zuzendariordetzak ofizioz sustatu ahal izango du hura lekualdatzea, baldin eta haren adina edo beharizanetan gertatutako aldaketaren bat dela eta, zerbitzua desegokia delako edo lekualdaketa gomendatzen duen beste inguruabar teknikoren batengatik foru sareko beste zentro batean egotea egokiagozat jotzen bada, hain zuzen ere onuradunari behar duen arreta emateko egokiagoa den zentro batean. Lekualdaketarako prozedura hurrengo kapituluan arautu da.

2. Ofiziozko lekualdaketak honelakoak izan daitezke:

- a) Arlo baten barrukoak; honelakoetan bi zentroak Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde arlo berekoak dira.
- b) Arlo arteko lekualdaketak; honelakoetan onuraduna Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde arloko bateko zentro batetik beste arloko bateko zentro batera aldatzen da.

79. artikulua. Plazak kudeatzeko programaren bidez lekualdatzea

1. Plazak kudeatzeko programak osagai hauek dauzka:

- a) Plaza hutsak esleitzeko zerrenda; artikulua honetan arautzen da.
- b) Borondatezko geroramendua; hurrengo artikuluan arautzen da.

2. Plaza hutsak esleitzeko zerrendaren bidez gizarte zerbitzuen foru sareko zentroetako plazak eskuratzeko lehentasun hurrenkera ezartzen da zerbitzu jakin bat jasotzeko eskubidea eduki eta mendekotasun edo ezintasun gradu bera aitortuta daukaten pertsonen artean (aurreko artikuluen arabera ofizioz lekualdatzen direnak ez beste guztiak); hauek dira:

- a) Zerbitzu bateko plaza hutsak esleitzeko zerrendan dauden pertsonak, hain zuzen ere ebazpena (69. artikulua) ematen denean zentro egokian plazarik egon ez eta bien bitartean zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikorik jasotzen ez dutenak.
- b) Prestazio ekonomikoa lotuta daukan zerbitzu bateko plaza hutsak esleitzeko zerrendan dauden pertsonak, hain zuzen ere ebazpena (69. artikulua) ematen denean banakako programazioan ezarritako zentroan plazarik egon ez eta bien bitartean zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa jasotzen dutenak mota bereko zerbitzua erabiltzeko foru saretik kanpo.

c) Borondatezko lekualdaketen zerrendan dauden pertsonak, hain zuzen ere gizarte zerbitzuen foru sareko plaza esleituta eduki eta beste batera aldatzeko eskatu dutenak. Idatz zati honetan aipatzen diren borondatezko lekualdaketak arlo bereko mota eta ezaugarri bereko zentroen artean egin behar dira; eskaeran ezin da adierazi lehenetsitako zentrorik, 63.4 b) artikuluan aipatzen diren kasuetan izan ezik.

3. Mota bakoitzeko zentroetako plaza hutsak esleitzeko zerrenda bat egongo da.

4. Plazak kudeatzeko programako plaza hutsak esleitzeko zerrendaren barruan lehentasun hurrenkera honela ezarriko da: lehenengo mendekotasun graduaren arabera –gradurik handienetik behera– eta gero ezintasun graduaren arabera –gradurik handienetik behera–. Mendekotasun edo ezintasun gradu bera aitortuta daukatenen artean lehentasun hurrenkera finkatzeko irizpide hauek aplikatuko dira:

a) Lehenbizi eskatzailearen egoera ekonomikoa hartuko da aintzat, foru dekretu honetako 66. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz; honek ez du eragozten plazak kudeatzeko programako plaza hutsak esleitzeko zerrendan lehentasun hurrenkera finkatzeko 14. eranskinean puntuazio irizpideen aplikazioa.

b) Aurreko a) paragrafoan ezarritako irizpidearen bidez ezin bada zehaztu plaza baterako lehentasunen hurrenkera, ondokoetako bat hartuko da kontuan, kasuan kasukoa: noiz aurkeztu den dokumentazio osagarria, 64.1 artikuluan aipatzen dena; noizko eskatu den lekualdaketa; noiz sartu den eskatzailea azkeneko plaza hutsak esleitzeko zerrendan borondatezko geroramenduan egon ondoren.

5. Aurreko paragrafoan ezarritako irizpideen arabera puntuazioa emango zaio plazak kudeatzeko programako plaza hutsak esleitzeko zerrendan dagoen pertsona bakoitzari. Horretarako foru dekretu honen 14. eranskineko puntuazio irizpideak aplikatuko dira.

6. Plazak kudeatzeko programako plaza hutsak esleitzeko zerrenda etengabe eguneratuko da Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak eskaera berriak baloratu eta ebatzi ahala. Eguneraketaren bidez beharrezko doikuntzak egingo dira zerrendaren antolamenduan.

7. Eskatzaile bat plazak kudeatzeko programako plaza hutsak esleitzeko zerrendan sartzen denean, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak zer puntuazio daukan eta zerrendako zer lekutan dagoen jakinaraziko dio, berari zuzenean zein beraren ordezkariari. Informazio hori zerrendan sartu ondoren ere eskura daiteke, Erakundeari eskatuz gero.

Eskatzaileari informazio hori ematen zaionean, adieraziko zaio zerrendako lekua ez dela puntuazioaren edo zerrendan sartutako egunaren araberkoa soilik, norberak baino puntu gehiagorekin zerrendan dauden edo sartzen diren pertsonen kopuruaren eta plaza hutsak sortzeko erritmoaren araberkoa ere bada eta.

80. artikulua. Borondatezko geroramendua

1. Plazak kudeatzeko programako plaza hutsak esleitzeko zerrendan dagoen pertsona batek dena delakoagatik aldi jakin batean ez badu nahi plazarik esleitzea, idatziz jakinarazi behar dio Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari; hori egindakoa borondatezko geroramenduan geratuko da plazak kudeatzeko programan.

2. Aldi batez borondatezko geroramenduan dauden pertsonen ez zaie eskainiko plazarik banakako arreta programan edo arreta plan pertsonalizatuan esleitutako motako zentroetan. Geroramenduan dagoen pertsona batek berriz ere plazak kudeatzeko programako plazak hutsak esleitzeko zerrendan sartu nahi duenean, idatziz jakinarazi behar dio Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari. Hori egindakoa atzera ere zerrendan sartuko da beraren puntuazioari dagokion lekuan, egun horretan zerrendan zenbat lagun dauden kontuan hartuta. Hori gorabehera, foru dekretu honetako 82. artikuluko 3.b) paragrafoan plaza bati uko egin ondoren borondatezko geroramenduan geratzen direnen kasuz ezarritakoa bete behar da.

3. Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomiko baten onuradunak borondatezko geroramenduan egon daitezke plaza hutsak esleitzeko zerrendan norbait dagoen artean.

81. artikulua. Plazak esleitzea

1. Plaza bakoitza esleitzeko proposamena kasuan kasuko zerbitzuari dagokion arloko zuzendariordetza teknikoak aurkeztuko dio Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Zuzendaritza-Kudeatzailerari.

2. Foru dekretu honetako 77.2 eta 79.4 artikuluetan araututako lehentasun hurrenkeraren arabera, 1. paragrafoan aipatzen den esleipena ofizioz lekualdatzen den pertsona batentzat izango da edo, bestela, halakorik ez badago, plazak kudeatzeko programako plaza hutsak esleitzeko zerrendan goren dagoen pertsonarentzat, zentro mota eta plaza hutsa kontuan hartuta.

2. paragrafo honetan ezarritakoak salbuespen hauek dauzka:

a) Plazak kudeatzeko programako plaza hutsak esleitzeko zerrendako borondatezko lekualdaketen zerrendan dauden pertsonen kasu batean bakarrik esleituko zaie hutsik geratzen den plaza: azaldu berri den prozeduraren arabera dagokien plaza lehenetsitako udalerrian dagoen zentro batean badago.

b) Pertsona baten ezkontidea edo ezkontzaren antzeko lotura baten bidez lotutako pertsona (lotura hori behar bezala frogatu behar da), edo berarekin bizi izandako senidea, aita edo ama (63.4.b artikulua) foru sareko egoitza edo etxebizitza bateko plaza batean badago eta plazak kudeatzeko programako plaza hutsak esleitzeko zerrendako hurrenkeraren arabera plaza hutsa esleitu behar bazaio, aipatutako ahaidea dagoen zentroko plaza bat esleituko zaio, plaza hutsa bertan dagoelako edo bestela sartzeko eguna ezarri gabe, aurre-esleipen modura, artikulua honetako 4.b) paragrafoan ezarri den bezala.

Plaza Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Zuzendaritza-Kudeatzaileraren berariazko ebazpenaren bidez esleituko da. Ebazpenak eskatzailea zentroan sartzea edo zentroz aldatzea onartuko da, plaza zer zentrotan dagoen azalduko da eta zerbitzuaren baldintza ekonomikoen berri emango da.

3. Aurreko paragrafoan aipatutako plaza esleitzeko ebazpenean bi aukera daude:

a) Pertsona onuraduna plaza noiz eskuratuko duen adieraz daiteke. Horrelakoetan gehienez 20 egun natural pasatu daitezke ebazpena ematen denetik zentroan sartu arte.

b) Onuraduna egoitzan noiz sartu behar den zehaztu gabe utz daiteke, baldin eta ebazpena ematen denean zehazterik ez badago. Honelakoetan onuradunari geroago jakinarazi behar zaio noiz sartu daitekeen egoitzan. Hori gertatzen denean, onuradunari egoitzan noiz sartu daitekeen jakinarazten zaionetik gehienez 7 egun natural pasatu daitezke sartu arte, kontuan hartuta epealdi hori eta aurre-esleipenaren iraupena bat eginda batura guztira 20 egun naturalekoa izan daitekeela.

a) eta b) idatz zatietan araututako epealdiak aparteko egoeretan luzatu ahal izango dira, arlo eskuduneko zuzendariordetzak berariaz baimena eman ondoren.

82. artikulua. Plaza ez onartzea

1. Plaza bat ofiziozko lekualdatuko den pertsona bati esleitu behar bazaio, hau da, balorazio teknikoa dela bide egokiagoa den zentro batera joan behar den pertsona bati, hark nahitaez onartu behar du esleipena. Plaza ez onartzea uko egitea bezalakoa izango da; beraz, foru dekretu honetako 70. artikuluan horretaz araututakoa aplikatuko da.

2. Plaza plazak kudeatzeko programako plaza hutsak esleitzeko zerrendaren bidez esleitzen bada, esleipenaren onuradunak 5 egun baliouduneko epealdia edukiko du plazaren esleipenaren jakinarazpena jasotzen duenetik onartzen duen edo ez adierazteko. Horretarako, ebazpenarekin batera foru dekretu honen 11. eranskineko inprimakia ere bidaliko zaio onuradunari. Plaza

onartzeko edo ez onartzeko inprimaki hori behar bezala sinatuta aurkeztu behar da bidezko oinarritzko gizarte zerbitzuan, informazio eta gizarte arretarako bulegoan edo zerbitzu espezializatuan. Plaza ezarritako epealdian onartzen ez bada, onuradunak uko egin diola pentsatuko da, ondoko kasuan izan ezik: gero onuradunak dokumentuen bidez frogatzen badu ezin izan duela erantzun epealdiaren barruan.

3. Onuradunak ez badu onartzen esleitutako plaza, ondoko egoeretako batean geratuko da, baldin eta plaza egoitza batetik beste batera aldatzeko esleitu ez bazaio:

a) Lehenengoz edo bigarrenegiz egiten badio uko eskaeran lehenetsitako udalerrian ez beste batean dagoen egoitza bateko plazari, kudeatzeko programako plaza hutsak esleitzeko zerrendan jarraituko du.

Horrelakoetan onuradunak borondatezko geroramendua eskatu ahal izango du plazak kudeatzeko programan, foru dekretu honetako 80. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik; nolahi ere, plazari uko egiteak ondoko b) idatz zatian ezarritako ondorioak sortuko ditu.

b) Plazak kudeatzeko programako plaza hutsak esleitzeko zerrendatik irtengo da, baldin eta:

– Lehenengoz egin badio uko eskaeran lehenetsitako udalerrian dagoen egoitza bateko plaza bati.

– Hirugarren aldiz egin badio uko eskaeran lehenetsitako udalerrian ez beste batean dagoen egoitza bateko plaza bati.

b) idatz zatian araututako kasuetan, plaza ez onartzea edo plazari uko egitea eskubideari uko egitea bezalakoa izango da eta 70. artikuluan horrelakoetarako araututakoa aplikatuko da, onuradunak borondatezko geroramendua eskatu ezean:

– Plazari uko egitea erabakiz gero, ezin sartu izango da berriro plazak kudeatzeko programako plaza hutsak esleitzeko zerrendan plaza onartu ez duen egunetik urtebete pasatu arte. Aldi horretan zerbitzuren bat behar izanez gero, zerbitzuari lotutako prestazio ekonomiko baten bidez soilik jaso ahal izango du.

– Plazak kudeatzeko programan borondatezko geroramenduan egotea erabakitzen badu, berak nahi duenean sartu ahal izango da berriz plaza hutsak esleitzeko zerrendan, baina orduan esleitzen zaion lehenengo plaza onartu beharko du, eta hori ez onartzea uko egitea bezalakoa izango da eta aurreko gidoian ezarritakoa aplikatuko da.

Zerrendan berriz sartzeko eskaera foru dekretu honen 15. eranskineko "Plazak kudeatzeko programarekin lotutako eskaera" izeneko dokumentua aurkeztu behar da bidezko oinarritzko gizarte zerbitzuan edo Informazio eta Gizarte Arretarako Bulegoan, eskatzaileak edo beraren ordezkariak (foru dekretu honetako 2,4, 14.4 eta 32.4 artikuluek) behar bezala sinatuta.

4. Borondatez lekualdatzeko eskaera aurkeztu duen bati plaza esleitzen bazaio, dagoen zentroa eskaeran lehenetsitako udalerrian bertan badago eta esleitutako plaza ez onartzea erabakitzen badu, ezin izango du eskatu borondatezko beste lekualdaketa bat 2 urte pasatu arte, lehenetsitako udalerrira aldatu ezean.

II. KAPITULUA. GIZARTE ZERBITZUEN FORU SAREKO ZENTROEN ARTEKO LEKUALDAKETETARAKO PROZEDURA

83. artikulua. Lekualdatzeko espedientea hastea

1. Nork bere borondatez edo alderdi batek eskatuta zentro batetik beste batera aldatzeko eskaerak idatziz egin behar dira eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundera bidali behar dira. Eskatzailea artatzen ari diren zentroan bertan aurkeztu daiteke eskaera, hain zuzen ere erreferentziazko gizarte langileari, edo bestela Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Erregistro Orokorrean.

2. Ofizioz, honela hasiko dira lekualdaketak:

a) Lekualdaketa arlo bereko zentroen artean bada: eskatzailea dagoen zentroa atxikitako arloko zuzendariordetza teknikoak proposatu behar du espedientea hastea; horretarako proposamena bidali behar du Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Zuzendaritza-Kudeatzailtzara.

b) Lekualdaketa arloen artean bada: eskatzailea dagoen zentroa atxikitako arloko zuzendariordetza teknikoak proposatu behar du espedientea hastea; horretarako proposamena bidali behar du foru dekretu honetako 85. artikuluan aipatzen den lekualdaketa batzordera.

84. artikulua. Borondatezko lekualdaketa espedientea: instrukzioa eta ebazpena

1. Lekualdaketa alderdi batek eskatzen badu, eskaera jasotakoan espedientea eskatzailea artatzen ari diren zentroa atxikita dagoen arloko zuzendariordetza teknikora bidaliko da.

2. Zuzendariordetza tekniko horrek proposamena bidaliko du Zuzendaritza-Kudeatzailtzara; horren bidez onuraduna plazak kudeatzeko programako plaza hutsak esleitzeko zerrendan sartzea proposatuko du, hain zuzen ere 79. artikuluan ezarritako irizpideen arabera dagokion lekuan, artikulua berean ezarritako ondorioetarako.

3. Ebazpen proposamena jaso ondoren Zuzendaritza-Kudeatzailtzak borondatezko lekualdaketa eskatu duena plazak kudeatzeko programako plaza hutsak esleitzeko zerrendan sartzeko ebazpena emango du; ebazpena eskatzaileari jakinaraziko zaio.

4. Eskatzailea goren lekura heltzen denean plazak kudeatzeko programako plaza hutsak esleitzeko zerrendan, Zuzendaritza-Kudeatzailtzak plaza esleitzeko ebazpena emango du 81. artikuluan ezarri denarekin bat etorritik.

85. artikulua. Ofiziozko lekualdaketa espedientea: instrukzioa eta ebazpena

1. Ofizioz sustatzen bada zentro batean dagoen pertsona bat arlo bereko beste zentro batera aldatzea, arloko zuzendaritza teknikoak hari edo beraren legezko ordezkariari edo egitatezko zaintza daukanari horren berri jakinarazi behar dio. Interesdunek 15 egun balioduneko epealdia edukiko dute alegazioak aurkezteko. Epealdi horretan alegaziorik aurkezten ez bada, prozedurak aurrera egingo du.

Alegazioen izapidea beteta, lekualdaketa arlo bateko zentroen artean bada, bertako zuzendariordetza teknikoak ebazpen proposamena bidaliko du Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Zuzendaritza-Kudeatzailtzara; proposamenean lekualdaketa zergatik den bidezkoa azaldu behar da.

2. Espedientearen xedea pertsona bat arlo bateko zentro batetik beste arlo bateko zentro batera aldatzea bada, ebazpen proposamena Lekualdaketa Batzordeak egin behar du balorazioa egin ondoren. Lekualdaketa Batzordea onuraduna dagoen zentroa atxikita dagoen arloko zuzendariordetza teknikoak egindako proposamena jasotzen denetik 15 egun baliodun pasatu baino lehen bilduko da. Interesdunen alegazioak jasotzeko izapidea bete behar da 1. paragrafoan arautu den bezala; haiei jakinaraziko zaie onuraduna beste arlo bateko zentro batera aldatzeko prozedura hasi dela, eta zentro berria zer arlotakoa den eta zer udalerritan dagoen azalduko zaie. Alegazioak aurkezteko epealdia amaitutakoan Lekualdaketa Batzordeak ebazpen proposamena bidali beharko du Zuzendaritza-Kudeatzailtzara arloko zuzendariordetzak egindako proposamena jasotzen denetik bi hilabete pasatu baino lehen.

3. Aurreko paragrafoan aipatutako Lekualdaketa Batzordean kide hauek ariko dira:

a) Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko zuzendari kudeatzailea edo hark horretarako eskuordetzen duen pertsona.

b) Adinekoen Arloko zuzendariordea.

c) Ezinduen Arloko zuzendariordea.

d) Adingabeen eta Familiaren Arloko zuzendariordea.

- e) Gizartegintza arloko zuzendariordea.
- f) Adinekoen Arloko gizarte koordinatzailea.
- g) Ezinduen arloko gizarte koordinatzailea.
- h) Gizartegintza Arloko gizarte koordinatzailea.
- i) Adingabeen eta Familiaren Arloko Harrera, Balorazio eta Orientazio Unitateko burua.

Arlo bakoitzak egokitzen dituen txosten medikoak, txosten psikologikoak eta bestelako guztiak eraman ditzake Batzordearen bileretara.

4. Oro har, eta konplexuegiak izanik Batzordeko kide guztiak biltzea komeni den kasuetan izan ezik, pertsona hauek ariko dira espedienteak aztertzen eta baloratzen, eta ebazpen proposamenak egiten:

a) Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko zuzendari kudeatzailea edo hark horretarako eskuordetzen duen pertsona.

b) Bi zentroen arloetako zuzendariordeak.

c) Bi zentroen arloetako gizarte koordinatzaileak; arloetako bat Adingabeen eta Familiaren Arloa bada, Harrera, Balorazio eta Orientazio Unitateko burua.

5. Batzordea osorik zein 4. paragrafoan ezarri den bezala biltzen denean, eskatzailea dagoen zentroa atxikitako arloko koordinatzaileak (edo Harrera, Balorazio eta Orientazio Unitateko buruak, arlo hori Adingabeen eta Familiaren Arloa bada) idazkari lanak egingo ditu, eta idazkaria den aldetik bilerarako deialdiak egingo ditu, deitutako kideei eskaeran bildutako kasu guztiei buruzko informazioa bidaliko die, proposamena jakinaraziko dio erabiltzaileari edo alegazioen izapiderako ordezkari ari denari, eta proposamena bidaliko du Zuzendaritza-Kudeatzailetzara.

6. Zuzendaritza-Kudeatzailetzak arloko zuzendaritza teknikoaren proposamena (arlo baten barruko lekualdaketa) edo Lekualdaketa Batzordearen proposamena (bi arloren arteko lekualdaketa) jasotzen duenetik 15 egun pasatu baino lehen emango du ebazpena.

III. KAPITULUA. ZENTRO BATEAN SARTZEA.

86. artikulua. Zentroan sartzea

1. Eskatzaileari plaza bat esleitu ondoren ebazpenean adierazitako zentrorra joan behar da ebazpenean bertan edo ondoko jakinarazpen batean zehaztutako egunean.

2. Eskatzailea ezarritako egunean zentroan sartzeko ez bada Foru Administrazioari egotzi ezin zaion arrazoiren bategatik, plazari uko egin diola pentsatu ahal izango da, bai eta horren barruan izapidetutako espedientearen ondoriozko eskubide guztiak hartzen dituela ere, 82. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

3. Aurreko paragrafoan araututakoa ez da aplikatuko inguruabar bereziak direla eta onuraduna zentroan sartu ezin bada. Horrelakoetan interesdunak Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari eskatu ahal izango dio zentroan sartzeko eguna aldatzeko. Eskaeran arrazoiak azaldu behar dira. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Zuzendaritza-Kudeatzailetzak bidezko arloko zuzendariordeak teknikoaren txostena irakurri ondoren ebatziko du eskaera bakoitza.

Plaza bat esleitu zaion pertsona bat ezin bada zentroan sartu ebazpenean ezarritako egunetik 7 egun natural pasatu baino lehen, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak beste pertsona bati esleitu ahal izango dio plaza hori, eta bera plazaren aurre-esleipenarekin geratuko da zentroan sartzeko eguna ezarri gabe.

4. Zentro batean sartzeko berekin ekarriko du bertako arauak onartu behar izatea; gainera, prezio publikoei buruzko foru arautegian ezarritakoaren arabera plazagatik prezio publikoa ordaindu behar bada, hori ere onartu behar da.

Plaza egoitza zentro edo zerbitzu batean bada, edo adinekoentzako etxebizitza zerbitzu batean (etxebizitza komunitarioa), edo adimen ezintasuna edo gaixotasuna daukaten pertsonentzako laguntzadun etxebizitza batean (modalitate arrunta), onuraduna zentroa edo zerbitzua dagoen udalerrian erroldatu behar da. Onuradunak hori onartzen ez badu, plaza erabiltzea eragotzi ahal izango zaio, aitortutako eskubideari uko egin diola eta, 70. artikuluan ezarri den bezala.

Aurrekoa dela eta, esleitutako zentroa edo zerbitzua erabiltzen hasi baino lehen bertako arduradunak baliabidearen barne funtzionamenduko arauak azalduko dizkio eskatzaileari edo beraren ordezkariari eta barne araudia edo estatutua emango dio.

87. artikulua. Egokitzeko aldia

1. Onuradunak zentroan sartu ondoko hiru hilak, gehienez, bertako inguruabarretara eta funtzionamendura egokitzen emango ditu. Erabiltzaileak zentrorra errazago ohitzeko behar duen laguntza teknikoa jasoko du.

2. Erabiltzaile bat behar bezala ez dela egokitzen igarritz gero, zentroko zuzendaritzak edo arduradunak, edo erabiltzaileak berak, arloari jakinaraziko dio eta hark egoera ebaluatu beharko du eta ebaluazio txostena egin. Horretarako elkarrizketa bat egin beharko da erabiltzailearekin. Elkarrizketan erreferentziako pertsona edo ordezkaria egon daiteke.

3. Arlo eskuduneko zuzendariordetza teknikoak ebaluazio txostenaren berri eman beharko dio erabiltzaileari edo beraren ordezkariari, 15 egun baliodunetan nahi dituen alegazio guztiak aurkez ditzan. Epealdi horretan alegaziorik aurkezten ez bada, prozedurak aurrera egingo du.

4. Alegazioen izapidea bete ondoren arlo eskuduneko zuzendariordetza teknikoak ebazpen proposamena bidaliko dio Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Zuzendaritza-Kudeatzailetzari. Ondokoetako bat proposatu daiteke:

a) Onuraduna zentroan sartzea baieztatzea.

b) Onuraduna beste baliabide batera aldatzea zentroko inguruabarretara edo funtzionamendura ez egokitzeagatik.

c) Plaza galtzea eta aitortutako eskubidea azkentzea, esleitu ezin bazaio berarentzat egokia den beste zerbitzurik.

5. Proposamena jaso ondoren Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Zuzendaritza-Kudeatzailetzak ebazpen arrazoitua emango du. Zuzendaritza-Kudeatzailetzak erabakitzen badu onuradunak plaza galdu duela eta beste zentro bat esleituko zaiola, aldaketa jakinarazpena egiten denetik hilabete pasatu baino lehen egin behar da.

V. TITULUA. ERREKURTSOAK

88. artikulua. Errekurtso administratiboak

1. Foru dekretu honetan araututako prozeduretan Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Zuzendaritza-Kudeatzailetzak ematen dituen ebazpenen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio erakunde horren Administrazio Kontseiluari, baldin eta ebazpenak administrazio bidea agortzen ez badu; horretarako hilabeteko epealdia egongo da ebazpenaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera.

2. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Zuzendaritza-Kudeatzailetzak eta Administrazio Kontseiluak ematen dituzten ebazpen irmoen aurka Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearekin bat etorritik aplikatu ahal diren gainerako errekurtso guztiak aurkeztu ahal izango dira (lege hori utarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu zuen).

3. Errekurtso administratiboak aurkezteko eta haien izapideak egiteko prozedurak aurreko paragrafoan aipatutako legean arautu dira.

89. artikulua. Epaile baten aurrean aurkaratzea

Administrazio bidea agortu ondoren, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Zuzendaritza-Kudeatzailtzaren eta Administrazio Kontseiluaren ebazpen irmoen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean ezarritakoarekin bat etorriz; horretarako bi hileko epealdia egongo da administrazio bideari amaiera ematen dion egintza jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa. Ustezko ezintasuna egoitza batean sartu ondoren.

1. Pertsona bat egoitza zentro batean sartu ondoren bertako zuzendaritzak uste badu babilitekeela hura gauza ez izatea hartu beharreko erabakiak hartzeko, horren berri emango dio erreferentziako ahaideari erabiltzailearen egitatezko zaintza bereganatu eta erabakiok hartzen laguntzeko, beraren eskubideak defendatzeko eta hura babesteko.

2. Aurreko kasuan, egoitzan dagoen pertsona babesgabezia badago, erabakiak hartzen lagundu diezaiokeen gertuko ahaiderik ez daukalako edo, eduki arren, ahaideek haren eskubideak defendatzen ez dituztelako edo hura babesten ez dutelako, edo egiteko horietan behar bezala jarduten ez dutelako, zentroko zuzendaritzak edo arduradunak horren berri emango die behar den lehen auzialdiko eta instrukzioko epaitegiari eta Fiskaltzari, neurriak har ditzaten, egokitzen jotzen badute, Prozedura Zibilar buruzko urtarrilaren 7ko 1/2000 Legeko 757.2 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako.

Bigarrena. Espedientea lekualdatzea Autonomiaren Aldeko eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemaren esparruan.

1. Zerbitzuen babes mailak eta prestazio ekonomikoen zenbatekoak zehazteko irizpideei buruzko ekainaren 8ko 727/2007 Errege Dekretuko 3. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, zerbitzu edo prestazio ekonomiko baten titularrak Arabako Lurralde Historikotik kanpora bizitzera joan nahi badu, behar bezalako aurrerapenarekin jakinarazi behar du eta espedientea lekualdatzeko eskatu behar du (eskaera eredia foru dekretu honen 16. eranskinean dago).

2. 1. paragrafoan aipatutako jakinarazpena jasotakoan Arabako Foru Aldundiak bizileku berria dagoen lurralde historikoari edo autonomia erkidegoari jakinarazi behar dio, eta hilabete pasatu baino lehen espedientea berari atxikitako dokumentazioa bidali behar ditu.

3. Honelako kasuetan, erabiltzailea babesten jarraitzeko, bizileku berria dagoen lurraldeko administrazioak banakako arreta programa aztertu arte Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak gehienez 60 egunez ordainduko ditu aitortutako prestazio ekonomikoak beste administrazioari lekualdaketa berri ematen zaion egunetik aurrera. Onuradunak zerbitzu bat jasotzen badu, Foru Erakundeak eskubidea etengo du eta horren ordez zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa emango dio.

4. Arabako Foru Aldundiak Euskal Autonomia Erkidegoko beste lurralde historiko bateko edo beste autonomia erkidego bateko espediente bat jasotzen badu, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak pertsona interesdunari edo beraren ordezkariari edo egitatezko zaintza daukanari jakinaraziko dio Arabako Lurralde Historikoan erroldatuta egon behar dela.

Espedientea jasotzen duen egunetik 60 egun pasatu baino lehen Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak banakako arreta programa aztertuko du.

5. Mendekotasuna aitortuta dutela aldi baterako Espainiako lurraldeko ohiko egoitzatik irten behar diren pertsonen zerbitzuaren eskubidea eta erreserba mantenduko dituzte, bai eta dagokien kostuaren zatia ordaindu beharra ere, edo, bestela, prestazio ekonomikoa urtean 60 egunetan jasoko dute, gehienez, banakako arreta programan ezarritako administrazio eskudunen kargura.

Hirugarrena. Foru dekretu hau aplikatzea Trebiñuko Konderriko udalerrietan eta Argantzunen bizi diren pertsonen.

Foru dekretu hau Trebiñuko Konderriko udalerrietan eta Argantzunen bizi diren pertsonen aplikatuko zaie; horretarako udal horiek berariazko hitzarmenak sinatuko dituzte Arabako Foru Aldundiarekin Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak ematen dituen gizarte zerbitzuak erabiltzeko.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehenengoa. Autonomiaren Aldeko eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemako zerbitzuak eta prestazio ekonomikoak jasotzeko eskubidearen eraginkortasun gehikorra.

1. Autonomiaren Aldeko eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemako zerbitzuak eta prestazio ekonomikoak jasotzeko eskubidea Estatuko eraginkortasun gehikorren egutegiaren arabera aplikatzeko (46. artikulua) ondoko irizpide hauek hartuko dira kontuan Arabako Lurralde Historian, Arabako Foru Aldundiak ematen duen babes osagarriaren esparruan:

a) Foru dekretu hau indarrean jartzen den egunean II. graduako edo III. graduako mendekotasuna aitortuta daukaten pertsonen eskubideek eta egun horren ondoren II. graduako edo III. graduako mendekotasuna aitortzen zaien pertsonen eskubideek ondorioak sortzen segituko dute.

b) I. graduako mendekotasun egoera aitortuta duten pertsonak:

– Foru dekretu hau indarrean jartzen den egunean I. graduako mendekotasuna aitortuta daukaten pertsonen eta mendekotasuna baloratzeko baremoan (MBB) 40 puntu edo gehiago daukaten pertsonen eskubideek ondorioak sortzen segituko dute, bai eta I. graduako mendekotasuna, puntuazioa gorabehera, aitortuta daukaten 3 urtetik beherako pertsonen eskubideek eta egun horren ondoren egoera aitortzen zaien pertsonen eskubideek ere.

– I. graduako mendekotasuna aitortuta eta mendekotasuna baloratzeko baremoan 40 puntu baino gutxiago daukaten 3 urtetik gorako pertsonen eskubideek Estatuko arautegi egokian zehazten den egunetik aurrera sortuko dituzten ondorioak, edo bestela Foru Aldundiak bere babes osagarriaren esparruan ezartzen duen egunetik aurrera. Aurrekoa gorabehera, I. graduako mendekotasuna (mendekotasuna baloratzeko baremoaren arabera 40 puntu baino gehiago), II. graduako mendekotasuna edo III. graduako mendekotasuna aitortuta eduki eta mendekotasunaren berrikuspen baten ondorioz balorazioa aldatu eta I. graduako mendekotasuna (40 puntu baino gutxiago) ezartzen zaien pertsonen eskubideek foru dekretu hau indarrean jartzen den egunetik aurrera sortuko dituzte ondorioak. Ondorio horiek atzeraeraginarekin aplikatuko dira 2012ko otsailaren 18tik, orduan jarri baitzen indarrean mendekotasuna baloratzeko baremoa onartzen duen otsailaren 11ko 174/2011 Errege Dekretua. Honelako kasuetan 40 puntu baino gutxiagorekin I. graduako mendekotasuna aitortuta daukaten pertsonen jaso ditzaketen prestazio ekonomikoak 40 puntu baino gutxiagorekin I. graduako mendekotasuna aitortuta daukaten pertsonen prestazio ekonomien zenbatekoak ezartzen dituen foru arautegiaren arabera jasotzen dituztenak eurak dira.

2. Aplikatu beharreko egutegiaren arabera I. graduako mendekotasuna aitortuta eta mendekotasuna baloratzeko baremoan 40 puntu baino gutxiago daukaten 3 urtetik gorako pertsonen Autonomiaren Aldeko eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemako zerbitzuak eta prestazio ekonomikoak ezin jaso dituzten artean foru dekretu honetako II. tituluko II. kapituluaren araututako zentro okupazionalak eta eguneko zentroak erabili ahal izango dituzte, adimen ezintasuna duten pertsonentzat eta adimen ezintasuna mendekotasun aitortu gabe dutenentzat ezarri den bezala, 77.2 eta 79. artikuluetan eskubidea erabiltzeko ezarritako irizpideak aplikatuta.

Bigarrena. Foru dekretu hau aplikatzea indarrean jarri aurretik Autonomiaren Aldeko eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemako zerbitzu edo prestazio ekonomikoak jaso eta ondoren ere arautegi berriaren arabera jasotzen segitzeko eskubidea edukiko duten pertsonen.

Hainbat arautegi ez aplikatzeko, hau da, onuradun bakoitzari Autonomiaren Aldeko eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemako zerbitzua edo prestazio ekonomikoa jasotzen hasi zen egunaren arabera arautegia ez aplikatzeko, foru dekretu hau indarrean jarri ondoren zerbitzu eta prestazio ekonomiko horietako bat jasotzen hasten diren pertsoneri ez ezik ondokoei ere aplikatuko zaie: dekretua indarrean jarri aurretik zerbitzu edo prestazio ekonomikoren bat jaso eta arautegi berriaren arabera jasotzen segitzeko eskubidea daukatenei. Nolanahi ere, prestazio ekonomikoak direla eta kontuan hartuko da Autonomiaren Aldeko eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemako prestazio ekonomikoei buruzko arautegian ezarritakoa.

Hirugarrena. Foru dekretu hau indarrean jarri aurretik Autonomiaren Aldeko eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemako zerbitzu edo prestazio ekonomiko bat jaso eta arautegi berriaren arabera horretarako eskubiderik ez daukaten pertsonen eta arautegi berriaren arabera bateratu ezin diren zerbitzuak edota prestazio ekonomikoak bateratu izan dituzten pertsonen egoera.

1. Foru dekretu hau indarrean jarri aurretik Autonomiaren Aldeko eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemako zerbitzu edo prestazio ekonomikoren bat jaso eta arautegi berriaren arabera horretarako eskubiderik ez daukaten pertsonen eta arautegi berriaren arabera bateratu ezin diren zerbitzuak edota prestazio ekonomikoak bateratu izan dituzten pertsonen prestazio ekonomikoak jasotzen edo zerbitzuak erabiltzen segitu ahal izango dute.

2. Horrelako kasuetan zerbitzuen erabiltzaileek arautegi berriaren berrikuspenez, etendurez, azkentzez eta lekualdaketez ezarritakoa bete behar dute, eskubidea gordetzea gorabehera.

3. Prestazio ekonomikoa jasotzen duten pertsonen prestazio ekonomikoei buruzko foru arautegiko araubide iragankorrean ezarritakoa bete behar dute, eskubide gordetzea gorabehera.

Laugarrena. Mendekotasunaren gradua.

Aurrekontu egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko neurriei buruzko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretuak mendekotasun mailak kendu baino lehen baloratuta egon diren pertsoneri dagokienez, foru dekretu honetan mendekotasun gradua aipatzen denean mendekotasun gradua eta maila arautzen direla pentsatu behar da, mendekotasun egoera berrikusten ez den bitartean: berrikusten bada, balorazio berriaren gradua baino ez da adieraziko.

Bosgarrena. Udal eskumeneko zerbitzuak ematea.

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak ezarritako Prestazioen eta Gizarte Zerbitzuen Katalogoa erabat garatzen ez den bitartean (batez ere Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazioen eta Zerbitzuen Zorroaren arautegia) Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak foru dekretu hau indarrean jartzen denean ematen dituen zerbitzu guztiak ematen jarraitu ahal izango du.

XEDAPEN INDARGABETZAILE BAKARRA.

Foru dekretu hau indarrean jartzen denean indargabetuta geratuko dira ondoko hauetan ezarritakoarekin bat ez datozen maila bereko eta beheagoko mailako xedapen guztiak: foru dekretu honetan ezarritako arautegia; 24/2013 Foru Dekretua, uztailaren 23koa, Diputatuen Kontseiluarena, mendekotasun egoera aitortzeko, ezintasuna kalifikatzeko eta garapenaren arazoak edo horiek jasateko arriskua aitortzeko prozedura arautzen duena, bai eta horrelako kasuetan Arabako gizarte zerbitzuak eta diru prestazioak jasotzeko eskubidea eta prozedura ere; 4/2014 Foru Dekretua, otsailaren 11koa, Diputatuen Kontseiluarena, aurrekoa aldatu duen heinean.

AZKEN XEDAPENAK.

Lehenengoa. Araubide osagarria.

1. Foru dekretu honetan berariaz arautzen ez den kasuetan ondoko hauek aplikatuko dira osagarri gisa: 39/2006 Legea (abenduaren 14koa, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoa) garatzeko eman diren prozedura xedapenak; 12/2008 Legea, abenduaren 5rkoa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa; 30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa (4/1999 Legeak finkatutako testua) eta hura garatzeko xedapenak; indarrean dauden legezko xedapenak, aplikazio egokia eta bateragarria dutenak.

2. Oro har, berariazko araei buruz (Estatukoak, Autonomia Erkidegokoak edo foralak) egiten diren aipamenak aldi bakoitzean arlo horiekin lotuta indarrean dauden araez egintzat hartu behar dira.

Bigarrena. Araudi garapena.

Gizarte zerbitzuen arloko eskumena daukan saileko titularrari ahalmena eman zaio arautegi hau garatzeko, betearazteko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

Hirugarrena. Indarraldia.

Foru dekretu hau 2014ko urriaren 1ean jarriko da indarrean; nolana ere, kontuan eduki behar da xedapen batzuk iragankorrak direla eta balitekeela Autonomiaren Aldeko eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemako prestazio ekonomikoei buruzko foru arautegian beste xedapen batzuk ezartzea.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko uztailaren 22a

Diputatu Nagusia

JAVIER DE ANDRÉS GUERRA

Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatua

MARTA ALAÑA ALONSO